

**GOTZON BARANDIARAN**

# **Errotik**

 **Susa** narratiba

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2010 Gotzon Barandiaran

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2010eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefonoa: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

Minbizia dudala jakinarazi zidatenetik bost urte joan dira. Koloneko minbiziaren eraginez heste zatitzarra kenduta, bost urte itxaron behar nituen gaitza berpiztuko zitzaidan jakiteko; bost urteren ostean berriz ez agertzekotan, libro nintzen. Hilabetea falta zenean joan ginen hiru hileroko azterketa egitera. Minbizia berriz ernaldutzaidalda esan zidaten. Eta ospitalean daroadan hirugarren astea hasteko bezperan baieztatu didate: metastasia.

Koaderno eskatu nion atzo alaba zaharrenari. Agian lerro hauek idatzi ahala azaleratuko ditut aspalditik nerabiltzan susmo txarren zergatiak; agian nire bizitzaren berri emateko idatziko ditudan orriok izkiriatura deskubrituko dut, neuk ere zergatik nekien minbizia berriz ernalduko zitzaidala; agian nire bizitza kontatzeko dudan ezinbesteko behar hau da susmo txar guztien frogara. Berbak barrenetik erauzten ditudan neurrian ulertaraziko dut zerk eragin zidan minbizia, berbak askatzen ditudan neurrian askatuko da

gure alaba zaharrenak hartu duen bideak non duen hasiera.

Lerro hauek ez dira edozeinek irakurtzekoak. Menturaz ulergaitzak egingo zaizkio gazteegi irakurtzen dituenari, menturaz ulergaitzago helduaroan denari. Ez berben hurrenkera ulergaitza delako, bai erabakiak pertsona adina har daitezkeelako. Neuri ere, korta bete behiek baino gehiago hausnartuta ere, nekeza egiten zait nire amiltzearen arrazoiak ulertzea, gaitza suertatzen zait bizitzearen alde zein gutxi borrokatu naizen konprenitzea. Ez nuke gura balizkoa ere izango ez den aitita naizen honengatik inork ernegatzerik, nahikoa egin zuten alboan bizi izan zirenek. Nigatik horrenbeste borrokatu duen Marik egunerokoei lotutako pasadizo mordoa kontatuko lituzke, nire kontakizun hau baino erakargarriagoak. Jaiotzen ere ikusiko ez dudan balizko iloba imajina nezake, askaltzen ari dela, asmatutako eta egiazko hamaika ipuin eta konturrekin aho zabalik, igogailurik gabeko zazpigarren solairuan dagoen 68 metro karratuko pisuan bizitza landa berdez inguratutako baserrian litza-tekeenaren antzekoa irudikatu gura duen ama-

mari adi-adi, otordua prestatzen duela, irratian trikiti doinuak entzunda odola berotuta fandangoa, arin-arina edota porrusalda dantzatzen erakutsiko dion amamari begira. Eperdikoren bat edo beste eman ere emango dio eta, batez ere, dena izateaz harro sentitzen irakutsiko dio. Nirekin ere ahalegindu zen, baina ni ikasle oso txarra izan naiz txikitxuterik. Hori guztia eta askoz gehiago imajina nezake; eta okerrena da imajinatu legez gertatuko dela, begiak zabaltzen ere ikusiko ez dudan balizko ilobak nire alaba izango duela ama eta, minbizi honek akabatuko ez bairindu, aita naizen hau izango zukeela aitita. Haur jaioberriari erraz kontatuko nizkioke isilean gordetako guztiak. Haur bati bai.

Hamahiru urte nituela sartu nintzen Euskalduna ontziolan, umetan hasita berrogeitik gora urte Euskaldunan lanean eman zituen gure aitarien itzalari segika. Hilurren zegoela, errautsak horrenbeste urtetan bizileku izan zuen dikean zabaltzeko eskatu zigun, egun Bilboko Itsas Museoa deritzonaren parean. Euskaldunan igarota-

ko urteei buruz etxean egin zituen aipamen apurretan, lanaren latza eta lankideekiko adiskidetasuna azpimarratzen zituen. Lankideak etxekoarteko zituen.

Ikastun sartu nintzelarik, ikasi eta era berean lana egiten genuen, Euskaldunak berak, beste ontziola askok legez, bere eskola baitzuen. Eskolotan ikasten genuena praktikatzen genuen itsasontzietan. Aitaren antzera, errematxatzailearen laguntzaile hasi nintzen lanean, XX. mendeko hasieretan itsasontziak errematxez gorpuzten baitziren, ez soldaduraz. Itsasontzia osatzen zuten xaflatzarrak batzeko, errematxatzaileak mailutzar batekin jo eta jo egiten zituen ukabilak halako errematxe edo torlojuak, eta laguntzaileak kolpeei eutsi egin behar izaten zien. Egundo lan nekagarriagorik!

Aita langile izateak lehentasuna zemaigunez, etorkizunean zein ogibide izango nuen pentsatzeko astirik ere ez zidan eman. Hamalau urte nituela hasi nintzaion estatuari irabazten nuenetik zatikia ordaintzen. Orduko hamalau urte gaurko hogeitaziren. Orduan irabazten genuena ez zuen edonork irabazten. Diruak neke guztiak ahazta-

razten zizkigun, dirua baita oroimena sobornatzen lehena.

Soldagailu elektrikoak agertu zirenean, ordu-ra arte Euskaldunako langileen erdia osatzen genuen errematxatzaile zein laguntzaileok, soldatzaile edo galdaragile lanetan aritzeko hautua egin behar izan genuen. Nik bigarrena hautatu nuen.

Ikasle txarra nintzelako, garai hartan liburuetatik ezer ikasi gura ez nuelako sartu nintzen Euskaldunan, lanean hastea beste irtenbiderik ez nuelako. Minbizia diagnostikatu zidatenetik ikasi dudan guztia orduko burubakokeriaren ordaina izan da. Orduan ikasi gura izan ez nuen guztia orain xurgatu gura nuke. Hamahiru urterekin baztertu nituenak derrigorrezko bidelagun ditut orain. Tamalez ezingo ditut guztiak irakurri.

Oso gazterik hasi ginen lana gogotik egiten. Larunbat goizak bere egiten zituen bederatzi orduko lanak aintzat hartuta, berrogeita hamar bat orduko lan astea zen gurea. Eskerrak gerora, nahiz eta sindikatuak sortzea galarazi, langileon hainbat eskakizun zein borrokaren poderioz lanaldia murriztea lortu genuen. Askoren aldarriak

lor dezakeenaren lehen aztarrenak ezagutu nituen orduan. Askoren artean egindako lana beti samurragoa dela ikasten hasi nintzen. Euskaldunak desagerrarazi gura zituen diktadurapean bizi ginen, armen indarrez agintzen zutenen menpean, eta gainera langileak ginen. Diktadurari garaipen txikiena lapurtzea gauza handia zen guretzat. Urte batzuk geroago, Carrero Blanco almirantea Espainiako Gobernuko lehendakariorde izendatu zuten egunaren bezperan erdie-tsi genuen garaipen txiki bezain garrantzitsu hura. Eskoletan, 1936ko gerrari buruzkoak ezagutarazteaz gain, gerraostekoak ere ezagutara-ziko dituzten itxaropena dut, itxaropena baitut gure historia geure oroitzapenetatik ere kontatzea lortuko duguna.

Sindikatuak sortzea galarazita zegoela azpimarratu dut, baina bazen sindikatua orduan, goitik beherakoa, sindikatu bertikala zeritzona. Erabat arbuiatuagatik, noiz edo noiz erabili ere egin genuen zoritxarreko sindikatu hori. Berbarako, eta zehatzen gogoratzen dudala, hemezortzi urte nituela gertatutakoa adibidetuko dut. Goriak, komunistak, masoiak eta separatistak iza-



teagatik, langileontzako eskubideak eskatzeagatik, 3.500 langiletik 40 kaleratu egin gintuzten. Ideologia francozalekoak izan ez arren, beste aukerarik ez zegoela iritzita, sindikatu bertikaleko hauteskundeetan parte hartu genuen, ordezkari guztiak geure sokakoak izan zitezten, beste ezelango borrokarekin ustez lortuko ez genituen helburuak lortu asmoz eta hauteskundeetan beste sindikatu batzuk aurkeztuko genituen egunaren zain. Hauteskundeetan gehiengoa lortu eta bi hilabeteko grebaren ostean, hartu egin behar izan gintuzten berriro.

Aukeran berandu baina iritsi zen eguna, eskuratu genuen gure sindikatua hauteskundeetan aurkezteko eskubidea, sindikatu bertikala mukurrazita. Sindikatu horizontala izan asmo zuen Batasunaren Aldeko Langileak hautes-zerrendak lortu zituen ordezkari gehien. Langileen aldeko borrokarako grinak iraun zigun artean mantenduko genuen irizpideetan oinarritutako sindikatua zen hura. Eztabaidatu beharrekoak, ebatzi beharrekoak, batzarretan erabakiko genituen, askoren artean, ez orain legez, hiru-lau askojakinen artean. Beti arbuia izan ditut askoren

asanbladei zilegitasuna ukatzen dizkietenen argudioak. Asanbladak, antolatutako taldeen bazka direla diote, formazio politikoa dutenak ateratzen direla beti garaile, jendeari iritzia, bozka, sekretuan emateko aukera eman behar zaiela. Egundo ez dut gezur hori sinetsi. Pertsonok, mundu arrano hau kakazten hasi ginenetik, batzartuta hartu izan ditugu erabakiak, batak besteari entzunda aberastu dugu pentsaera eta jakinduria. Asanbladetan, ukaezinezkotzat dugun arrazoia zutabe mengelekoa dela kontura gaitezke, hurkoaren bihotz-begiak gureak ez bezalakoak direla, guretzat hil ala bizikoa dena ez deusa litekeela askorentzat. Euren arrazoia nagusituko ez den beldur direnak mintzo dira asanbladen aurka. Entzuten ez dakienaren amarrua baino ez da. Jazintori ikasitako lehen lezioa da.

Jazinto Ibarri, Derioko seminarioan apaizgai izatekotan sartu eta ezkerreko iraultzaile zela sinetsita irten zen zamudioztarra da. *Fanon* du ezizena, Frantz Fanonen *Afrikar iraultzaren alde* liburua eroaten zuelako gau eta egun aldean, bi-

bliaren ordainetan. Joxe Azurmendiren *Kultura proletarioaz* eta Gotzon Garateren *Marx eta nazioa* ere estimu handitan zituen. Eta Gabriel Arestiren poema gehienak buruz zekizkien. Hasieran gogoz kontra, gerora aseezinez, neuk ere irakurri egin nituen Jazintoren liburu maite haiek. Neuk ere ikasi nituen Arestiren poema asko, Oskorri musika taldearen kantuak ezinbesteko lagun.

Frantz Fanonen antzera, Jazintok ere zanpauak indarkeria erabiltzeari zilegi zeritzon, erabiltzeak izua sorrarazten bazion ere. Fede kristauren manamenduak langileen borrokarekiko sinemen bihurtu zitzaizkiolako utzi zuen apaizgoa. Munduaren salbazioa langileen esku zegoe-la sinetsita sartu zen Euskaldunan, kostata, gorriegia izatea egundoko eragozpena baitzen Francoren menpeko enpresa batean sartzeko. Francoren garaiko gobernadore zibilarekin negoziotan zebilen osabaren artekaritzari esker lortu zuen ontziolako bulegoetan kontable lana. Izerdi sundatik urrun zeuden lan burokratikoak utzita, sarritan hurreratzen zen ezkutuko gure batzarretara, gerora maiz ahozgoratuko zuenez, langi-

leen batasuna batzarretan sustraitzen baitzen eta langileen batasun horrek ahalbidetuko baitzuen faxisten azorripean zetzan Euskal Herria askatu eta iraultza proletarioa gauzatzea.

Zertaz ari zen zehatz jakin ez arren, konturatu konturatzen ginen erabakiak batzarretan hartu genituen bitartean bat izan ginela Euskaldunako langileak. Tamalez, letra anitzetako sindikatuak sortu ahala banatu egin ginen; nor bere bidea hartu zuen; lanari dagokion ikuspegiaren artean gero eta troka sakonagoak zabaldu zitzaizkigun, salto batean ez zeharkatzeko modukoak bihurtzeraino. Milaka tonatako itsasontziak eraikitzeko gai baginen ere, nekez eraikiko genuen gure arteko zubirik. Ez ote ginen denak langile?

Lanean hasi nintzelarik hilean 117 pezeta irabazten nituen, eta urtero berritzen ziren lan-hitzarmenetan lortutako garaipenen emaitza legez, lau urtera 4.000 bat pezeta irabazten hasi nintzen, tartean ikastun izatetik ofiziale izatera igaro nintzelako. Soldata batetik besterako aldea obratutako lanean zetzan, lana ezarritako epean amaitu ezean ez baitziguten berdin ordaintzen.

Fanonek errepikatzen zidana gogoratu: «Nekearen izerdia daragiotez makinak behar dituzte nagusiek, hezur haragizko automatikak».

Lotsatzekoa lirudike, akaso, paperen artean, bulego bateko erosotasunean behar egiten zuen baten teoriak limurtzea, baina Fanonek isiotu zidan oraino amatatu ez zaidan langile borrokalariekiko miresmenaren sua. Fanonek eta nire izerdikideek.

Buzoa, bokadiloa eta osasuna lagun, gaztetatik sindikalgintza zein langileen borrokak bertatik bertara bizi arren, ez genuen formazio ideologiko lerratuegirik behar gutxieneko baldintzak galdegiteko, baina ez ginen edonoren aurrean makurtuko. Francoren makilak inor kolpatzen bazuen, langileak kolpatzen zituen; eta langileetarik inongoak kolpatzen bazituen, euskaldunak kolpatzen zituen. Alabaina, makilakadak bizkar askoren artean jasotzeak arindu egiten zigun mina, ubeldurek elkartu egiten gintuzten, bat ginen egurra jasotzeko ere. Fanonen teoriak hazitarako lur joria zuten gure artean. Elkartasun hark ontziolako mugak ere gainditzen zituen, ez ginen geure zilborrei lelotuta begira geratzeko-

ak. Ondo gogoan dut, 1968an Guardia Zibilak Txabi Etxebarrieta hil zuenean bat egin genuela mobilizazioekin, gogor egin genuela Gasteizko martxoaren 3ko hilketak salatzeke, dirua bildu genuela Burgosko epaiketaren aurkako gastuei aurre egiteko. Sindikatu bakoitzak bere sariak jasotzeko ahaleginak egiten bazituen ere, langileria ginen, hurkoekiko elkartasuna oinarri zuen langileria. Sano urte gutxiren buruan esanahia galdu duten berbak oroitzen ari naizen sentipena datorkit. Langileria. Noiz utzi genuen herdoiltzen?

- Hi, Jazinto, ez daukak lanik bulegoan, ala? Noiz irakurtzen dituk horrenbeste liburu eta horrenbeste teoria?

- Hara, Luis, nik ez zaukaat familiarik, eta ez nauk tabernarik taberna ibiltzeko zale. Badakik, ardoak kalte egiten zidak.

- Monagillotan edandakoak egin zian kalte hiri, orduko laharrak!

- Ardoak pentsamendua lanbrotu baino ez dik egiten, Luis. Eta guk argi eta zuhur ibili behar diagu, ez zaukaagu lelotzeko astirik.

- Bizipoza ere beharko diagu, ba!

- Bizipoza kapitalismoa garaitzen dugunean izango diagu, gura beste gainera. Orain antolatu eta ekiteko garaia duk, sasian minik hartu gabe aritzen ikastekoa.

- Bai, arrazoi duk, baina lehenago goazen txikito bana hartzera.

Itsasontzien azpian gorderik batzartzeak, gure aldarriek mundua irauliko zuten itxaropenak, adorea ematen zigun, edozeri aurre egiteko kuraia. Edozelango gatazkarik egotekotan, langilerik langile, eskutik eskura, hitzetik hortzera berbagai izateko orritxoak helarazten genion elkarri. Minutu bakarrean ontziolaren jarduna gelditzeko gai ginen, minutu bakarrean eretzeko moduko astrapala barealdi isila bihurtzeko gauza ginen. Berrehun panfletoren indarrak behin baino gehiagotan jaitsarazi zuen Molto sindikatu bertikaleko ordezkari frankista, komisario politikoa, laguna bailitzan, nagusiak gure alde zeudela-eta azorriak gordeko zituztela sinetsaraztera, gure deiadarrak isiltzera.

- Orain ere grebara deitzen? Zergatik ez duzue lehenago nagusiekin berba egiten? Nagusiak beti prest daude zuen eskariak entzuteko?

- Eta ulertzeko?

- Hi, Molto, hoa etorri haizen bidetik.

- Hoa nagusiei ipurdia miazkatzera. Etorriko dituk odolkiak ordainetan!

- Traidore zikina!

Etxean ez genuen ontziolako lanaz, gatazkez barbarik egiten, ez aita zenak, ez nik. Marik eta alabek ez dute nire ahotsetik aipamen askorik gogoratuko. Isiltzeko azturak ez dira gura beste aldatzen, hain gutxi aztura dela onartzen ez dugunean. Jokatzeko ditugun erak noiz bihurtzen diren ohitura konturatzen garenerako berandu izaten da. Gehienetan, iraganegi izaten da.

Borrokak iraun zuen bitartean dena eman nuen neurrian ez nuen etxean deus kontatu. Emazteari aitortu izan banio tiragomak egiteko taldeko buru nintzela, poliziekin bertatik bertara kolpeka aritu nintzela, ezagutzen ez zuen gizonaren berbatzat hartuko zituen. Etxekoek ez ninduten ezagutzen. Ez zuten ezagutzen Deustuko zubia suak har zezan koktelak prest uzten zituen gizona, ezezaguna zitzaien Eusko Jaurlaritzako



aurrealdean margoz zipriztindua izan zedin bezperako gaua puxikak betetzen ematen zuen taldeko burua. Arrotzak zitzaizkien suziriak pizten zituzten nire eskuak.

Auzoko lagunak lantzean behin egiten genuen berba ontziolako lan-gatazkei buruz, urteroko batez besteko bi heriotza eta laurehun zaurituei buruz, langileon soldata eta ikasleen diru ezari buruz. Unibertsitate mailako ikasketak izateak jendartean zuen gehiegizko izen onari iseka egiteko erakusten genituen gure sosak langileok. «Liburuek ez dute ardo egarririk asetzen!» aurpegiratzen genien gure poltsikoen beroa desiratzen zuten lagunei. Askorik estimatzen ez nuen futbola izaten genuen berbagai nagusi, bi urte erreskadan Espainiako liga irabazi zuen Athletic, sorreran Euskalduna ontziolako nagusiek finantzatutako taldea.

Haatik, borrokaren unerik latzenetan lagunak lagun izan genituen. Itxialdietan, baraualdietan, lagunak babesa eten barik sumatu genuen. Gure hurbilekoentzat, Euskaldunaren aldeko gure borroka euren borroka ere bazen. Dozena erdi ardoren ostean, poliziekin trukaturako esku-zartak

antzetzen genituenean, garaiezin sentiarazten gintuzten.

Ostera, inguruko guztien babesaren beroak ere ez zidan goizeroko beldurra erauzten. Liskarrek iraun artean, lo gutxi eginda eta ikara ustezko gizontasunean ezkutaturik joaten nintzen ontziolara, egunak zer ekarriko, aurrez aurreko istiluek zein zauri eragingo. «Ezin dut hutsik egin, ezin dut hutsik egin, joan egin behar dut, joan egin behar dut» mailukatzen zidan barruak, «lehen lerroko lubakiak bete behar ditugu».

Kontakizuna puzten ari naizela lirudike, badaikit, baina horixe dut hartu genituen erabakien garrantzia ez ahazteko era bakarra.

Gure makil dantzak konponbiderik ekarriko ez zigula oharturik ere, ezin genien burkideei etsipenerako aitzakiarik eman. PNVren esku zegoen Jaurlaritzak gure ontziolaren biziraupenerako ezelango ahaleginik egingo ez zuela ziurtatu ostean, guztiok birkolokatu arte ekin egin behar genion: «Aurrera, eutsi gogor Euskalduna!».

Ondotxo zekiten langileon erresistentziak iraungitze data zeukala, lehenago edo geroago

nekea nagusituko zitzaigula, harrien pisua gero eta jasangaitzago egingo zitzaigula.

Garesti ordainaraztea, ez nuen beste gurari-rik.

Mendekua.

Baina gatozen kontakizun kronologikora.

Euskaldunako gatazka hasi zenean, gu CATEkoak ginen, arlo publikoko ontzigintza industriar sortu eta hildako sindikatukoak. Ezkertiarzat genituen sindikatua eta geure buruak; besteak beste, ez liberaturik, ez arduradunik, ez egitura organikorik ez genuenez, erabaki beharrekoak asanbladetan eta lan-talde irekietan ebazten genituelako. Horretan baino ez bada ere, kontsekuenteak izan ginen, berbakoak. Osterantzeko sindikatuak eskerrekotzat genituen, noski, burumakurrak.

- Indarkeriarekin ez duzue ezer lortuko. Ne-goiazioetarako giro deserosoa baino ez duzue sortzen. Tentsioa eta urduritasuna nagusi badi-ra, ezingo ditugu denon zorionerako gutxienekoak adostu.

- Beraiek indarkeriarekin lortzen dutena guk zergatik ezin dugun lortu azaldu egiguzue, arren.

Sinetsarazi egiguzue, polizien indarrarekin lortzen dutena zergatik ezin dugun guk koktelen suarekin edota ur hodian presioarekin lortu.

Gehiegitan errepikatuko zen ezbaia.

Euskalduna espainolen menpekoa zela aipatu dut. Menpekoa zen Franco bizi zela, menpekoa izango zen gero ere. Bere etorkizunari zegozkion erabakiak Madril, Gasteiz eta Bilboko agintarien artean adostu zituztela konturatu gineneko beranduegi izan zen. Etsaia urrunekoa zelakoan, ez genuen alboan ere bagenuela susmatu.

- Bai, mobiliza gaitezen! Baina argi izan behar duzue, mobilizazioen eraginez bakarrik ez dugula ezer lortuko. Mahai-inguruan elkartu eta negoziatu egin behar dugu.

Sindikatu sortu berrietako buruzagi erreformistek ez zuten langileen eskubideen alde kalerlanik egin gura. Euren sindikatuen nagusigoa baino ez zuten helmuga. Gaitza izaten da ohar-tzea, gaitza izaten da langileen ordezkarietat aurkezten direnak gezurretan noiz ari diren antzematea. Nagusien bakerako borrokatzen zirenak bereiztea obsesio bilakatu zitzaigunetik,

odola bera ere maltzurto egin zitzaigula aitortu behar dut. Ontzigintzaren birmoldaketarekin batera birmoldatu ez ginenontzat, langileen arteko mesfidantza mila poliziaren makilakadak baino mingarriagoa zen. Lanbidearen hobetu beharreko baldintzak salbuespen, familia bat osatzen genuen, langileak izatearen harrotasunean uztarkide ginen. Sindikatu erreformistak hori guztiori desagerrarazten ahalegindu ziren heinean desagertu zitzaigun sindikatuetikiko sinestea.

Nagusien aurrean burumakurtzearen aldeko sindikatuetik eledunak epelegiak izateaz salatu genituenetik, antzuak izatetik emankor izatera igaro ziren gure ahaleginak. Itxieraren aurkako azken borroketan alboan izan genituen hasieran ekintza zuzenaren aurkakoak izan zirenak.

Erabakigune nagusitzat batzarrak genituen langileok INTG, CAT, CSI eta LAB sindikatuak sortuta, ontzigintzako langileen borrokalari sena berpiztea beste irtenbiderik ez genuen, PSOEn asmoak geldiaraziko bagenituen.

Ekintza zuzenerako borrokalariak batzeko lanari 1983an ekin genion buru eta bihotz, jakin bagenekielako nagusien negoziatzea hobesten zuten sindikatuek enplegua erregulatzeko hirugarren espedienteari baietza eman ziotena. Euskalduna desagerrarazteari zeritzoten enplegua erregulatzeari baietza eman ziotena. Euskalduna desagerrarazteari zeritzoten enplegua erregulatzeari baietza eman ziotena.

- Ezer negoziatzen hasi orduko lanpostuak murriztea beste aukerarik ez dagoela argudiatuko dute. Hori izango da negoziazioaren abiapuntua, ez lanpostuak mantentzeko aztertzea.

- Eta zer egingo dugu, negoziazio mahaira ez joan? Ahalik eta langile gehien mantentzea lortu behar diagu, ahalik eta kaleratze gutxien egoitea.

- Ahalik eta lanpostu gehien mantentzea? Hi zer haiz, nagusien satorra? Sindikatuak zertarako sortu ditugu, gutxienekoak lortzeko? Lanpostu guztiak mantentzea exijitu behar diagu, guzti-guztiak mantentzea!

- Baina ez zarete benetako asmoez jabetu, ala? Euskalduna itxi gura dute, lagunok! Itxi, txapatu, finikitatu, desagerrarazi!

- Bai zera, ez dira hori egiten ausartuko!

- Ausartuko ez dira ba! Zuek halako sindikalista epelekin zelan ez dira ausartuko.

- Arrazoia du. Aurrez amore emanda joan behar baduzue, ez zaitzela joan, ez bederen gure izenean.

- Gutxi izaki, zuek negoziazio mahaira deitu ez zaituztelako berba egiten duk horrela, bekaitzak jota hagoelako.

- Bekaitzak jota? Zer uste duk, hire semearekin ari haizela?

PSOEkoek negoziazio-mahaira gonbidatzen ez gintuztenean, gu joan egiten ginen. Ez gintuzten gutxiengoa izateagatik baztertuko. Gu CATEkoak ginen.

1984an Espainiako Gobernuak ontziolen birmoldaketaren oinarriak ezagutarazi zizkigunean ekin genion etenbako kale-aldarriari. Birmoldaketak ez zuen atzerabiderik, gure borrokak are gutxiago.

Lanik gabe utzi gura gintuzten, guk inoiz baino lan gehiago astinduko genien, *Berregitura-tze guztiak basatiak dira* lelopean. Irailaren

20rako deitutako greba orokorrak izandako arrakastak indarberrituta, ordura arteko borroka moldeak aldatzeko premia zabaldu zen langileon artean. PSOEren Gobernuarekin izandako elkarriketak emaitza antzukotzat genituen, suari egurra bota behar genion garrak iraungo bazuen.

Bi hilabete geroago Santi Brouard hil zuten. Gerrarako zirikatzen ari zitzaizkigun.

- Gehiegizko botereak horditurik daude.
- Edo luzaroan mamurtutakoa gozaten.
- Ez, ez dira horren azkarrak.
- Ez, noski, leloak dira, gure antzera.
- Egoeraren azterketa bihotzarekin baino buruarekin argitzen saiatzen ari nauk.
- Amaitzen duanean esango didak zer sentitzen duan.

- Ardurabakokeria galanta litzateke langileei eta ezker abertzalekoei, biei, horren gogor kolpatzea. Kapitalari egoera politikoa zein ekonomikoa gatazkatsua ez izatea komeni zaio. Santi erailtzea gehiegizko ausardia izan da. Herriak ez du barkatuko.

- Zein herriri buruz ari haiz?



Astebetean ez genuen Fanon dikeetan ikusi; ez zitzaigun Marx, Lenin edota Arestiren berbak gogoraraztera hurreratu; astebetean ez genuen lanetik etxerako bidea elkarrekin egin. Bulego-pera zain joan nintzaionetan ez itxaroteko keinu egin zidan leihotik, harik eta ostiral arratsaldean, seiak baino hamar minutu lehenago, bila etorri zitzaidan arte.

- Erantzun egin behar zieagu. Etxeko inork ez ziguk zilegitasuna ukatuko. Laiak prestatu behar ditiagu. Iraultza sozialistaren haziak sakon ereiteko sasoia heldu duk.

Benetan ari zen, sinetsi egiten zuen aldarrikatzen zuena. Horrexek ematen zidan bekaitzik handiena.

Jazintoren berba haiek zein jopuntu iradokitzen zuten jakiteke amaitu genuen urtea. *Afrikar iraultzaren alde* berrirakurtzen hasi nintzen.

Eguneroko buruko minak ez zuen atsedetik hartzen, horratik. PSOEn Gobernuak onartutako birmoldaketaren arabera, Euskaldunan ari ginen 2.461 langileetatik 200 langilerentzako lanpostuak baino ez ziren mantenduko. Neurri hura borroka molde gogorren kontra zeuden sin-

dikatuentzako arrantza sasoa zabaltzea izan zen. Afiliatuz gero, lanpostua galduko ez genuela edo beste lantegiren batean lortuko zietela promes egiten zuten, lankideak saldoka hurre-ratu zitzaizkien. Ez diet ezer aurpegiratzen; fi-nean, gu langileak baino ez ginen, ogia irabaztea beste jomugarik ez genuen familiaburuak, or-duan sano emakume gutxik egiten baitzuten lana etxetik kanpo, sano gutxiri ordaintzen zio-ten soldata duinik. Lansari bakarrarekin lauzpa-bosten bizimodua zelan gobernatu, hori zen gure buruhauste bakarra. Marxen *Kapitala* irentsi ez genuenok, ezinbestean, ustez mugiezinena zen zutabeari oratu behar genion. Ostera, bazen gure artean jasotzeko beste emateko prest ze-goienik ere.

- Burkideok, PSOEkoen asmoak onartzen ba-ditugu gureak egin du.

- Goazen Ogasuneko egoitzara eta erre di-tzagun euren proposamenak, kalean bertan, edozeinek ikusteko eran.

- PSOEkoegi egurra eman behar diegu; ezker-tiarrak direla esanez batera, txakur uhalez estu-tzen dute langileria.

- Moztu ditzagun trenbideak eta errepideak.

Biharamunean eztabaida latza izan genuen ontziolan. Batetik, bezperako ekintzen antzekoak areagotzearen aldekoak geunden; bestetik, indarkeriak ezertarako balio ez zuela, langileen arteko batasuna apurtzen zuela generitzonak.

Hasieran alde bietakoa nintzen; bien ustee-kin bat egiten nuen, biak ulertzen nituen. Indarkeria erabili beharrak ikara ematen zidan neuri ere; onartzen nuen nire koldarkeria, koldarkeria ote zen ere zalantzak izanagatik. Berandu baino lehen erabakitzea beste aukerarik ez genuen izan. Nik Jazinto nuen alboan zer ebatzi laguntzeko.

Batzarretik irten, Deustuko zubia moztu eta lehen autobusa erre genuen. Ontziolara itzultzean poliziek ezustean harrapatu gintuzten dozena bat lagun, bero-bero makilakatzerraino. Makilakatzan zaituzten unea laburra bada ere, bihotzak arnasestuka darrai luzaroan. Zergatik eragiten ziguten poliziek horrenbeste izu? Ez ziren, ba, gulakoak? Zerk beldurtzen gintuen: uniformeek?, borrek?, ke poteek?, furgoneta uherrek?

Geroztik sarritan galdetu diot neure buruari, zein zorion klase bizi lezakeen polizia denak, zelan senti lezakeen pozik inork pertsonak jipoi-tzen, atxilotzen, torturatzen. Nork zainetaratzen die horrenbeste gorroto? Diruaren truke gorputza saltzeari prostituzioa deritzogunean, diruaren truke pertsonak txikitzeari zelan deritzogu?

- Polizia-etxean sartzen direnean agindu bakararra burmuineratzen diete: bete manamendua eta bakea! Ez galderarik, hain gutxi erantzunik. Soldaduak ez ditu nagusiaren erabakiak zalan-tzan jartzen.

- Baina poliziek izango dute bihotz bat, burmuina.

- Bihotza harri bihur liteke, burmuina lozorrotu litekeen eran, arrazoia itsu-mutu-gortu litekeen eran. Boterearentzat Segurtasun Indarrak direnak Izuaren Ejertzitoak dira menpekoontzat. Boterearen indarkeria zilegi dela jendarteratzea lortu dute, eta guk autobus ziztrin bat erretzeko zilegitasunaz eztabaidatzen galtzen dugu denbora. Mobilizazioen agintea hartzen ez badugu, nagusiekin hitzarmenak lortzearen aldeko sindikatuek betikoa esango dute, ezin izan dugula bes-

terik egin, gehiago lortzerik ez dagoela... Aldaketa soziala lortzeko motorra geu gara, langileok, obrerok. Hamar urte joan dira diktadorea hil zenetik. Hamar urtean egoerak okerrera egin du euskal langileriarentzat.

- Ez zariat iraultzarako gogotsu gauden. Ez zariat ardura digun ere. Ez zariat iraultza zer den ohartzen garen. Ez zariat politikarako hire grinaren laurdenaren laurdenik dugun.

- Kapitalismoaren menpe bizitzeak ere ez ziguk ardura; baina bizi, bizi gaituk, desoreka itzelak eragiten dituela jakinda ere.

Jazintorekin langileon borrokari buruz eztabaidatu ondoren, arrazoia berak zuela iruditzen zitzaidan beti. Teoria eta praktika uztartzen genituenez, atoa baiezta genitzakeen ordu luzetan hausnartutakoak. Autobusak erretzeari utzi behar genion? Autobusak erretzen hastearekin bat PSOEkoek batzartzera deitu gintuzten. Autobusak erretzeko asmoari eutsi behar genion. Gutxiengo batek Olabeagan, treni su ematen genienean, ontziolako langileen gehiengoak Bilboko kaleak zeharkatzen zituen *lan gehiago, polizia gutxiago* orroka. Jazintok irri egiten zuen halako-

etan, ELAkoek ere, UGTkoekin batera PSOEkoe-kin birmoldaketa negoziatzen ari ziren haiek, barrikadak aldarrikatzea lortu baikenuen.

Euskaldunako ezkerreko langileona zen akui-  
lua. Geuk xaxatuko genituen aurrerantzean lan-  
gileak, adoretzu borroka gintezen Poliziaren  
aurka eta gure ontziola itxieragin gura zutenen  
aurka.

Etxean ere, sasoi berean mikaztu zen giroa.

Otorduetan borrokei buruzko aipamenik egin  
ez arren, gauero izerditan blai esnatzen nintzen,  
amets-okarren presiopean.

- Zer duzu?

- Amesgaiztoa, besterik ez. Egizu lo.

- Kontadazu, arren; zerk estutzen zaitu ho-  
rrenbeste?

- Ondo nagoela esan dizut. Egizu lo.

- Zelan egingo dut lo, oihu batean itzartzen  
banauzu. Zer duzu?

- Gure alabei etorkizunik ezin bermatzeak  
kezkatzen nau, zerk bestela? Guretzat dirua bil-  
tzen ari dira, euren gurasoentzat! Nik ez nituen

horretarako munduratu gura, horrela bizitzeko ez.

- Dirua dutenei kendu eta ez dutenei emateko lana hartzen dutelako lotsatzen zara? Zer gura duzu, denbora eskaparateei begira ematea? Nik gurago dut apurtu eta kristalekin zauritzea. Odola zer den ikasiko dute behintzat.

- Baina zer diozu, gurago duzula kanpotik ibili orduko barruan nekatzea? Beste aukerarik ez dutela? Hogeitazero urte ere ez dituzte-eta! Honetatik guztitik ahalik eta urrunen ibil daitezten egin behar dugu ahalegina. Gero ere izango dute ogia izerditzeko astia.

- Ez duzu zangoa atzera zeuk bakarrik bota beharrik. Alabak eta neu gaituzu, ez orporik erakutsi.

- Poliziekin aurrez aurreko borroketan ibiltzeari koldarkeria deritzozu?

- Maite zaitugunoi egiak ostentzeari deritzot koldarkeria.

- Nik sufritzearekin nahikoa da.

- Bai, barruan daroazun minbiziak eskuak igurtziko ditu horrelakoak diozuzen bakoitzean. Martiri gogora zaitzagun diozu? Uste nuen fede-

duna ere ez zinela. Gero eta arrotzagoa zatzaizkit.

Mari ez zen isiltzekoa, ez nuen berehalakoan engainatuko. Alabei nire ezinegonaren berri ematen ez bazien ere, ni indartsu estutzen ninduen. Zirujauiek baino askoz gehiago luzatu zidaten bizia haren gedarrek, haren kontu eskeek, aldean isilean neraman kaka guztia oka eginarazteko haren esfortzuek.

- Azkenetan bahengo zer egingo huke?

- Zergatik galdetzen didak hori?

- Galdera baizen ez duk.

- Erantzuna kolkoan dakarrena.

- Zalantza kolkoan dakarrena, esango nuke.

- Zer gertatzen zaik, zer duk?

- Bizitza osoa eman diagu ontziola uher honetan lanean. Betiko ixten badute, azkena izango duk guretzat.

- Zer diok, baina?! Euskalduna biziraunarazteko borroka irabaziz gero, langileok hartuko diagu ezkerreko iraultzarako aginte-makila.

- Eta galtzen badugu?



- Borrokatze hutsak balio izango dik. Galduta ere, ez ditek langileria orain bestean gutxietsiko, ez horixe.

- Hi, Jazinto, egin duk larrutan aspaldian?

- Orain ez diat astirik.

- Horretarako ez duk astia behar, gogoia bai-zen.

- Horrexetarako ez diat astirik behar ba, gogoia izateko!

- Hi, Fanon, ez duk guztiz erantzi seminario-ko abitua, txatalen bat josita daroak.

- Zer diok?

- Apaizek zerua lortzeko sufritu egin behar dugula sinetsarazten ditek mezetan. Hik uste duk iraultzaile osoa izateko berdin jokatu behar dela, plazerak ahaztu eta borrokari baizen ez haizela eman behar?

- Aizak, ez nazaala prediku merkeekin asper-tu. Hik baino lehenago ulertu nian erlijioa herria-ren opioa dela.

- Marxek bezala. Hi ez haiz haren errenkarna-zioa izango, ezta?

Ahulen arteko ika-miketean indartsuen ager-tzen zenak isilarazten zuen eztabaida kidea. Ziu-

rrenik, neuk ere ume-umetatik irentsitako doktrina katolikoaren eraginez, nahiago izaten nuen Jazintok irabaztea, arrazoia zuela pentsa zezan.

- Ez daukak kontsolatu beharrik, neure mugen jabe nauk.

- Marxek, Leninek, Chek eta Castrok, Fanonek berak, egingo zitean larrutan lantzean, ez?

- Ez zakiat, ez diat egundo sexuaren aipamenik irakurri haien idatzietan.

- Maitasunari buruzkorik ere ez?

- Maitasun barik ez dagoela iraultzailea izate-rik idatzi zian Chek.

Atzamar erakuslea goratzen zuen halakoetan Jazintok, esandakoen garrantzia azpimarratu guran. Hezurdura lodiko betaurrekoak, bekokia garbi, belarri osteko ile zuri kiribila luze, patilla mardulak, metroa eta hirurogei inguru, sorbalda estu, hezur eta azal. Eguneko hogeita bost ordu langile mugimenduei buruzko teoriak praktikara zelan ekarri asmatzen, historiako iraultzaileen zitak dekodetzen eta ezkerreko idazleen poemak irakurtzen ematen zituen egunak gure Fanonek.

Ondo gogoan dut Gabriel Arestiren poema ezaguna antzeztarazi egin zigula behin baino gehiagotan lankide bati baino gehiagori.

- Benga, benga, Luis, hi Anton izango haiz; eta Josean, hi, Gilen.

- Ez, ni Julio Salinas izango nauk; eta Josean, Arkonada. Julio Salinasi baloiak belaunean jo, gero aurpegian eta gola, goooooola jaun-andreak.

- Euskalduna gainbeheran eta hik Athletic akorduan. Futbolzalea bilakatu haiz bat-batean?

- Elkartasun handiagorik? Athletic ez da ba Euskaldunaren kimu? Futbolari buruz eztabaidan ari garenean, sarritan gogorarazten diguk Ibaigane bera Euskaldunak oparitu ziola Athletici.

- Oparia itzuliko baligute.

- Bi urtean poza oparitu zigutek. Ez egiek jokalaria eta zaleei gure miseriaren errurik egotzi. Bi urtean espainolak makurrarazi egin ditiagu.

- Futbol-zelai batean.

- Milaka ikusleren aurrean. Beste ezerk baino min handiagoa eragin zieagu.

- Ez nekian lehen taldeko jokalaria hintzenik.

- Athletic geurea duk, bihotzean daramaguna. Euskaldunako langileak ez diren zenbatek zaukatek gure borroka euren borrokatzat?

Fanon dikearen alde batetik ozen errezitazten hasten zenean, guk Antonenak eta Gilenena antzezten genituen, atezainarenak eta aurrelariarenak.

Poesia mailua dela dioen poema ere makina bat bider erabiltzen zuen Fanonek, batez ere euskarazko kultura eta langileen borroka bat egin behar zutela aldarrikatzen zuenean. Poesia eta mailua. Soldagailua eta metafora. Tamainako sententzia ulertzen ez genuenontzat, Andre Bretonen esaldiarekin amaitzen zuen: «Artean denak balio du, langileen iraultzaren aurka egitea izan ezik».

**Bizitzako** azken hilabeteak etxean irakurtzen eta oroitze ariketetan eman ditut, urteetan jasotakoa metatzen. Barruko aztiren batek minbizi honek akabatuko nauela errepikatzen dit aspalditik. Poeta txarra naizenez, barkatuko didazue alderatzea Areatza baserriko haurtzaroa, Simo-

na astoaren ganean kortaraino eroandako belarra sikatuta metak egiten genitueneko sasoia eta autobiografia hau idazteko burutu dudan bilketa lana. Poeta ere ez naizelako ausartu eta idatziko ditut hitzok, etorkizunean bazka izan dezazuen.

- Egunen batean polizia-etxera baharamate, ez haiz poemak errezitatzen hasiko, eztok?

Ezerk ez zion amorru sakonagorik eragiten, errezitatzen zituen poemen arranditasuna adar jotze batekin barregarri uztea baino.

- Zelan ez zaituztete menpean hartuko, poesiari ere trufa egiten badiozue? Fidelek ez zuen alferrik esan, ikasia den herria ez dutela egundo engainatuko!

- Ikasia inork irakatsia izaten duk.

- Euskalduna desagerrarazi behar ditek, lanpostuak galduko ditiagu, familiak egoera larrian izango ditiagu... eta zuek olgeta deritzozue denari? Itsu zaudete? Kapitalak borroka hau irabazten badigu, Bilbo eskuindarren esku hilko duk, Francoren esku hil zen legez.

- Kapitalak milaka polizia, ejertzittoa, komunikabideak eta dirua ditu...

- Eta guk arrazoia, kemena, duintasuna eta herritarren babesa. Zer gehiago behar duk?

- Irabaziko dugun ziurtasuna.

- Borroka alferrikakoa izango ez den ziurtasuna.

- Lanpostuak mantenduko ditugun ziurtasuna.

- Nik etxera ogia eroan gura diat, ez besterik.

- Badakizue hori geuk baino ezin dugula ziurtatu, gure borrokak baino ez duela lortuko.

- Bazakiagu gure borrokak ez duela ezer ziurtatzen, Fanon. Gu baino gehiago dituk, botere-tsuago eta indartsuago, onar dezagun.

- Galdu behar badugu, isurarazi diezaiegun odola borborrean.

Euskaldunako borrokak iraun zuen urteetan lantzean errepikatzen ziren beste eztabaidetako bat. Arerioaren tamainaz ez genuen zalantza izpirik, galderak borrokarako gure gaitasunaren neurrien ingurukoak ziren gehienbat. Langileak baizen ez ginen.

- Hator, Luis.

- Berandu duk. Familia zain diat afaritarako.

- Ez duk luzarorako izango, hator. Begira ezak zubitik udaletxeraino. Hauxe duk suntsitu gura dutena. Lotsatu egiten dituk jaten eman dien ontziolaz. Ramon de la Sotak 1900eko maiatzaren 18an sortutako ontzioletako langile belaunaldiek mende baten hiru laurdenak egin zitiztean lan etenbakoan. Bizkaiko industriagintzaren birikietako bat itoko ditek. Hastapenetan itsasoratu ziren *Portu* eta *Gorbea-mendi*, edota munduan ezagun egin ziren Santa Fe serieko berrogeita zortzi merkataritza-ontziak akaso itsas museoren batean oroitaraziko ditiztek, edo ontziolari buruzko dokumentazio fondoren batean abandonatuko ditiztek. Ikusten duk Ibaigane jauregia, gure Athletic sailduaren egoitza? Euskaldunak eraiki eta oparitu zioan Bilboko Udalari, Lehen Mundu Gerrak sortutako eskarien mozkinnei esker. Ez ditiat aberatsak goratu nahi, bakoitzari berea onartu baizen. Aikor Deustuko Unibertsitatea ere!; besoa emango nitek, eskuindar madarikatuok pozarren jarriko zirela gure ontziola begien paretik betiko desagerrarazteko asmoen berri izan bezain laster.

- Tira, ezin haiz egunero odol berotuta bizi. Hator gurera afaltzera, on egingo dik-eta lagunarteak.

- Lehenago ere esan diat, Luis, ez diat errukiaren beharrik. Gainera, bakarrik egon gura diat. Biharko greba egunak ekar liezagukeena hausnartu beharrean nagok.

- Gure alaba zaharrenak pozik entzungo ditik hire sermoi proletarioak. Hark ere ez dik besterik buruan. Hator eta ase ezak haren jakin-mina; niri ez zidak bakerik ematen.

- Ondo da. Hire alabagatik egingo diat.

Galdu sekula ez, gutxienez berdindu. Txikerra zen gorputzez gure Fanon, erdeinu zuen bere txikitasuna. Ontziolako lanetan zaildutakoon bekaitzez egoten zela igartzen zitzaion ezkutuan burutzen genituen batzarren denboretatik.

Bulegoko zereginiek are gehiago amorrarazten zutenean, ontziolako historia idatziz asaskatzen zen. Gurekin ez zela inor akordatuko iragaritzen zigun, geure historia geuk kontatu ezean porlanarekin batera lurperatuko zela.

- Giharrik emankorrenak garunetakoak dira, ez ahaztu.



- Ez, ez diat ahaztuko koktelak jaurtitzera-  
an.

- Gabon, Mari, baduzu bosgarren platera be-  
tetzeko lain?

- Jan ohi duzunaren erdia jaten baduzu, sei-  
garrenarentzat ere sobera.

- Gabon, Mari.

- Hara, Fanon, aspaldiko. Zer, noren irakas-  
penak laudatzera zatozkigu gaurkoan?

- Zure gizonak ekin didalako etorri naiz, Mari.  
Mitinak bihar emango ditugu.

- A, bai, bihar duzue greba eguna, ezta? Zer  
diote epelek?

- Atera kontuak, PNVkoek ere bat egin dute  
greba deialdiagaz! Jeltzale guztiei kalera atera-  
tzeko deia luzatu diete. Ontzigintzako enpresak  
dauden herrietara joango gara, udaletxeetara  
sartu, balkoietatik pankartak eskegi eta udalba-  
tza guztietan gure aldeko idatzia lortzera. Arra-  
tsaldean Bilbo hartuko dugu.

- Zenbat lagun biltzea espero duzue?

- Bost mila inguru.

- Bost mila? Hi erotuta hago, zeharo aldrebestu hau hego haizeak. Zelan batuko gaituk bost mila lagun?

- Gabon denoi. Horrenbeste lagunentzako afaria prestatu duzu, ama?

- Zuen aita eta zure maisua gizonkeriatan, betiko antzera.

- Hara, hara, Fanon! Hau poza! Zer dio gure ideologoak?

- Gabon, Lorea. Zuen aitak xaxatuta etorri naiz. Jarrai-n ez ei zaituzte behar bezala formatzen.

- Etxean baino gehiago bai, behinik behin.

- Hori ez da gatxa. Luisek politikaz berba egitea baino gurago du afaldu barik oheratu, ez da Luis?

- Horrenbesterako ere ez da, andrea.

- Mesedez, aita, klasekideek Euskaldunako egoeraz galdetzean egunkariak irakurtzeko erantzun behar izaten diet-eta!

- Janak kalte egingo liguke laneko kontuez ariko bagina. Etxean behintzat bakea izan dezagun.

- Meza esan behar duzu?

- Bakea eta isiltasuna ez dira beti bat, aita. Etxekoa kanpokoan iturritik edan behar izatea ere!

- Loreak arrazoia du.

- Arrazoiak ez du samina eztatzen.

- Norberarentzat gordetzeak bai?

- Lorea, non dago zure ahizpa? Deitu egiozu eta afaldu dezagun batekoagatik baino ez bada ere.

Piztia kaiolatua sentitzen nintzen horrelakoe-tan. Halaber, beldur nintzen Marik, gura barik, ez ote zien gure alabei eta Jazintori nire minbiziaren berri emango. Koloneko lehen minbizi hura diagnostikatu zidatenetik hiru hilabete ziren joanak. Zirujauaren esanetan, kaltetutako heste zatia errotik aterata, ohiko bizimoduaz gozatzeko aukera izango nuen. Zertarako alabak edo lagunak alferrik kezkarazi? Ebakuntza egin eta atsedean hartu. Kirofanora sartzeko eguna etortzeke, baguenen barrenak non askatu. Ebakuntza giltzurruneko harriak kentzeko zela esango genien.

Fanonen aurreikuspenak labur gelditu ziren. Bost mila lagun baino askoz gehiagok bete genituen Bilboko kaleak greba orokorreko manifestazioan.

Goizerako antolatu genituen piketeen joan-etorrietan lasaitasuna izan zen nagusi, oso langile gutxi joan baitziren lanera. Egia aitortzera, informazioa banatzeko baizen ez ziren pikete baketzaleak urduritasun itzelezko bihurtzen ziren Polizia inguratzen zitzaigunean. Langile guztiok grebarako dugun eskubidea defenditzen ari girela oihukatzen genien txakurrei, borrekin zaunka egiten ziguten bitartean.

Grebarako legez lanerako eskubidea ere bazutela zioskuten langileekin izaten genituen tirabirak ziren samingarrienak. Zer argudiatu behar genien, grebarako eskubidea lanerakoaren gaitetik dagoela? Eskirolak izendatzea errazena izanik ere, ni zalantzek itotzen ninduten.

- Eskirolak ez dira jabetzen, greba egunetan etorrita nagusien xantairi men egiten diotela, langileriaren aurka egiten dutela, kate-begiak loditu eta loditu egiten dituztela.

- Langileak dituk, hi eta ni bestekoak. Ez zakiagu zein miseria bizi dituzten etxean, ez zakiagu beharrianak zenbateraino estutzen dituen.

- Eta ez zakiagu diru goseak, aseezinak, eduki-minak sastatzen ote dituen lanerako. Horren geurekoiak, horren buruzaleak bagara, zein jendarte eredu utziko diegu ondorengoei?

- Denontzat ez dik neurri berak balio. Hire teoria iraultzaileetan, lantzean, pertsonak ere kontuan hartzeak kalterik ez.

- Pertsonak kontuan hartu, diok? Zertarako borrokatzen gara, ez bada pertsonen alde? Ez hadi okertu, praktikan jartzen ditugun teoriok pertsonen berdintasunean oinarritzen dituk, justizia sozialean.

- Berba potoloegiak langile eskolabakoarentzat.

Onartu besterik ez dut, Fanonen arrazoiak, gehienetan, ontzat hartzen nituen. Baita lankide askok ere. Metro eta laurogeikoa, sorbalda lepo zabala, laurogeita hiru kilo aldeko nintzen honek, ezin gizontxo hari gehiago egin. Gure ama zenak, kankailua bezain bihotz onekoa nintzela esaten zidan. Umetan, adin batekoak eta beste-

koak olgetan, haserretu eta errietan, hartu baino ez nuen egiten, ez nintzen ukabilak luzatze zalea. Etxeratzean, ubelik antzemanetz gero, merezi zuenari txalokoak on egiten ziola zioztan amak, muturrekoak zirela mugarri garbienak harroputzentzat. Nolanahi ere, ez naiz behin ere gure alabei eperdikorik emateko gauza izan. Borra, ezkutu, kasko eta pistolez lepo dabiltzan polizien kontra pozarren luzatuko nituzkeen ukabil handitzarrekin ezin inori ubelik eragin. Jakin gura nuke polizia bati haginak apurtzeak gozamenik, harrotasunik, heroikeriarik lekarkidakeen. Akaso, jo eta atoan damutuko nintzatekeen, poliziak ere pertsonatzat baitira. Ala ez? Hurkoak txikitu arte jotzeko aginduak betetzeko prest dagoenari, pertsona izendatzea dagokio? Bai, poliziekin tematuta nago; bai, gorrotoak ez du bizitzen uzten, badakit; hobe nuke dena ahaztea. Hiltzen ari naiz, ordea, oroitzea dagokit orain, libre naiz edozer esateko.

Bizi-biziak izan ziren 20.000 lagun aldarrika batu gintuen greba orokorraren ondorengo egunak ere. Deustuko zubian eta trenbideetan suzko barriakadak piztu genituen; 1.500 lagun

TVE Espainiako telebistaren egoitzara joan ginen, gure borrokari buruzko berrietan gezur edota manipulazio gehiago onartuko ez genituela jakinarazteko; Eusko Jaurlaritzak Gasteizen zuen egoitzako ateetaraino 2.000 iritsi ginen, bertan zain genuen polizien harresiraino. Horrenbeste filmetan ikusitako gudu-zelaiak bertatik bertara sentitzean, bihotza ahotik zerigula oihukatzen genuen *Polizia gutxiago, lanpostu gehiago*. Ikasten hasiak ginen beldurra kukutze-ko modurik hoberena ahalik eta ozenen oihukatzeara zela; eta multzoak zemaigun babespean, itzelak esaten genizkien soldadutxoei, gorriz jantzitako bertokoei zein marroiz jantzitako arrotzei.

Egoera hain zen tirabiratsua ze, langileon artean ere muturka hasten baikin. CCOOkoek Espainiako poliziei ez baina ertzainei harriak botatzen zizkietelako, ELAkoek epelak aurpegiratzten zizkieten. Beste askok ez genuen batere bereizketarik egiten, koloreak ez zuten Polizia bat edo beste onberago egiten.

Euskal Herrikoak ez eze, Espainiako ontzioletakoak ere borrokan ari ziren. Gijonen, Poliziare-

kin izandako liskar bortitzetan, langileei elkartasuna barrikadetan adieraztera joandako unibertsitateko ikasle bat tiroz hil zuten. Raul Losa zuen izena.

- Gure alabei gerta dakieke.

- Edonori gerta dakioko.

Etixeratzean goibel igarri ninduen emazteak.

- Esan diot kontuz ibiltzeko, esan diot txakurrek ez dituztela pistolak hutsik, desarratzeko irrikatan egoten direla, atzamar dantzariak dituztela, gure odolak ez dituela zorabiatzen.

- Ekiozu, Mari; esaiozu nahikoa desgrazia dela nik beharra galtzea, beste galerarik ez dugula behar.

- Aita, aita, zer egingo duzue Raul Losarena salatzen? Institutuan greba orokorra deitu dugu. Langileekin batera mobilizatzea proposatu da, baina ez dakigunez zein asmo duzuen, bihar goizeko lehen orduan institutuan biltzea erabaki dugu, zuen deialdiaren zain.

- Gijongo mutiko horrena oso larria da. Tiroa eman diote, tiroa. Horren ostean ezin zara lagunengana balentriak kontatzera joan. Horren ostean ez zara ezer, ez zara inor.



- Mesedez, ama; ez naiz horren umea. Bada-  
kit zein arriskutsua den. Zer uste duzu ez darida-  
la kakarik poliziak ikusi orduko?

- Ez nabilkizu etxean geratzeko esaten, kon-  
tuz ibiltzeko baizen.

- Kontuz ibili, kontuz ibili... beti berdin. Azke-  
nean zeuek bihurtzen gaituzue oiloak baino oilo-  
ago.

- Zuhurra izateko eskatzen ari gatzaizkizu, ez  
koldarra.

- Ba orduan utzidazue apur bat azeria izaten,  
apurtxo bat baino ez bada!

Ama eta alabaren arteko sesioetan isilik ge-  
ratzen nintzen, ezin nion alabari aitagatik borro-  
katu ez zedila eskatu.

Salbuespen urriak salbuespen, lanpostua gal-  
tzekotan ginen langileon senideak egonarri han-  
diz izan genituen burkide, apalarro. Jakinaren  
gainean geundenez, kalean behinik behin, atze-  
lubakietan egonarazten ahalegintzen ginen,  
gehienetan alfer-alferrik; gehienetan gu baino  
askoz ausartagoak ziren, kuraia soberan zuten.  
Ikasle mugimenduetan ari ziren gure seme-ala-  
bek zenbatgura ekimen antolatu zituzten, sos-

tengua adieraztearekin batera PSO Eren Gobernuari aurka egiteko, haiekin etorkizunik ez zutela kantatzeko. Rockaren eta punkaren eztanda bizi zuten, sistemaren aurkakoa zen edozeren alde egingo zuten; kaleak sutan argitzeko arrazoi gehiegi zeuden; langileen borrokari eredugarria zeritzoten, edozer egingo zuten gure alde. Urrunetik harrotasuna sorrarazten ziguten, etxean besterik zen arren.

- Gure alaben etorkizuna zama astunegia da zeuretzat bakarrik gordetzeko. Etorkizunak ez die behin eta berriro gogoraraziko, ontziola bate-tik kaleratutako langile baten alabak baizen ez direla. Etorkizunari bost axola dio.

- Badakit, Mari, badakit. Baina ez diot atso zahar horri poztasunik eman gura, izorratu egin gura dut, burla egin.

- Eta horrela lortuko duzu? Alabei bizi dugun egoeraren larria mozorrotuta lortuko duzu? Minak zeu bakarrik jan zaitzan utzita lortuko duzu? Uste nuen umetan katekesietan ikasitakoa ahaztu egin zitzaizula, baina orain ezezkoan nago. Hurkoaren zoriona erdiestearren norberak sufritu beharra irakasten saiatu zitzaizkizun, eta

zinez lortu zuten helburua. Ez zara konturatzen? Isiltasunak akabatuko zaitu!

- Eta zer egin behar dut, psikologoarengana joan? Eta zer esango diot, kabroi batzuek bat-batean kale gorrian utziko nautela? Eta zer egingo du psikologoak, Solchagari deitu eta egin duena hobeto pentsa dezala esan? Ezkondu eta familia osatu genuenean, etxera ogia ekartzeko ardura hartu nuen, eta ez dut bete.

- Fanonegaz horrenbeste urtean ibilita horrelakoak esatea ere! Ogia ekartzeko ardura... zer uste duzu, zu barik hil egingo ginатеkeela neskak eta hirurok?, ez ginатеkeela ogia lortzeko gai izango? Zertzat gaituzu ba, besamotz hankabakotzat, ala?

- Ulertu egidazu.

- Bai ondo ulertu ere. Horregatik amorratzen naute horrenbeste zure berbek.

Hamaika bider galdetu diot neure buruari zein estutasunek elikatu didaten gehien minbizia, kanpokoek edo etxekoek. Kanpokoei erraz egin niezaiekeen ihes; etxekoei ihes egitekotan, betiko izango zen. Jakin banekien kanpokoak berandu baino goizago amaituko zirena, ez langi-

leok ez Espainiako Gobernuak ezin izango genio-  
la gatazkari luzaroegi eutsi. Etxeko estutasunen  
amaierak minbiziaren garaipena zekarren.

**Gijongo** gaztearen erailketa izan zela kausa, al-  
datu egin zuen jarrera PSO Eren Gobernuak.  
Lagun zuten UGT sindikatuari negoziatorako zi-  
rriborroa prestatzeko agindu zioten, lanpostuen  
deuseztatzea baino mahai gainera eraman zezala  
behin-behineko etenaldia. Proposamen aurre-  
rakoi bezain posibilista zeritzoten. Eguneroko  
zortzi, bederatzi, hamar orduak bete behar di-  
tuen galdaragileak ez du jukutria politikoen zer-  
gatiak asmatzeko astirik izaten. Ontziolak ixtea  
erabaki zuten arte, sindikatu gehienek -guztiak  
esatea larregi litzateke- langileon eskubideak ja-  
gotea zuten helburu. Diktadurapean elkarrekiko  
elkartasuna zen ororen gaindi. Belarrimotz, ha-  
zurbaltz, trenakekarriko, maketo eta gisako irai-  
nak debekatuta zeuden ontziolan. Langileak  
ginen, burkide. Franco hil ondoren legeztatu  
ziren sindikatuen jarduna nabarmentzen hasi ze-  
nean sortu zitzaigun elkarrekiko mesfidantza.

Satorrak saldoka trebatu zituzten nagusi eskuindarrek, langileon batasuna barru-barrutik, zuztarretik usteltzeko. Batzuk lanpostu itzelen jabe eta beste batzuk lan barik utziko zituen proposamenak egin zituzten sindikatu espainolistetako kideek. Burkide izateari utzi zioten. Traidore, saldu, lapur bihurtu ziren. Akordatzen naiz, ontziolan obratutako batzarretako batean entzun genituela, lehen aldiz, oraindik ere tristatzen nauten berba haiek:

- Ezin izango dugu denon lanpostuak mantentzea lortu. Ahalik eta gutxien galtzen ahalegindu behar dugu.

Ahalik eta gutxien, baina galtzen, beti galtzen. Etxera bidean, inoiz ez bezala, Bilboko negua ospelegia begitandu zitzaidan. Benetan ari ziren gure lanpostuen alde ala gure borrokanurri bortitzak apalarazteko gezurrak baizen ez ziren? Galdaretako kea, Bilboren hatsa, mingor igartzen nuen azalean. Gorrotagarrietan gorrotagarrienak norberekeria, handiustea eta bekaitza direla ikasi genien gurasoei baserrian. Idiek elkarrekin goldatzen dute, artoa auzolanean ereiten da, odolosteak ordainetan auzoratzen dira. Zein

gosek, zein aseezinak daroake langile xumea ki-deak baino gehiago dela uste izatera?

Hasieran eutsi bagenion ere, hiru urteko borrokek sortutako nekearen podesuz, langileen artean nork bere bideari, nork bere etorkizunari beste ezeri baino gehiago begiratzeak hartu zion lekua elkartasunari. Bizitzeko jatea dagokigu, jateko lana ezinbestekoa da, berdin dio zein baldintzatan, lana eta lana. Zalantzak ditut jana eta lana kontzeptuak elkartu zituena langilea edo nagusia zenetz, filosofo aberaskumeren baten esaldi ponpoxo horietako bat denetz, logika guztiei izkin eginda izurritea legez zabaltzen den baieztapen horietako bat. Lan egiteko bizi, bizitzeko lan egin. Gure ama zenak, Simona astoa-ekin galtzutan gindoazela esaten zidan zer pentsatu behar dugun: jatekoa lortzeko arazorik ez dutenek inposatzen digutela, eguneroko jana irabazteko ardurarik ez dutenak izan direla filosoforik filosofoenak. Behin baino gehiagotan hitz egin diot Jazintori gure ama zenari buruz, zelan kontatzen zizkigun sutondoan jarrita jentilei buruzko ipuinak, zenbatetan errepikatzen zigun heriotzak ez eze goseak ere denok berdintzen gin-

tuela. Pupitredun eskolabako jakintsua, beste askoren antzera.

Euskaldunaren borrokaldiak aurrera zihoazen ahala, gure protestak hirian zehar hedatzeak zekarren kaosa saihesteko, jokamoldea aldatzea ebatzi zuten poliziek. Aurrerantzean ontziola barruan mantenez gintuzten.

Horma-kontra suari ihes egin behar dion arratoiaren antzera, poliziak uxatzeko bitarteko berriak asmatzeari ekin genion. Halako batean, ureztodietatik Nerbioiko ur zikinak erabil gitezakeela bururatu zitzaion baten bati. Kakari gorotza. Txakurrak ur kontaminatuen beldurrez arinetan ikustea sekula izan dudan plazer handienetakoa izan zen. Gure barre algarak udal-txetik zazpi kaleetaraino entzuten ei ziren. Nerbioiko ur beltza, tanketa marroiei aurka egiteko obus. Torlojuen jaurtigailu ziren tiragomekin poliziak eurak gura baino urrunago kokarazten genituen, burdinazko torloju haiek kaskoak zulatzeko lain baitziren. Umetan beleak uxatzeko lortutako trebeziak gugan zirauen, bost hamarkada geroago ituan zeinek gehiagotan jo egiten genuen apustu.

Langile potrozorri batzuk menperatu ezinak odol gaiztoa egin zien PSOEko buruei, hain gaiztoa ezen *Ezkerraldeko langileak* zeritzoten batzuen izenean agiria argitararazi baitzieten ia komunikabide guztiei. Agirian mehatxua luzatu zituzten: gure borroka moldeekin amaitu ezean, gure senitartekoen aurka egingo zuten.

- Solchaga-kumeek agiria nork egin duen ez dakigula usteko dute.

- Agian jakin dezagun idatzi dute. Lapurdira joan eta errefuxiatuak akabatzeko gai badira, langile anonimoak akabatzeko ez dute atzera egingo.

- Gijongo mutila akabatu zutela egun gutxi batzuk baino ez dira igaro. Ez dira ausartuko.

- Behin egin duenak askotan egin lezake. Txakurrak odola dastatzen duenean erotu egiten dela diote. Estatuaren magala atsedenerako duenak zeren beldurra izango du, ba?

- Gijongo mutilaren hilketari emandako erantzuna eredugarria izan da, abisua Felipe Gonzalezentzat. Alderdi sozialista da, gerran Francori oldartu zitzaizkienen ondorengoak dira, ezin dituzte langileak saldoka usoak legez tirokatu.



- Zertarako orduan mehatxuzko idatzia?

- Aginte makila noren esku dagoen erakusteko baino ez da, ez hadi larritu.

- Lanpostuagatik borrokatuko nauk, familia-gatik, nire duintasunagatik. Baina ez diat martiri proletarioa izateko batere asmorik. Izan hadi heu, gura baduk.

- Luis...

- Barkatu, bai, barkatu; baina aspaldian laguna zen aurpegia traidorearena duk. Hegan ere ikusten ditiat satorrak.

- Paranoikoa.

- Ze paranoiko eta paranoikondo. Zer ostia duk paranoiko?

- Berdin zio, guk geureari ekin diezaiozun. Kikildu gura bagaituzte, suari egur gehiago bota behar diogun seinale. Urriaren 30eko greba orokorra berotzen hasiko gaituk. Sutondoa laster da epeletan.

- Beste greba orokor bat?

- Bai, noski. Non egon hintzen azken batzarrean ba?

- Hi, denok ezin gaituk Fanon izan. Zenbatu dituk orain arteko batzarrak? Badakik zenbat

ordu eman ditugun kalapitan? Ez nauk robota, txotxo; eta gainera, batzuenak gurago ditiat ez entzun.

- Hori ez duk zilegi. Onartzen diat batzarrak zentzu barik luzatzen direla askotan, baina hartzen ditugun erabakiak denon artean hartzen ditiagu, onerako zein txarrerako. Oker naitekek, ez diat beti arrazoi. Hik heurez pentsatzen ikasi behar duk.

- Bai, noski; baina hik ez bezala bozkatzuz gero, kristorenak eta bi esango hizkidake. Samurrena: traidore.

- Ez nazak iraindu, lagun; hori baino gehiago estimatzen haut.

Urriaren 30eko greba eguna goizeko 07:00etan hasi genuen, batzartuta, egunak ekarriko zizkigunak aurreikusi guran. Deustuko zubira irten ginen, bai oinezkoei informazioa banatzera bai zabaltzeko asmoa zuten dendak ixtera. Etorbide nagusiko sarreran bi tanketa gainditu genituen ordurako artaldea osatzen genuen 500 buruek. Zorrotzaurre eta Erriberatik bueltan, Deustuko

Unibertsitatera ere sartu ginen. Hango oihuen durundia! Bizkaiko jesuiten jakintza-leku sakratuan ikasleei langileekiko elkartasuna eskatzen zitzaien lehen aldia izango zen ziurrenik. Ikasleen gehiengoa bankarien aberaskumeeek osatu arren, euskaldun fededunen alaba- seme esaneko batzuk ere baziren.

Fanonek behin baino gehiagotan gogorarazten zidan, horietako batzuk euskarazko kulturaren ikur ere izango zirela etorkizunean. Pott zeritzon taldea eta izen bereko aldizkaria aipatzen zizkidan, inoiz aleren bat irakurtzeko mailegatu ere egin zidana. Artean ez nuen euskarazko kulturaren berri askorik, ez bazen etxean ikasitako kanta, dantza, ipuin eta bertso zaharrik. Hori bai, Oskorri pozarren entzuten genuen, batik bat, Arestiren poemak kantatzen zituztelako. Ez Dok Amairukoak ere ezagun zitzaizkigun, haiek ere Arestiren poemak zituztelako kantagai. Portugalen ikusi genituen eta horrenbeste erasan ninduten, ezen poema batzuk buruz ere ikasi bainituen.

Ama hil zaigu lanak itota

lanaren amoreagatik  
hil zaigu zertarako den bizitza  
zertarako den bizitza jakitera  
iritsi gabe  
zahartzaroaren beldurrez  
gaztaroa ezagutu gabe  
izeba ere hil da  
era berdinean  
hil da izeba...

Ontziolan euskararen aldean espainola izaten zen nagusi. Euskara gutxi batzuen artean egiten genuen, txorierritarron, arratiarren eta bilbotar euskaldun zaharren artean, batez ere. Fanon eta enparauen burugogorkeriari eta euskarazko kulturari zioten begiruneari esker izan ez balitz, negar barik galduko genituen hizkuntza zein kultura. Fanon txitean-pitean joaten zen Baionara, errefuxiaturik zeuden ETAko lagunekin bildu, Frantziako ezkerreko mugimenduen aldizkariak erosi edo euskarazko diskoak eskuratzen. Joantorri haietako batean Errobi taldearen *Gure lekukotasuna* diskoa ekarri zigun.

- Hauxe izango da gure ereserkia, Luis, Extremaduratik hona bidalitako belarri gogorrenek ere ikasiko dutena.

*Lantegiko hamar manamenduak* zioen kantaren izenburuak.

Lehena:

Nagusiak dituzu maitatuko  
bai eta  
ahal bezain ongi zerbitzatuko.

Bigarrena:

Lanaren hasteko eta uzteko  
orduak  
dituzu beti errespetatuko.

Hirugarrena:

Lanean denborarik ez galtzeko  
ez zara  
inoiz lagunekin solastatuko.

Laugarrena:

Nagusiak arrazoin duelako  
denetan  
ez zara haren kontra mintzatuko.

Bosgarrena:

Telefona ez duzu hunkituko  
ahalaz  
kanpotik inork ez zaitu deituko.

Seigarrena:

Lan presatu baten aitzinatzeko  
beharrez  
igandean aritzea onartuko...

Zazpigarrena:

Ongi irabazten duzulako  
ez duzu  
emendazionerik galdatuko!

Zortzigarrena:

Nagusiak hazten zaituelako  
agian  
ez diozu ezer ez ebatsiko.

Bederatzigarrena:

Nagusiak baitira beharrezko  
sekula

ez duzu haien lana trabatuko.

Hamargarrena:

Ta gauean langileek eskainiko  
pottotta  
ta ipurdi nagusiarendako!

- Baina zertarako balioko ziguk kanta horrek?  
Nori kantatuko zioagu, ulertuko ez dutenei? Txa-  
kurrei? UGTkoei?

- Geure buruari! Ez da nahikoa hiretzat? Egu-  
nero atezuan egon beharko gaituk, egunero.  
Ereserkiak, gogoa pizteko kantuak, ezinbesteko-  
ak dituk iraultzak exijitzen dizkigun sufrimen-  
duak arintzeko. Ingelesa tutik ere ulertzen ez  
duten progre asko hor entzuten dituk, The Bea-  
tlesenak zoroen antzera kantatzen.

Makina bat greba orokor deitu genituen bo-  
rroka urteetan; denak izan ziren ezberdin, bai ja-  
rraipenari dagokionez, bai mobilizatzeko erari  
dagokionez, zein erantzunari dagokionez. Ordu-  
ko honetan, Deustuko Unibertsitatetik udaletxe-  
ra bidean, La Salveko komisaldegi parean, doze-  
na erdi laudorio oihukatu genizkien txapeloke-

rrei, zenbat maite genituen jakin zezaten. Udaletxeko eskaileretan luzaroan aurpegiratu genion PNVri PSOErekin bat egin izana, arratsalderako deitutako manifestazioari atxikimendua adierazteari muzin egin izana. Bazkaldu aurretik Zazpi Kaleetara joan, gure aldarrikapenekin bat egin zezaten eskatu eta arratsaldeko manifestazioan parte hartzeko gonbita luzatu genien dendariei. Sinesgarriak irudituko zitzaizkien gure argudioak, bai alde zaharreko dendarioi bai Bilbo eta Bizkaiko beste askori; izan ere, arratsaldeko manifestazioan 25.000 bat lagun bildu ei ginen.

Manifestazioaren hasieran, sindikatu zein alderdi politikoekiko konfiantza oro galtzen hasteko moduko iskanbilak suertatu ziren. Gatazka hasi zenetik egunero barrikadetan genbiltzan tiragomadun langileok aho bete hortz geratu ginen. Sindikatu eta alderdi politikoetako buruak elkarri mokoka ari ziren, hasierako pankartan nork erdiko lekua hartuko, argazkietarako tokirik egokiena zeinek beteko.

- Nabarmen halakook! Garbitu egin beharko genitizkek.

- Jo eta txikitu!



- Bihar-etzi sailburutzaren bateko besaulkiak berotzen egongo zarete faltsuok halakook!

Agiraka, ukondokadaka oratu genion pankartari; agiraka, ukondokadaka bota genituen atzera argazki-minez zeudenak. Ez izerdirik eta odollik bota barik, inor baino nor? Ez horixe! Zeharo amorratuta geunden, langileon batasunaren sakoneko egoera hauskorra milaka herritarren aurrean agertzeagatik eta gurekiko horren begirune gutxi adierazteagatik. Sano minduta geunden. Fanon zer esanik ez. *Eusko gudariak* eta *Internazionala* hortzak estututa kantatu genituen, zeinek ozenen.

Etixerako bidea isilik egin genuen Fanonek eta biok. Greba orokorrak erabateko arrakasta izanagatik, sindikatu batzuetako buruekin eta bizkartzainekin izandako matrakaren ondorioz mikaztuta generaman odola, irribarrea goibel.

- *Herdoilaren tristeziarekin batera, ziutate honen soinekoa udazkenetan lanbroa da.*

- Zertaz ari haiz?

- Kantari berri baten diskoan entzun diat. Ruper Ordorika izena dik, eta diskoak *Hautsi da anphora*.

- Hautsi da anfora? Zer duk hori, grekoa?

- Bernardo Atxaga deritzon batek idatzi zian, *Etiopia* poema liburuan argitaratzeko. Ez duk akorduan, 78an *Pott* aldizkari literarioa oparitu niala hire egunean?

- Bai, bai, uzkerra edo puzkerra esan gura ote duen galdetu nian.

- Nire gusturako bigunegiak izan dituk. Baina Erriberatik oinez noala sarritan etortzen zaidak: *eta bere sabaia laino baso bat non bizi den ilargiaren badaezpadako agonia.*

- Eta zer esan gura du?

- Zabaldu begiak, Luis; kantatu ahala alde batera eta bestera adi bahago, ikusiko dituk bus txofer batzuk boxeolari hilaz mintzatzen, apatri-dak bailiran, trenak, memoria karrilen fatalitatean galduz, denboraren oihal singlea, arratsezkoa soilik, arrabita baldarren nostalgia, kantoietan, eta harantzago mozkorrak, kale garbitzaileen beilegi bizia, beste zubi bat, prostitutak...

- Buruz dakik, kabroi horrek.

- Bihotzez. Sentitu egiten ditiat Ordorikaren melodiak. Lagako diat diskoa.

- Esan berri duk bigunegiak direla. Eta gainera ni zaharregia nauk modernitaterako.
- Ez zagok modernitaterik, lagun. Ahaztu nahia duk modernitatea, ez besterik.
- Heuk badiok... Nik gurago ditiat Arestirenak, Oskorrirenak. Ulertu egiten ditiat behintzat.

Mari emaztea telebistari so kausitu nuen. Arratsaldeko manifestazioko irudiak ematen ari zirelarik, milaka lagun bildu ginela entzun nion esaten TVEko soldatapekoari. Hala ere, azpimarraztekoena, sindikatuetao ordezkarien arteko liskarrak izan ziren telebistako editoreentzat ere. Gure atakan egon izan balitz, Marik zer egingo zukeen galdetu nion neure buruari. Ez zidan gutxitan aurpegiratzen, munduko gerrak, nahigabe guztiak, gizonkeriak baino ez zirela, gizonen arteko lehia zentzugabeak kakazten zuela dena, menperatzaile menperatu binomioa gizonok asmatu genuela. Mutututa ematen nion arrazoia. Barruan gordetzen nituenak gordeta, pentsatzen nuena zelan asmatzen zuen misterioa da niretzat oraindik ere. Elkarrekin daroatzagun ia ho-

geita hamarretik gorako urteotan, berbabako komunikazioa garatu dugula ematen du, elkarreki-ko maitasunaren biziraupenerako telepatia antzekoa. Gure adineko bikote ezagun askok ohe banatan lo egiten dute, batzuk Elizaren mehatxuei gorrarenak eginda banatu ere egin dira, lanpostua galtzean alkoholetan babestera egin zuten lankide askoren familiak txiki-txiki egin ziren. Marik erakutsitako maitasuna, eta alabena, atezuan nuen minbizia desagerrarazteko erabili izan banu!

Ontziola ixteko arriskuaren berri izan aurretik, alaba Lorea eta bion arteko harremana hotza zen, urrunekoa, laztanik gabea. Oso gazterik hasi zen politika kontuetan muturra sartzen, institutuan hastearekin batera. Goizetan ikastetxean konplotean aritzen bazen, Bilboko Gazte-txera joaten zen arratsaldero, sistemaren aurkako hitzaldi, mahai-inguru edo antzeko ekintzetan parte hartzera. Ostiral-larunbatetan ordu txikitik etxeratzen zen, zein baino izen xelebregokoak zizuten punk taldeen kontzertuetan batek daki zer egin ostean. Errieta egitearen ardura Marik

hartzan zuen beti. Begiak itxita itzarrik aditzen nituen.

- Lorea, nahikoa da. Astebururo-astebururo, ostiral eta larunbatean, bietan ordu txikietan etxeratzeari utzi egin behar diozu.

- Ez naiz drogatzen, ama. Oraindik ez dut larzurik jo. Utzidazu gazte izaten.

- Aitak lana galtzen badu, besteok bildu beharko ditugu sosak.

- Aitak ez du lana galduko! Denon artean lortuko dugu! Fanonek esan dit PSOE makurraraziko duen zerbait gertatuko dela.

- Noiz? Zer?

- Ez dakit, baina laster.

1984ko azaroko egun guzti-guztietan gudukatu ginen txakurrekin. Batzuen eta besteen erak asko mokortu ziren. Poliziek pistolak gero eta sarrigo, gero eta errazago erakusten zizkiguten; geuk ere behin baino gehiagotan jipoitu genituen ostikoka, amorruren amorruez oldartuta gure oinetara eroritako sarjentuak zein kapitainak. Gorrotoak itsutu egiten omen du. Zeinek

barrabaskeria sonatuagoa egin ari ginen langileak eta Polizia. Berbarako, guk ordurako lagun zaharra genuen Echeita sarjentuari emandako astindu ederraren ordainetan, euren Ismael lan-kidea suebaketan harrapatu ostean Gobernu Zibilera eroan zuten. Jakin bezain laster 500 lagunetik gora bertaraino iritsi, kristalak harrika txikitu, makilakadei luzaroan eutsi eta, praktetako kakei kasu egin barik, Ismael askatzea lortu genuen. Eskaini genion txalo zaparradak Gobernu Militarrean jo zizkiotenak ahantzarazi zizkioten, une batez bederen.

Biharamunean, Sondikako aireportuan sartu ondoren, hegazkina geldiarazi, Espainiako Gobernuaren asmoak katabut batean sartu eta Solchagari helarazteko agindua eman genion pilotuari. UGT eta CCOO sindikatuek gure borroka moldeak gaitzesten zerraiten, batu baino sakanatu egiten bide genituen langileak, erabiltzen genuen indarkeriak langileen izen ona zikitzen ei zuen, helburuak lortzeko beste bide batzuk hobetsi behar genituen. PCE-EPK berak ere zinez kritikatu zituen generabilitzan metodoak. Orduan enpresa batzordeak agiria kaleratu zuen,

asanblada proposatzearekin batera gogorarazteko sindikatu bakoitza gerrarako bere estrategiak hautatzeko buru-askea zela. CCOOkoek tiragomak debekatzea gura zuten, koktelak desageretzea.

Ismael atxilotu zuten egun hartan bertan, batzuk poliziekin paparretik helduta ari ginen bitartean, enpresa batzordeko zenbait kide gobernadore zibilarekin elkarrizketatu ziren. Besteak beste, Euskaldunako afera 40 langile gudarienak atxilotuta konponduko zela proposatu zien Iñaki Lopez gobernadoreak. Berrogei aztoratzaile nagusiok kartzelatuta, sindikatuak zarata apur bat egin baina atoan isilduz gero, akabo Euskaldunaren tragedia. Txintxoek saria izango zuten, lanpostua ziurtatuko zieten beste nonbait.

Asanbladan tamainako xantaiaren berri emandakoan, borroka moldeak mantendu eze gogortzearen aldeko iritzia izurritu zen. Amaitutakoan, betikoak halako hiru irten ginen zain genituen oilar marroiei gure gangar gorriak erakustera. Harrotasunezko irribarreak ostentzen genituen zapien azpitan, ontziola osoa gure alde genuen, samaldan garaiezinak ginen.

- Anbulantzia, deitu anbulantzia! Iñaki odole-  
tan ari da begi batetik!

- Mangeraren presioa menderatu ezin eta  
aurpegira ihes egin dio!

Etxekoekin nekez biltzen ginen hilabeteotan.  
Egunak argitu aitzin etxetik irten eta gauerdia  
heltzear zela itzultzen ginen. Aitzakia ezin hobea  
lanekoez barbarik ez egiteko. Itzarrik itxaroten  
ninduen Marik.

- Zagoz lasai, ez dizut ontziolakoez galdetu-  
ko, neuk kontatuko dizut. Euskaldunako langi-  
leen emazteek antolatzea erabaki dugu. Hainbat  
ekintza burutzea pentsatu dugu. Etziko manifes-  
tazioa izango da lehena.

- Baina...

- Ez dizut iritzirik eskatu, jakinarazi baino ez  
nizun egin gura. Afalduko duzu?

- Eta neskak?

- Lorea ez da oraindik etxeratu. Amaia lotan  
dago.

- Bihar goizago itzultzen ahaleginduko naiz.

- Zer ardura dio biharkoak orain...



Ez zidan besarkada onartu, ez zituen besoak nire lepotik eskegi. Zabaleran hamar metrokoa zirudien harresi ikusezinak bete zuen gure arteko metro eta erdia. Harresi ezaguna bera, ezkon-duta egin genituen urteetan lantzean-lantzean agertzen zitzaiguna, musukatu eta belarrira «sentitzen dut» esatea eragozten ziguna, harresi gupidagabea.

Inoiz baino gutxiago ikusten nuen Jazinto ere; eta ikusten nuenetan nik etxekoei baino gutxiago kontaktzen zidan eskuartean zerabilenez, igarrita bainion, ostendu gura zidan zerbait zerabilena eskuartean.

- Batzuekin eta besteekin nabilek, borrokari maila gorenean zelan eutsi asmatu guran. Ezin nauk ditudan irakaspenak hiri irakastera mugatu. Formazio ideologiko faltan zagok ontziolako makina bat burkide. Handia egin behar diagu, osterantzean, akabo Euskalduna.

- Herenegun alde zaharrean hirekin zeuden neska-mutil gazteak ez ditiat sekula gure dikean ikusi.

- Lanpostuak galtzeak eragindako ezinegona baino harago doan borroka dela gurea ikusarazi

behar zieagu PSOEko kapitalista saldu horiei; sozialistak, baina benetakoak izateko ordua heldu dela.

- Ez itzak gazte zaildubakoak kakaztu. Izango ditek gero ere borrokarako astia eta hamaika arrazoi.

- Borrokarako kemena eta arrazoiak orain zauzkatek. Gazterik ikasi behar ditek egurra banatzen.

- Tiragoma, ur hodi eta koktelekin egundoko egurra ematen diegula uste nian... eta hi bakezalea hintzela.

- Tiragoma, ur hodi eta koktelekin? Molotovek eta Von Ribbentropen Sobiet Batasunak eta Alemaniak elkarri ez erasotzeko hitzarmena sinatu zutenean, denbora irabaztea baino ez zitezten helburu izan. Stalinekin eta Hitlerrek ejertzitoak indartzeko astia behar zitezten. Gu goizero itzultzen gaituk suebaketara tiragoma, ur hodi eta koktelekin. Baina noiz arte? Nekeak jota etsi edota gutako baten bat garbitu arte? Eurek gero eta tanketa gehiago, gero eta su-arma gehiago zakartzatek. Ez diat indarkeria maite, baketan

bizi gura diat, baina belaunikatu eta erreguka ez diagu ezer lortuko.

- Zer proposatzen ari haiz? Zertan habil?

- Hiri ez diat ezer proposatu.

Milaka eta milaka lanpostu galduko ziren jakitun, PNVko Jaurlaritzakoek zein PSOEkoek, bartzuek baskoei eta besteek abertzaleei egotzi zieten deskalabruaren ardura. Guk dakigula, ez bartzuek ez besteek ez zuten zirkinik egin Euskalduna itxi ez zezaten. Biek babestu zuten berregituraketa, zeinek ogi birrin gehien bildu. Botere publikoaren ohiko jokabidea. Langileen eskubideei bizkar emanda funtzionatzeko sortu zituzten, enpresarien diru gosea asetzeko. Botere publikoko agintariak ez dira egundo fabrika bateko langileekin batera ateratako argazkian ikusiko, ez dira lan-baldintza duinak aldarrikatzeko elkarretaratzeetan langileekin bat eginda hanpatuko. Aldamenean beti izango dute enpresari aberatsa, ugazaba, jabea, nagusia, jauntxoa, ekonomiaren motorra, etorkizun onuragarriaren bermatzailea. Gutxiengoa diren horiekin agertuko dira ehunka langile anonimok eraikiko dituzten egitasmoetako lehen harriak finkatzen. Banka-

riekin bazkalduko dute, komunikabideei begira kirol taldeei emandako diru-laguntzak eskertzeko, eta mikrofonorik ez dagoenean, euren alderdien finantziazioan inbertitutako milioiengatik lausengatzeko. Horiekin eta euren sindikatuak munduko langileriaren eskubideen gaintetik dau dela uste duten traidoreekin egiten dira lagun botere publikoko putre madarikatuok.

Azaroaren 15ean gure aldarrikapenak Bilboko banketxeak okupatuta kaleratzea aurreikusita bagenuen ere, ezinezkoa suertatu zitzaigun. Atari guztiak zaintzeko ehunka polizia bidali zizkiguten Espainiatik, atzaparrak astintzera. Iñaki Lopez gobernadorea gutako 40 borrokalarietak atxilotzeko ekinean zebilen. Gutako bakoitzaren argazkia ere bazutela jakinarazi zigun, berriz ere. Tiragomadun gaizkileak ginela zabaldu zuen sokako zituen komunikabideetan. Gure artean beldurra hedatzeko trikimailua baizen ez zen, arratoien harrotasunerako pozoia. Banketxeak okupatzeko polizien harresia iraganezina zenez, amorrua Gobernu Zibilera bideratu genuen.

Lopez gobernadoreari ozen eta argi gaztigatu genion, tiragomadun gaizkileak berrogei halako hogeitaz gineke, bera ere jomugan genuela, mehatxuak betetzeko direla frogatuko geniola. Azken guda dantzaren lehen notak izango ziren.

Kalean ostiaka ari ginen artean, UGTkoek akordioa sinatu zuten PSOEekin. Hitzarmen horren arabera, Gobernuak bertan behera utziko zituen kanporatzeak, ontziolen lan-karga handitzeko ahalegina egingo zuten, aurre-jubilatuentzako aparteko diru-laguntzak gordeko ziren eta galdutako beste lanpostu sortuko zituzten hogei-ta hamasei hilabeteren buruan.

Biharamunean giza-lubakia osatuta abiatu ginen hitzarmenari buruzko gure iritzia kaleetan zabaltzera. Ostera, ejertzitza zizudien polizia saldoak zain genuen ontziolako atarian. Gomazko pilotekin batera torlojuekin tirokatu gintuzten, eta ontziolan barrura sartzeko helburu irmoa erakutsi zuten. Ez zuten herritarrek ezer ikusterik gura, ez zuten gura errepresiorako zerabiltzaten metodoak agerian gera zitezten. Itsasontzi erraldienetarako bost tonako Nelson garabia itauzrean, atzetik berrogei bultzaka, beste ehun be-

soak astintzen, azkenean guztiak kanporatu genituen. Ikusgarria izan zen tanketak arrapaladan atzera egiten ikustea.

Zuri-beltzezko film hartan legez, gudu-zelai-ko lubakietan lokatzetan dagoen soldadua erakusten duen film hartan legez, guda noiz irabazi noiz galdu ez dakielako zoratzen den mutil gazte haren begirada luzaroan erakusten duen hartan legez, halaxe sentitzen ginela akordatzen naiz, halaxe azaldu zuela kronika idazteko ontziola barruraino etorritako kazetariak.

Kazetari gaztea zen, hasiberria, zuzendaria kosta ahala kosta liluratu gura duenatarikoa eta, noski, zaildubakoa. Estatubatuarren filmetan ikusitako gerra giroa iruditu ei zitzaion hari ere ontziolara sartuaz batera ikusi zuena. Ehunka ginen zaurituta botika-kutxara joan, obuan zaindu eta berriro borrokara itzultzzen ginenak. Kazetariaren kronika hura etxean gordeta izan dut, oso gutxi baitira gure borrokei buruz gorde direnak:

«Euskaldunako langileen borrokaren berri jasotzera ontziolara bertara joateko proposamena luzatu zidatenean, baiezkoa pozarren erantzun

nion zuzendariari. Goizeko 07:30erako Bilboko udaletxetik bertan dagoen sarreran genuen hitzordua. Horren goiztiar biltzeko arrazoia 08:00etan sarrera guztiak ixten ari ziren polizien tanketek argudiatu zidaten. Elkarren kontrako gudurako estrategiak ondo baino hobeto ezagutzen zituzten arerioen erdian nengoen. Ontziola barruan, ehunka langilebuzo urdinak, zapiak eta kaskoak janzten ari ziren. Tiragomen egoera ikuskatu, gomak aldatu, neurriko torlojuak bereizi, botilak gasolinaz bete, trapu-zaharrak busti, suziriak prestatu, ur hodiak tenkatu eta arnasa sakon hartu ostean, nor bere lekura abiatzen da, aurrez egokitu zaion lubakira. Langile hauek edozertarako prest daude euren lanpostuak mantentzearen. Jokoan dagoena ez da soilik Euskalduna ontziolaren etorkizuna, jokoan dagoena milaka lagunen, milaka familien bizibidea da, eguneroko ogia galtzeko arriskua. Horrek behartuta borrokatzen dira Euskaldunakoak, Euskaldunako heroiak». Eta horrela hiru-lau orrialde.

Gure borroka terrorismotzat definitzen zuten kazetari soldatapekoen artikuluak gaitzesten genituen bitartean, aldeko hau puztuegia iruditu zi-

tzaigun. Gu ez ginen ez heroi ez terrorista, langileak ginen.

Negoiazio saioek, erromesenak ziruditen manifestazioek ez zuten aldaketarik ekartzen, ez zuten ezertarako balio. Jakin bagenekien gure borroka moldeek eragozpenak pairarazten zizkietela Bilboko langile askori, eta era berean jakin bagenekien horietako askok ederto batean ulertzen zutela zergatik jokatzeko genuen gisa hartan.

Egunetik egunera poliziei aurre egiteko bitarteko berriak asmatzen genituen. Egunetik egunera ontziolako sarrerak babesteko neurri sendoagoak zuzendu genituen, soldatutako altzaruzko xafiak atetzar bihurtuta, gomazko pilotetatik babesteko egurrezko ezkututzarrak jasota. Polizien tanketen bekaitz, geurea moldatu genuen, ur hodi, tiragoma eta suziriak jaurtitzeko zulo eta guzti. Borrokaren unerik latzenak zetozigula jakinki, nork zelan jokatu behar zuen are zorrotzago zehaztu genuen. Ez zegoen inolaz ere atzera egiterik ez huts egitea onartzerik: lehen lerroan, tiragomadunak; atzetik, harri jaurtitzailak zein torloju handiak habailarekin jaurtiko zi-



tuztenak; alboan, eskularruz babestuta, kezko poteak erori ahala itzuli edo uretan itzaltzeko zeregina zutenak; bertatik bertara hornitzaileak, harri, torloju eta jaurtikitzeko baliagarria zen edozer eskura izateaz arduratzen zirenak; nor bere lekuan, talaieroak, polizien joan-etorrien nondik norakoen berri emateko agindua zutenak; eta atzealdean, hamarnaka izaten genituen zaurituak artatzen aritzen zirenak.

Poliziek ere egunetik egunera oldarkorrago erasotzen baikintuzten, geu ere oldarkorrago jokatzen ahalegindu ginen. Aurrez aurreko esku dantzak inoiz baino odoltsuagoak izan ziren garai hartan, nagusi ziren komunikabideek inoiz baino berri gutxiago zabaldu zituzten. Lekukorik gabeko sarraskia. Poliziak ezinean ari ziren, aurre egiten genielako, beldurrak gaindituta topeka egiteko prest geundelako, eurei ere belaunek dar-dar egiten zitelako. Badakit gure auzoko askok ez dutela egundo borra kolperik hartu, poliziek ez dituztela sekula jipoitu eta telebistan ikusten dutenetik elikatzen direna. Poliziaren ardura bakarra izua eragitea da; izuak izozten bazaitu, txotxongiloa legez erabiliko zaituztelako,

zure ahotik beraiek gura dutena esango duzula-ko, pertsona ere ez zarela sinetsarazteraino es-  
tutuko zaituztelako. Buruz buru tinko erantzunez  
gero, beldurra oihartzundu egiten zaie, espero  
ez duten erantzuna da. Noizbait pertsona ere  
izandakoak baitira.

Gure irmotasunak ez eze emakumeen ausar-  
diak ere zur eta lur uzten zituen. Deustuko zubia-  
ren pareko sarreratik hasita, ia egunero buru-  
tzen zituzten manifestazioetan epelak eskain-  
tzen zizkietenean izerdia atertu ezinik egoten  
ziren, bata besteari begira, aginduen zain.

- Itzal handiko gizonen atzean itzal handiko  
emakume bat dagoela esan zuenak kaka gustu-  
ra egingo zuen.

- Ez dakit zergatik, akaso poliziak gizonkeria-  
ren maila gorena direlako.

- Ausardia eta zuhurtzia ahizpak direla dio Ja-  
zintok.

- Eta hori nondik oihukatu dik, atzeguardia-  
tik?

- Ezin izan denean trebe.

- Badaezpada ere.

Euskal Herrian eta Espainian ontzioletako milaka langileekin zituzten liskarrak gutxietsita edo mugagabeko boterea zutelako mozkortuta, azaroaren 20an, Santi Brouard, Herri Batasuneko kidea asasinatu zuten PSOEko mertzenarioek. Ez edozein egunetan, azaroaren 20an baizen, Franco hil zen egun berean. Hogeita hamaika eta esku zein zen gogorarazteko keinua.

Aurreikusita genituenak bertan behera utzita, eraiketa gaitzesteko ekimenekin bat egitea deliberratu genuen goizeko asanbladan, tartean hurrengo egunerako ezkerreko alderdiek deitutako greba orokorrerako deiarekin. Bulegoetako leihoetatik behera pankarta eskegi orduko pelotazoan eta ke-poteen zaparradatik aterperatzera behartu gintuzten. Ikasle eta bestelako langileen besoak matxinbratuta, zaparrada bidali zigutena uholde itzuli genien. Ohiko amorrua ohi baino elikatuago genuen. Zaurituak ere ohi baino gehiago izan ziren, odola lotsagabe isurita.

Biharamuneko greba deialdiak gelditu egin zuen Euskal Herria. Santi Brouarden hilotzaren atzetik hiri bete lagun, zenbatezinezko jendetza.

Berebiziko mina eragin bide zien Santiren hilke-  
tagatik emandako erantzunak, bi egun geroago  
Espainiatik beren-beregi ekarritako txakur odol-  
zaleenak izan baikenituen haginka hasteko irri-  
katan.

- Juan Jose motorrean zihoala geldiarazi eta  
hezur guztiak txikitu arte jipoitu dute!

- Geldi zitezten erreguka hurreratu zaien  
emakumeari ubeldura galanta utzi diote izte-  
rrean!

- Autobusetatik jendea atera eta mehatxa-  
tzen ari dira!

- Fusilatu egingo gaituztela zaunka egin dit  
batek!

- Besoak inoiz ez bezala nekatu beharko ditu-  
gu. Goazen!

Enpresa batzordeko kideek irratietara deitu  
eta alderdi politikoetako ordezkariak laguntza  
deia egin zieten, etor zitezela ontziola barrura  
polizien triskantza ekiditera.

Beruna erabiltzeko baimena zutela usna ge-  
nezakeen.

- Torloju gehiago, torloju gehiago!

- Zuek bostok, zubikoek laguntza behar dute!

- Hiru bidoi irauli egin dira! Arztezu eta urez bete behar ditugu!

Polizien irrati frekuentzia atzemateko ardura zutenen abisua:

- 11:30ean sartuko direla entzun diegu! Burdinekin datoz! Beruna erabiltzeko agindu diete!

Anabasaren erdian sarleku bat babestea ahortzi genuen. Ohartzerako, ustez gotorleku bilakatu genuen ontziolan barreiatzen ari ziren 60 bat, hortzak kaskoetatik agerian. Ontziolaren barruko bigarren babestokietan eutsi genien arren, beste horrenbeste agertzekotan ederki berotuko ziguten larrua. Beharrik gure burkideak izan ziren bikoiztu zirenak. Berrehun besok jaurtikitako harri zein torlojuez ontziolaren eremuetatik lekoratzea lortu genuen. Atzerabide horretan sindikatuetako bulegoak, liburutegia eta jantokia osorik suntsitu eta proban itsasoratzen ziren ontzietarako jan-edanak lapurtu zizkiguten. Idazteko makina ere eroan ziguten.

- Baten batek borrokaldi hauei buruzko liburua idatzi gura izango du.

- Idazten jakin egin behar, ordea.

- Hik baino hobeto zakitek zer idatzi.

- Gure berbek torlojuak baino min handiagoa ematen zietek, antza.

- Bai, batez ere hire adjektiboek.

- Berria erosi beharko dugu.

- Idazteko makina baino ez da! Torlojuak behar ditugu, ez letrak!

- Torlojuekin idatziko ditugu aldarrikapenak?

- Panfleto nahikoa idatzi ditugu ezertarako.

Tiro hotsa izan zen entzun genuen hurrengo. Ez kezko poteak jaurtitzearen hotsa, ez go-mazko pilotena. Usnatu genuen, eta asmatu. Di-da batean, metrailetak, subfusilak eta pistolak desarratzen hasi ziren. Izerdi hotza, izu ikaragarria, heriotzaren hatsa kokotean, odola gatzatuta. Eutsi ezinik, amaitzeke zegoen itsasontzian aterpetzera egin genuen. Bidean Bizenteri bala sartu zioten gibeletik bertan. Bala bat. Eta ehunka gehiago. Berunezko heriotza dosi haietatik babestearekin batera, eskura genuen edozer botatzen genien borraroei. Itsasontzira heltzeke harrapatu zituztenak belarrietatik odola atera arte leherrarazi zituzten.

- Pablo, Pablo, zer duk, Pablo?

- Goazen atzerago, hemen arriskutan gaudek.

Ez zituen bi metro egin. Izuak bihotza geldiarazi zion. Tiro dantza hartan, lankide batek medikua eta anbulantzia itsasontziraino ekartzea lortu zuen. Beranduegi ordea. Bihotzekoak eman zionetik artatu zuten arte, hiltzeko nahikoa, hogeita minutu joan ziren. Hildako bat. Pablo. Gutarra.

Hiltzaileka kanporatu genituen fabrikatik. Irakinaldi hartan pistolak eskura izan bagenu, erruki barik dantzaraziko genien arin-arina, dardararik gabe zulatuko genizkien kaskoak zein ezkutuak.

- Koldarrak!

- Kabroiak!

- Hil gaitzazue guztiok! Jubilatu gaitzazue betiko potrorik baduzue, hartara ez duzue birmoldaketarik egin beharko!

Poliziak antzarak ferratzera bidalita, Lopez gobernadorea lumatzera abiatu ginen. Hartu gintuen lotsabakoak, bai eta esan ere harro zegoe-la Poliziaren jokabidearekin, berriz aginduko ziela tiroka sartzea indarkeria erabiltzen jarrai-

tzen bagenuen. Bizkartzainen artetik erraietako gorrotoaren hatsa igartzea baizen ez genuen lortu. Boterearen indarrak gangartzen zuen oilo bustia.

Gaur badakit gorrotoa egun hartan sentitu nuela. Gorroto berba txitean-pitean erabiltzen dugu, norbaitekin haserretzean, gure pentsaeraren kontrakoa den politiko telebistazalearekiko sentimendua azaltzean, min sakona eman digunari buruz galdetzen digutenean. Gaur badakit horietan zein beste milatan, edozeri deritzogula gorrotoa. Nik bizi izan nuen sentipen hark eraginda, Lopez gobernadorea, Ramon Jauregi, Solchaga, Barrionuevo, Felipe Gonzalez garbituko nituzkeen, eta batez ere egunero jazartzen gintuzten polizia guzti-guztiak. Egun hartan egingo nukeen, zalantza izpi barik, ondorioetan pentsatuta ere, emaztea eta alabak gogoan izanik ere. Horma kontra fusilatuko nituen, begietara begira. Ezagutu nautenek gizon ona izan naizela azpimarratzen dute, amama Pantxikek esaten zidan legez, on hutsa. Baina gorrotoak odola gobernatzen badizu, ordura arteko guztiak ez duela fitsik balio konturatzen zara, beste norbait



dela zure barruan, arrotza, ezezaguna, Hyde kontrolaezina.

Harrezkero sarritan logabetu naiz, sortutako odol txarra egundaino aldean ote daroadan, ez ote zitzaidan zainetan betikotu, barrua ez ote zitzaidan orduantxe usteltzen hasi. Gorrotoak bizi-rik mantentzen zaituela diote jakintsu ustekoek, mendekua argumenturako baliatzen duten hainbat filmetan, gorrotoaren kimua den mendekuak bizitzeko arrazoia ainguratu liezagukeela, mendekua gauzatzea justizia gauzatzea ere badela. Gidoietarako hitz segidak, idazteko errazak, urrunekoegiak, baina bizitzan behin, bederen, barru-barrukoak.

Pablarena hilketa izan zela oihukatu genuen legez, halaxe berretsiko nuke bihar ere. Pablo hil egin zuten. Itsasontziak eraikitzen emandako urte luzeetan lan nekagarri askoak hartu zituen Pablaren bihotzak, altzairu xaflen pare gogortzeraino, puzten hasita. Pablo ez zen koldarra, Pablok aurrez aurreko borrokan eman zituen azken egunak. Ez borrek ez gomazko pilotek ez zuten kikildu. Tiro hotsek eta heriotza horren hurbil antzemateak geldiarazi zuten Pablaren bihotza.

- Bizitzari atxiki nahiak hil du Pablo Gonzalez gure lankidea. Munduko langileriak pairatzen duen jazarpenaren beste adibide bat. Kapitalismoaren segak moztutako beste belar txar bat. Noiz arte lankideok? Noiz arte burkideok?

- Gizona ere bazela ahaztu duk.

- Gizonak bakarrik ezin dik iraultzarik burutu.

- Gizonik gabe ere ez.

- Ezta amamarik, amarik eta alabarik gabe ere. Hi, Euskaldunako langilea dela hil ditek Pablo, polizien kontra borroka latzean hil ditek, Estatuaren aurkako borrokan hil ditek. Ahaztu egin duk?

Espainiako segurtasun indarrek hiru egunetan bi lagun hil zituztelarik, lantegiak, ikastetxeak, dendak itxita eta kaleak sutan zeudela, PSOEk Jose Barrionuevo Barne ministroa bidali zigun Euskaldunara bertara. Lopez gobernadorearen mehatxuak bere egiteaz batera, Poliziak ordura arte baino zorrotzago jokatuko zuela esan zigun komunikabideen bitartez. Solchaga bigunegia-  
ren okerrak zuzentzera etorri bide zen Barrio-

nuevo, uxatuko gintuen txorimaloa, txuzoa, arranpaloa, mamutzarra.

- Gabon, aita. Zer berri Barrionuevok?

- Oso txarto portatu garela eta zigortu egingo gaituela entzun dut, Lorea.

- Filosofiako gure irakaslearen antzera, orduan.

- Pabloren hilotza laguntzetik nator!

- Neskak, prestatu mahaia eta afal dezagun.

- Ni ez naiz gose, Mari. Ohera noa. Gabon.

- Ez duzu goserik behar etxekeekin egoteko.

- Barrionuevok Euskalduna itxi egingo ei du.

- Behin-behinean izango dela esan dute, baretzen zareten artean.

- Badakizu ez garena baretuko. Pablorenak badakar berea.

- Eman egurra, aita, erruki barik.

- Suari ari gara egurra ematen.

Biharamuneko asanblada Sarrikoko unibertsi-tatean burutu behar izan genuen, ontziolara hurbiltzen ere ez baitziguten uzten. Erantzunetarako egutegia adostu genuen lehentasun. Gure besteko eztabaida luze, amaitezinik gabe, emakumeek ontziolara sartuta asteburuko itxialdia

antolatu zuten. Itxialdian bildu ziren 500etik gora emakumeak txaloka agurtu genituen itxialdiaren amaierako manifestaldiaren hasieran. «Euskaldunako emakumeok ez dugu amore emango».

PSOEek estrategia aldatu zuen. Aurrez aurreko borrokaren bidez garaituko ez gintuela baietsirik, langileon batasuna apurtzeko ahaleginari ekin zion. Espainiako Enplegurako Zuzendaritza Nagusiak komunikabideei jakinarazi zenez, Euskaldunako langileokiko lan-harremanak apurtzat ematen zituzten. Hilabeteko epean enplegua sustatzeko fondoetan izena eman beharko genuen. Horretarako, bidaliko ziguten gutuna onartuta itzuli beharko genien. Agindu hori bete ezean, lan-kontratua hutsalduko ziguten eta ondorioz kaleratu egingo gintuzten.

Iruzur berriari zein erantzun eman ordu luze-tan hausnartu ondoren, emakumeen ideia bikain hura gure eginez, mugagabeko itxialdia burutzea erabaki genuen. Helburuak lortu arteko mugagabea.

Mugagabeko itxialdiak eragina izan zezan, hilabetetan luza zitekeela aurreikusita, parte har-

tuko genuen guztiok goitik behera bete beharreko baldintza zorrotzak onartu genituen. Ezin izango genuen, egoera larriren bat salbuespen, ontziola abandonatu; lanposturik ordaindueneko lankideetatik hasi eta sartu berrienetara, hartutako ardurak hutsik egin barik beteko genituen; kanpokoekiko harremanen zenbatekoa eta maiztasuna asanbladetan ebatziko genuen; jan-edian kanpotik ekarriko zizkiguten; goizero-goizero, izenez izen, itxialdian geundenon izenak gogoraraziko genituen. Itxialdia arintzeko, kirol zein kultura jarduerak ezinbestekoak izango ziren. Luze aurreikusteak ez zigun denbora laburtuko; denborari ere, aurre egin beharko genion, gogor.

Herrixka bihurtu genuen burdinazko lantokia, aspertzeko asti barik joaten zitzaizkigun egunak, eguneroko eragozpen txikiei irudimen handiz erantzun guran. Euskal Herriko txoko askotatik, Espainiatik, Europatik eta Hego Ameriketatik paparra puzten ziguten elkartasunezko ehunka mezu jaso genituen. Emakumeek ontziola barrukoak beste oihartzun eragiten zuten aldarriekin aztoratzen zituzten belarri minberak. Egunero

zeharkatzen zuten Bilboko erdigunea *Euskaldunatik ez dira pasako* aldarrika. Alaba zaharrena ere, Lorea, institututik piper eginda aurre-aurrean aritzen zen, bere amari besotik helduta.

- Eztarria lakartuta duzu, Mari.

- Kantuan aritu naiz.

- Lorearekin koruan?

- Ama ere punki bihurtu zaigu, aita.

- Gangarrak gizonkeriatzat zenituztela uste nuen.

- Sistemaren kontra egitea da morrontzarik ez onartzea. Eta gainera punkia izateko ez da ezinbestekoa gangarra, ez dira gutxi gurasoenera etxeratzean mozorroa erantzten dutenak.

- Lorea, zuk ikasketei eman beharko zenieke lehentasuna.

- Zer ikasteari, aita? Espainia zein loriosa izan den ikasteari? Espainiako probintziak non dauden buruz ikasteari?

- Ikasten ari da.

- Mesedez, Mari, izango du gero ere kalean aldarrika ibiltzeko aitzakiarik.

- Joateko ordua da, atea itxi behar dizkigute bestela.

PSOEkoen asmoak geldiarazi genitzakeen uste hartan, langileen batzordeko ELAko hiru kidek mugagabeko gose-greba egitea erabaki zuten. Ondo iruditu zitzaigun CATekoei, baina ez genuen gose greban parte hartu, fisikoki indartsu egon behar genuela uste izan genuelako. Asko nekatzen du fronteko lehen lerroak zain-tzeak.

Lankideek gose greba hasi zuten eguneko goizaldean, Euskaldunan soberan geunden langileen zerrenda ekarri zigun mezulari batek. 2.243 lagunek galduko genuen lanpostua. Galduko ez zuten lankideen gehiengoa 55 urtetik gorakoa zen. Luze hausnartutako trikimailua.

UGTk ere langileon irmotasuna higatzeko estrategiarekin bat egin zuen. Bai komunikabideei bai afiliatuei bidalitako idatzian, gure itxialdia helburu politikoak lortzeko zela esan zuten, zuzenbide estatua kolokan jartzea genuela xede, ez langileon eskubideak bermatzea.

- Gure artean haserretzea lortuko dute.
- Satorrak dira, uzta izorratzen duten satorrak.

- Burua agertu ahala aitzurrarekin garbitzen zituen gure amama zenak.
- PSO Eren sindikatu bertikala da, ez dago alderik.
- Abenduaren 11ko greba egunarekin zilegitasuna galarazi behar diegu.
- Hik zer diok, Jazinto?
- Itxialdi hau eta abenduaren 11ko greba dira gure azken fusilak. Burdina urtu arte ekin diezaiozun suari.
- Eta zer hasiko gaituk, lankideak jipoitzen? Hasi hadi, hasi hadi, ikusi egin gura diat zelan jipoitzen dituan. Oraindik ez haut koktel bakarra jaurtitzen ikusi.
- Ez dira lankideak, traidoreak dira.
- Ez UGTkoentzat, ezta PSOekoentzat ere.
- Oraintxe esan duk, buruak dituk moztu beharrekoak. Guillotina prest diagu, aizkorak zorrotz.
- Isildu hadi gizona! Hitaz trufatzen dituk!
- Laster mututuko dira, laster.
- Esango didak zer darabilan eskuartean? Ez gara lagunak?



- Laguna haizelako ez diat txintik esango. Ekin egiok heurareari.

Langileen batzordeko ordezkariak itxialdia haize alde zihoala erantzuten zieten ontziolara zetozen kazetariei, greba orokorrak arrakasta izango bazuen hil ala bizikoa zela Euskaldunak borrokari gogor eustea.

Asteburuetan, elkartasuna adierazi gura zizuten guztiei aukera emateko eta batez ere etxekeekin luzaroan egon ahal izateko, ontziolako atea zabaltzeko eta era guztietako ekitaldi kulturalak antolatzen genituen. On egiten zigun itxituraren zurruntasuna apurtzeak. Geu ere ez ginen preso egoteko jaio.

- Umerik ez dut gaur arte burdinon artean ikusi.

- Olgeta ederrean ari direla dirudi.

- Lorea umea zela, Atxispe errekan behera bidaltzen genituen paperez egindako itsasontziak etorri zaizkit akordura.

- Baten bat hondoratzen ikusi zenuten?

- Ez, haiek zazpi itsaso eta gehiago zeharkatzen zituzten.

- Lorea umetatik izan dugu ameslaria.

- Eskua izerditan duzu.

- Nobiotan ere erreka bazter uher honetatik ibiltzen ginen.

- Orduan ere eskuak izerditan izaten zenuen.

- Orduan maitasun pozak eragiten zidan izerdia.

- Eta orain maitasunaren zoritxarrak?

- Erdu hona.

Abenduaren 11ko greba egunean milaka langilek egin zuten bat gure deialdiarekin. Bilbo leiho eta ate ixtea lortu genuen, Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan ere milaka izan ziren Euskaldunarekiko elkartasunagatik eta PSOEn Gobernu ustela salatzeke kalera atera zirenak, Euskal Herria industriatik gabetzeko zituzten asmoak ez genituela inondik inora onartuko oihuztatu genien milaka emakume eta gizonek. Poliziek ez zuten jendetzari oldartzeko adorerik izan, agintari zituztenak erantzunaren neurriaz jabetu zirelako. Gobernu Zibilera joan, orduetan protes-

ta egin eta piketeetan atxilotutakoak egun be-  
rean askatu genituen.

Milaka horiek biharamunean zer egingo ge-  
nuen pentsatzeak loa galarazi zidan. Bezperako-  
aren aparretan, iraultza lorgarritzat joko ge-  
nuen? Langileok boterea eskuratu genezakeela  
sinetsiko genuen? Nor bere eguneroko lanetara  
bilduko ginen bezperakoa gertatu izan ez balitz  
legez? Grebak lantzean ustebako jai egunak iza-  
teko aitzakia bihurtuko zitzaizkigun? Bezperako  
milaka horietatik zenbatek egingo zion aurre ar-  
buiatzen zuen nagusiari? Jendartearen eraldake-  
tarako ezinbestekotzat ote genuen geure burua?  
Eraginik izan ote zuen bezperako greba oroko-  
rrak? Zer da greba orokor bat pertsona baten bi-  
zitzan?

Hiru egun geroago Madrilera joan ginen PSO-  
Ekoei zenbat maite genituen belarrira esatera.  
Lau egun geroago 40.000 zalek bete zuten San  
Mamesko zelaiari itzulia eman genion. Itxialdira  
bueltan, askoz gutxiago ginen ontziolan gaua  
igarotzeko prest. Kanpoko ekintzen arrakastek  
itxialdiaren egokitasunari buruzko eztabaida  
areagotu zuten.

- Itxialdian jarraitu behar badugu, Europarainoko oihartzuna izango duen ekintzaren bat burutu behar dugu.

- Amaitu barik dagoen itsasontziaren amarradurak eten eta ibaiaren erdira bideratzea proposatzen dugu LABekook.

- Erotu egin haiz? Zelan utziko dugu tamainako petroliontzia Bilbo erdian?

- Bazakiagu komunikabideek zer zabalduko duten.

- Kaka zabaldua ere, gutxienez zabalduko ditek. Gogoan duk lehengo asteko greba orokorrari buruz idatzitakoak? Itxi zuten enpresen zerrenda baino, zabaldu zutenena goratu zitean.

- Gure borroka komunikabideek egin dezaketenaren gainera zagok. Soldatapean dituzten horiek zabaltzen dutena zabaltzen dutela, PSOEn agintzen dutenek bazakitek zertarako gai garen. Kartutxoak amaitzen ari zaizkiguk, bete-betea asmatu behar diagu.

- Bai, Jazinto, baina petroliontzia noraezean utzita, udaletxerantz joan eta zubiak txikitzen baditu?

- Eraikiko ditiagu zubi berriak.

- Ni ez nauk horren erantzule izango. Bilbotarren gaitzespena baizen ez diagu jasoko.

- Greba orokorrean garbi erakutsi zigutean bilbotarrek elkartasuna. Gure alde ditiagu, ezbairik gabe eta tinko. Ulertuko ditek Gobernua makkurrarazteko bide bakarra dela.

- Zera ulertuko dute! Lurrikara baten kalteak eragingo ditugula ulertuko dute, gerrak txikitu ez zituenak txikituko ditugula.

- Ongi da, segi dezagun inork ikusiko ez gaituen ontziola honetan itxita, betiko manifestazioak egiten. Ondo dakite goiz edo berandu, nekatu egingo garela.

- Itxialdia bertan behera uzten badugu, gure arteko zatiketa nabarmendu egingo da. Gehiengoa enplegua sustatzeko fondoetan sartuko da, gosez dagoen arrainak beti irensten du amua.

- Bozka dezagun eta kito.

Astean behin etxera joateko baimenak ematea erabaki genuen. Gabonetaraino eutsiz gero, ospakizunak etxean egiteko aukera zabaldu zen. Gose greban jarraitzen zuten ELAko hiru lankideek, bozgorailuetatik, borrokari su eta garlotzeko deia helarazi ziguten. Sindikatu handiek

euren izen ona gordetzeari aitortu zioten lehen-tasuna, sekula ez bezala. Enplegua sustatzeko fondoetan izena emateko erabakia norbanakoa-rena edota guztiona zatekeen erabakitzeko ha-serrealdi bortitzak izan genituen. 55 urtetik go-rakoek ezer gabe geratuz gero ogia zelan lortu-ko zuten aurpegiratzen zieten gazteagoei, gal-tzen ere ikasi behar dela sententziatu zuten. Izozmendiak branka arrakalatu zigun. Minbizia eskuak igurzten sumatzen nuen sabel aldean.

- Arrazoi dute: galdu egin dugu. Esku hutsik baino hobea, eskaintzen dizkiguten birrinak hartu eta etxekoekin biltzen bagara.

- Ezin diagu miseriarik onartu. Bulegoetan guri barreka hasiko dituk izu-laborritan negarrez beharko luketenak. Gure duintasuna zagok joko-an. Ezin gaituk horren erraz belaunikatu.

Bazkaloste batean, ontziolako jantokian, Ja-zintok nire egunean oparitutako liburua irakur-tzen ari nintzela, datorkigukeenaren profezia beldurgarria den George Orwellen *1984* nobela, ETBko albistegian entzun genuen: «Eguerdi on dizuela. Espainiako Barne Ministeriotik ohar bidez jakinarazi digutenez, Jose Barrionuevo

bahitu dutenak ETAkoak izan dira. Bart goizaldeko 02:15ean Bilboko Carlton hoteleko gelatik desagertu zen Barne ministroaren arrastorik ez dute. Polizia Nazionaleko Bilboko buruekin bilera egin eta Euskalduna ontziolako langileekin dituzten liskarren inguruko azterketa egitera etorri zen. Barrionuevo ministroak atzo bertan adierazi zuen, Espainiako segurtasun indarrek euren ahalgin guztiak ETA desagerraraztera bideratuko zituztela. Euskaldunako langileekin izandako liskarrei dagokienez...».

- Lanera berandu iritsi haizela esan zidatek.
- Atzo oso berandu lokartu ninduan eta gaur ez diat iratzargailua entzun ere egin.
- Eta Barrionuevorenena, entzun duk?
- Ez. Zer gertatu zaiok kabroi horri?
- ETAk bahitu egin ei dik.
- Bazuan garaia! GALekoentzat abisu entzun beharrekoa, inondik ere. Zer eskatu ditek askatzearren?
- Oraingoz ez ditek ezer eskatu, antza. Hik zer eskatuko huke?

Bizitza osoa hilabete bakarrean, tristezia bete ospitalean. Min bizi batek Lorea Urresti Arteagaren eta Luis Urresti Rekalderen arteko harremana betiko aldatuko du. Hogeita bost urtetan ezinezkoa izan dena, hilabete bakarrean. Alaba eta aita solasean: bizitzaz, heriotzaz, hil ala biziko bihurtzen ditugun huskeriez, maitasunaz.

Leihotik begira dago Luis. Etxeko zapatila granateak eta gelako zurtasuna arean epeltzen duen txabusina urdina besterik ez daroatza aldean. Azken kordela solterik, agerian du ipurdiko erretena. Loreari irria sorrarazi dio.

Luisen begiek kristalaren bestaldeko ninbo-estratuak dirudite, ez diete eguzki-izpiei igarotzen uzten. Zeruaren zati bat ere Gurutzeta gainera etorri da bizitza erreklamatzera. Ez du alabak negarraren zantzorik igartzetik gura.

- Oraintxe joan da medikua. Ezer baieztatze-ko goizegi dela esan dit. Jatorra ematen du gizonak. Euskaraz tutik ere ez daki baina jatorra ematen du. Aurreko minbizia kendu zidan zirur-



jauari buruz galdetu diot eta Estatu Batuetan da-  
goela erantzun dit, nazioarteko ikerketa talde  
batekin lanean. Badakizu, hemen nahikoa diru  
edo ospe lortzen ez dutenek Estatu Batuetara jo-  
tzen dute, emaitzarik ez duten ikerketak egin os-  
tean klinika pribatuetan dirutzak egitera. Honek  
jatorra dirudi, bai, berak ez besteren batek arta-  
tzea gura izanez gero eskatzeko aukera dudala  
bota dit, lotsa-lotsa eginda. Heriotzatik libratzen  
nauen edonor ondo etorritzat hartuko dudala  
adierazi diot, nahikoa etsai dudala minbizia, me-  
dikua ere etsai izateko.

Loreak sorbaldaren ezkerreko aldea laztandu  
dio gora eta behera. Lanbroa antzeman du aita-  
ren begietan. Amaitzen utzi dio. Luisek leihotik  
begira segitzen du.

- Baietzik ez dit esan, baina minbizi kabroi  
hau indartsu ibiliko zait barruan, bost urteren os-  
tean ernetzeko indarra bildu badu. Oraingo z be-  
harrezko era guztietako azterketak egingo dizki-  
date. Ekarri dituzu egunkariak?

- Ospitalekotik apartekorik jan dezakezun  
galdetzeko gogorarazi dit amak. Indabak presta-  
tu ditu odoloste, txorizo eta guzti. Egunkariak ez

eze liburu bat ere ekarri dizut, Joseba Sarrionandiaren *Gartzelako poemak*. Asko dakien lagun batek gomendatu dit. Gustatuko zaizula ziurtatu dit.

- Erabat identifikatuko naizelako diozu edo ospitaleko ordu amaibakootan poesia irakurtzeko gogoia ere erna dakidakeelako?

- Asko dakien batek gomendatu didalako ekarri dizut, ez dut uste ospitalean zaudela dakielako oparitu dizunik. Ekarritako bidetik eroango dut.

- Ez horixe! Asko dakien batek gomendatu badizu, irakurri egin beharko dugu. Baina zelan daki asko dakien horrek gustuko izango dudana? Egon da inoiz koloneko minbiziak jota Gurutzetako ospitaleko 211 gelan? Edo horrenbeste literatura irakurrita berak pairatu ez arren zer sentitzen den jakiteko gai dela uste du? Edo agian espetxean egona da eta ospitale batean hilzorian egotearekin parekatzen du, ospitale batean hilzorian sekula egon ez bada ere. Galde egiozu zein liburu irakurri berri duen, edo zein telebista saio dituen gustuko; baietz medikukeriak era-

kusten dituzten horietako baten zale sutsua izan.

- Liburua ez duzula irakurri gura esateko ez duzu nire laguna iraindu beharrik. Opari erosi dizu. Neuretzat gordeko dut eta kito.

- Izango duzu astia gero ere, nik ez bezala. Irakurriko ditudan azken liburuak ondo hautatu gura nituzke.

- Medikiak hil egingo zarela ziurtatu dizu? Ehuneko ehunean ziurtatu dizu ezin dizutela minbizia erauzi?

- Irakurri egidazu liburuko azken poema. Gaur zerua ere kartzelan idatzitako poemak entzuteko irrikaz dago.

Ohean eseriko balira, asko jota, lau lagun jarrita egoteko lekua legoke 211 gelan. Luisek ilobak izango balitu, lurrean ere eseriko lirateke eta orduan lau lagun baino gehiago bilduko lirateke 211 gelan. Luzaroan zutik egoteko ohiturarik ez duenak ez du ospitaleetara joateko ohiturarik, eta joaten denetan edozein aitzakia asmatzen du hogeigarren minutuan alde egiteko. Esertze-ko ohitura edo aukera dutenek luzaroago irauten dute. Batzuek ordubete ere eman dezakete eurei

ere inporta ez zaizkien kontuak kontari. Loreak jakin badaki, batez beste hamar ordu emango dituela egunero 211 gelan. Amak bulegoak garbitu behar dituenetz, gauetz baizen ezin du aitarekin egon. Iluntzeko 20:30ean bukatzen ditu garbiket lanak. Etxera joan, afaldu, autobusa hartu eta ospitalera. Amaiak astea Donostian igarotzen duenez, asteburuetan egiten ditu ospitaleko txandak.

Bizkarrezurrak besaulki beltzarekin bat egiteko beste egun emango dituen galdetzen dio bere buruari Loreak, gauetz lorik hartu ezinik egunez besaulki deserosoa izango ote duen ohantze. Umetan, gauerdi askotan, oin puntetan amaren eta aitaren oheko babesera egiten zuela gogoratu du. Umea izan den edozeinen oroitzapena dela iruditu zaio, ospitaleko oheetarako estuegia den oroitzapena.

Aitarentzako *Gartzelako poemak* liburuaz gain, beretzako *Metxa esaten dioten agirretar baten ibili herrenak* ekarri du.

- *Gartzelako poemak* liburua oparitu dizun berberak gomendatu dizkit. Euskaldunaren alde borrokatu zinetenak ere agirretarrak zaretela

dio. Harritzekoa, ez nuke esango sua pizteko moduko odolberoa zarenik.

- Zuk ez dakizu ezer nitaz, ez nauzu ezagutzen. Etxean ezagutu duzun aita ez da naizena-  
ren erdia ere. Neu nintzen polizien kontrako bo-  
rroketarako beharrezko guztiaz arduratzen zen  
taldeko burua. Neuk erosten nuen kokteletarako  
gasolina. Neuk erakusten nien burkideei zapiak  
busti, su eman eta txakurrei jaurtitzen. Hodien  
barruetatik norabidetzen genituen ehunka suziri  
lortuta ezkutuan gordetzeko ardura neurea zen.  
Ehunka metxari eman die su aurrean duzun giza-  
jo honek.

Besaulki beltzean eseri da Lorea. Luisek  
leihotik begira segitzen du, eskuinetara. Autoak  
ziztu bizian doaz A8an. Autopistaren erdian jarri-  
ta, banan-banan geldituko lituzke, leihatila jai-  
tsarazita gidariak ohartzeko: «Azkarregi bazoaz  
gazteegi sortuko zaizu minbizia».

- Egunon aita. Ondo egin duzu lo? Irrati txiki  
bat ekarri dizut, gauetan lorik hartu ezin baduzu,  
besteen miseriek kontsola zaitzaten. Egunkarie-

tan ere bada zer irakurri. Badakizu Buesaren azkenena? Euskara baino ingelesa irakatsi behar dela bota du.

- Barkatu atzokoagatik. Lar gogor egin nizun berba. Ez dut uste onik aterako naizenik. Eta orain arte kontatu ez dizkizudan guztiak kontatu gura dizkizut, ondo baderitzozu.

Besaulki beltzean eseri da Lorea. Leihotik begira hasi du kontakizuna Luisek:

- Ez nuen gura pairatzen ari nintzen saminak zuek ere usteltzerik. Euskaldunakoa gerra zen. Borra kolpeak, gomazko pilotakadak, lankideen begietan izua. Egunero, hilabeteetan. Etxea nuen babesleku bakar. Etxera helduta kanpoko guztia ahaztu gura nuen, gertatu ez zela sinetsi, biharamunean errepikatuko zela ahantzi. Ezin nuen beldurra hezurretatik erauzi. Aldean nerotan uneoro. Zuekin beste gai batzuei buruz berba egiteak lagunduko zidala uste nuen, etxean nengoen artean salbu egongo nintzela. Betiko lagunekin tabernarik taberna ibiltzeari ere utzi egin nion, gatazka sasoirik gordinenean ontziolakoa beste gairik ez generabilelako. Bihotza lehertu beharrean, kirioak arin-arin dantzan, estutasu-

nak nagusi ziren egun haietan. Arazorik gabeko pertsona izan gura nuen, inguru hurbiletik kanpokoari jaramonik ere egiten ez ziotenen antzerira bizi une batez bederen. Ez zitekeen horren gatxa.

Aurrez aurre dagoen eraikineko zazpigarren solairuko leihora andere ile zuria agertu da. Ezkerretara begiratu du. Eskuinetara. Behera. Ogi birrinez beteriko mahai-zapia astinduta, etxean barna ezkutatu da. Ez da txoririk inon ageri. Antxetek ez bide dute gaixotutako haragirik jaten, ez bizirik dauden bitartean. Ogi-birrin gehienak hiru hilabetez ingresatuta daroatzan andre baten senar burusoil langabetuaren gainean erori dira.

- Gure aita zena CNTkoa zen 36ko gerra hasi orduko ere. Gure amak, bost seme-alabak hartuta, zortzi hilabete eman zituen kartzelarik kartzela senarraren bila, Bartzelonakoan topatu zuen arte. Hezurrek gaina hartzen zioten aitaren azalari. Oso gogoan dut, kartzelatik irten zenean ez genuela ezagutu. Hil zen artean sano gutxitan hitz egin zuen gerraz; baina berba egin zuen guztietan, goseak ia akabatu zuela errepikatzen

zuen. Zentzua galtzeraino torturatu zutela kon-  
tatu zigun amak. Berak bizitakoa bizi ez gene-  
zan, muga zorrotzak ezarri zizkigun aitak.  
Etxean ezin genuen politikaz solas egin; mani-  
festazioren batean parte hartu genuela jakinez  
gero, ez zigun etxean sartzen utziko. Aurre egin  
genion apurretan, begiak sutan oihukatzen zigun  
ez ginela nor mundua aldatzeko, guk bakarrik ez  
genuela deus irauliko, etxekoez arduratzeko eta  
kanpokoena ahazteko, nor bereak konpondu  
behar dituela.

- CNTkoa, burgesen antzera, bere zilborrari  
begira?

- Ez ezazu 36ko kartzeletako egoera 86ko-  
kin alderatu. Zuen ziegak luxuzko ostatuetako  
logelak ziren aitonaren bizileku izan ziren txerri-  
toki haien parean. Presoak, euren besoei hagin-  
ka egiteraino erotzen ei ziren. Harriak eta haize  
hotza, besterik ezin ezer jan. Kartzelerogandik  
jasandakoak gizakiarekiko sinesmen oro ezabatu  
zion. Engoitik ez zen pertsonen alde borrokatu-  
ko.

- Baina zu ontziolan sartuta atoan hasi zinen  
sindikalgintzan.



- Ez zen berehalakoan izan. Aitak ez zidan berehalakoan baimenik eman. Bost bat urte eman nituen ontziolatik etxera eta etxetik ontziolara aitaren gerizpean. Orduko hamahiru urteak gaurko hogeiren pareko zitezkeen arren, ume mokoa nintzen aitari aurre egiteko. Bestalde, sindikalgintzan baino, sindikalisten morroi aritu nintzen hemezortzi urteak bete osteko lehen hamarkadan. Neure iritziak kolkoan gorde-ta taldearen zurrunbiloan murgiltzea erosoagoa zen. Lankide nagusiagoen berba-jarioa nekagarria zitzaidan, kontzeptu gehienak formula kimikoak baino ulergaitzagoak ziren, oihukatzen nituen aldarri askotan ez nuen pentsatu ere egi-ten, ez nituen neure sentitzen. Gizon haien au-sardiak liluratzen ninduen, indarrak, adoreak. Talde bateko kide izatea, erreferenteak izatea, babesa da, are gehiago Francoren diktadura-pean.

- Gaur egun ere hamaika dira taldean oilar eta bakarrean koldar. Gizonok berezkoa duzen jokabidea da.

- Emakumeak ere harroago aritzen zarete taldearen abaroan.

- Lagunartea eta taldea ez da gauza bera. Emakumeok elkartasunak biltzen gaitu.

- Euskaldunakook erakutsi genuen elkartasuna berdintzen lanak izango ditu asko ahalegintzen denak ere.

- Amak eta gainontzeko langileen emazteek, koktelik jaurti barik, buztana hankapean bidali zituzten poliziak, bata bestearen besotik oratuta, bularrak tinko, paparra puztuta. Zuek urteak zeneramatzen egunero besorik beso zortzi ordutik gora lanean. Zuen emazteak hilabete bakarrean bihurtu ziren harresi.

- Barkatu, ez nuen epikotasun kiratsik zabaldu gura.

- Ez egidazu barkamenik eskatu, aita. Ederto dakizu nire lagun Bego eta biok izan ginela ikasleen artean borrokalari kementsu eta izukaitzenak.

- Hamazazpi urterekin, 80ko hamarkadan, Bilbon, mozorro bakoitzeko zazpi heroi zegoen. Kontaezinak izaten ziren zazpigarren ardotik aurrera tabernetan pilatzen ziren iraultzaileak. Zu beste bat baino ez zinen.

- Berandu orduko hiru-lau txaloko eman bazenizkit, apal-apal jaitsiko nintzen lainoetatik.

- Zuen amarengan konfiantza osoa nuen.

- Zurea bai azal lodia!

- Ez naiz sentitzen dudana esateko gai, bada-kizu, zerbaitek eragozten dit pentsatzen dudana berben bitartez azaltzea. Batzuek erraztasun itzela duzue horretarako, barruak asaskatzeko ez duzue ezelango zailtasunik. Zuen ama iaioa-goa da horretarako.

- Beharko! Orain etorri-etorrian zabiltzan antzera, orduan ere ahalegina egin izan bazenu...

- Orduan ez nekien hilko nintzenik. Ez dago heriotzaren pareko ezintasunik.

- Zirujauak ez du horrelakorik esan, ez zaitezela amaren besteko ezkorra izan. Probak egingo dizkizutela da ziur dakiguna, ez besterik.

Luis ohean etzan da. Bekokia ilun zutundu da Lorea. Izerdiak itsatsi duelakoan, besaulki beltzari erreparatu dio. Bizkarrezurraren moldea hartu du. Ezker aldera egiten duen mendilerroa dirudi. Ospitaleko besaulkian elurra ari duela imajinatu du Loreak, elur egin berrian pausoa eman gurarik, gerriraino sartzen duela hanka.

Metro gutxi batzuk egiteko orduak eta orduak emango lituzkeela begitandu zaio, tontorrera iritsi orduko nekeak lehertuko lukeela.

- Borrokarik latzenak izan genituenean, batzuetan, irabazi egingo genuela erantzuten nion neure buruari. Sinetsi egiten nuen, polizia baino gerrarako soldadu haiei gailentzen bagintzaizkien, irabazteko gai izango ginela, ez gintuela ezerk geldiaraziko. Besteetan, beldurrak ezkor bilakatzen ninduen.

Luisen gomutak kristaletik hara doaz, zortzigarren solairuko buztinezko lorontzietara. Andere-belarrek balkoiko barroteak estaltzen dituzte. Zuriak, horiak eta gorriak.

- Ikarak etsiarazi egiten zaitu. Argudioak asmatzen dituzu ausardia eza justifikatzeko. Eta, azkenerako, amore eman duzu.

- Bizitzeko aukerarik duzun ez badakizu ere, amore eman duzula diostazu.

- Barruak diost. Galdu egin dut.

Erizainak azpil arre batean dakar afaria. Barazki-purea, oilasko egosia eta madari errea. Luis ez

dago ez pozik ez triste. Hilko dela dakienarentzat jateak garrantzia galtzen duela irudikatzen du bere aldarreak. Ospitaleko ordu amaigabeak arintzeko beste aitzakia bat baino ez da jatea.

- Eta, noiz egingo naiz aitona?

- Bizitzeko gogoa itzuli zaizu.

- Erretiroa hartzen dudanean neuk eroango dut goizetan eskolara eta arratsaldeetan futbole-rako entrenamenduetara.

- Noiz edo noiz emakumezkoak ere jaiotzen direla entzun dut.

- Bai, noski, berdin maitatuko dut, neska zein mutil. Baina aukeran gurago mutila.

- Amaiak eta biok sortu ez dizugun harrotasuna senti dezazun, ezta?

- Etxean hiru emakume nahikoa direla eta lubakikidea gurago dudala besterik ez dut esan.

- Gurekin egindako hanka-sartzeak ez errepikatzen? Hori neskabila izanik ere egin zenezake.

- Zeri deritzozu hanka-sartzea, nire sufrimendua zuekin ez partekatzeari? Egunen batean ama bazara, gogoratuko duzu gaur berba egindakoa eta arrazoirik ez zenuela onartuko duzu. Norberaren umeak min guztietatik babestu gura

izatea gurasoen berezko sena da, ez hutsegitea. Pertsona hobeak zinateketen nire saminaren berri jakin izan bazenute? Zertan lagunduko nindukezuen, lan berria bilatzen? Solchaga edo Barrionuevo edo Jaurlaritzakoekin negoziatu eta Euskalduna ez ixtea lortuko zenuten?

- Orain askatu dituzun antzera lehenago ere ezpainak askatu bazenitu, barruak lasaiago zentuzkeen, koloneko minbiziak ez zukeen bazkarik. Zeuretzat gorde duzun auhen bakoitza, barrura isuritako malko-jauziek, hesteetan gora eta behera erabili duzun herra, minbiziarentzako oturuntza paregabea izan dira. Amak aspertzeraingo errepikatzen zizun, baina hari ere ez diozu kasurik egin.

- Zuen amak ahoskatu duen berba bakoitza gogoetagai izan da beti niretzat. Baina hori ez da nahikoa. Izaera eta nortasuna errotuta nituen zuen ama ezagutu nuenerako. Hori ez da horren erraz aldatzen.

- Arrazoi duzu, aldatu beharraz konturatu behar da, hasteko.

- Hil aurretik aitona izan nahi nuke.

- Amaiari eskatu beharko diozu.

- Umeak gogoko dituzula uste nuen.

- Horrek ez du zerikusirik ama izatearekin.

- Eta zerk du zerikusia ama izatearekin? Guri eman diguten aukera beste batzuei ematean datza, erreleboa ematean.

- Umea munduratzea ardura saihestezina da. Orain beste engaiamendu batzuek bizitzen naute.

- Hamahiru urte nituenetik eguneko ordurik gehienak lanean eman ditut eta, hala ere, bi alaba hazi ditut.

- Zure emazteak izango zuen meriturik.

- Ederto ulertu didazu. Mundua konpontzea eta ama izatea bateragarriak direla esan gura nizun.

- Zuk esan barik ere ondo dakit. Zer uste duzu egiten dugula emakumeok gizonok mundua kakazten duzuen bakoitzean? Garbi-garbi uzten ahalegindu.

- Matxistatzat naukazula jakiteak min ematen dit.

- Batzuetan zintzotzeak mina ematea dakar.

- Gaitz erdi, orain nire urteetako isiltasunaren zergatiaz ohartu zara.

Aurreko egunetan ez bezala, zerua oskarbi ageri da 211 gelatik hara. Aurrez aurre dagoen zortzi solairuko etxebizitzaren teilatupean elaiak habia egiten hasi dira.

- Ikusten dituzu elai horiek? Bertoko negua Afrikako epelean igaro ondoren, udaberri eta uda igarotzera itzultzen dira Euskal Herrira. Askok eta askok, jaio zireneko baserri atari edo teilatupeetarako bidea gogoratzen dute. Amagin-aitaginarrebak ezagutzera joan nintzen egunean, Areatzako karrajuan barrura eta kanpora ziztu bizian hegaldatzen zirela akordatzen naiz eta Pantxikek eztitsu egiten zidala ohar: «Kontuz, ez itzazula ikaratu».

- Neuk ere gogoratzen dut, amama Pantxike udaberritan zain egoten zela eta, berandutzen baziren, arduratu egiten zela, negua udaberrian luzatuko zen seinalea zelako eta horrek soloan eragin kaltegarria izan zezakeelako.

- Eskukada bat lur eta adartxorekin horrelako habia eraiki daitekeela sinestea kosta egiten da.



- Aldi baterako bada, kumeak hazi eta abandonatuko badute, zertarako alferreko ahaleginak egin? Etxearekiko menpekotasun gehiegizkoa dugu hankabikook.

- Etxea lantokia izan da euskaldunontzat. Sustraiak dira, finean.

- Pisu ziztrin batean bizi gara, aita; lau horma uher horiekiko lotura afektiborik nahita ere ezin liteke gorde. Areatzan biziko bagina, akaso.

- Hormak uherrak edo urrezkoak izateak ez dio ardura, barruan bizitakoak lotzen gaitu.

- Elaia naiz, neu ere, orduan.

- Gure etxeak oroitzapen txarrak dakarzkizu? Umetan ez zinen zoriontsua izan? Ez dituzu gومتan neguko zenbat arratsalde igarotzen zenituzten Amaiak eta biak etxean ezkutatzera ogetan? Edo zenbat arineketaldi egiten zenituzten pasilloan aurrera eta atzera harrapaketan?

- Umezaroan zoriontsua izatea erraza da. Oroitzapen lausoak dira gehienak, zehaztasun bakoak. Oraintsuagoko oroitzapenak dira balio dutenak eta horiek ez didate irrikik sorrarazten.

- Nerabezaroan gura izan duena egin duena-rengandik horrelakoak entzun beharra ere.

- Hori berori. Ez zara konturatzen lo egiteko baizen ez nintzela etxeratzen?

- Zuen amak eta biok sekula ez dizuegu mugarik ezarri.

- Bazenekitelako arduratsuak ginela, ez genizuela atsekabe larregirik eragingo. Etxean ez genuen arazorik, dena zen egokia, zuzena. Liskarrerako zitezkeen berbagaiak ekidinda, liskarrik ez.

- Gurago zenuen egunero matrakan aritu.

- Bidea erakustea gura nuen, 80ko hamarkada hartan, Bilbon, zirimolak irentsi egiten zintuen. Garaiz konturatu ezean, heroinak betiko eroan zintzakeen edo Indian amai zenezakeen lebitatzeko edozer hartzen. Etxetik argiontzi eta guzti atera izan banintz, errazago aurkituko nukeen ildoak. Eskerrak Fanoni.

- Gure Fanon, bizitza osoa bakardade gorrian bizi arren, eredutzat hartu dugu familiako bik gutxienez.

- Etxekoon arteko bizikidetzari buruz eman dizkidan aholkuei ez diet egundo kasu zipitzik egin. Buruan politika beste ezer ez duen mutilzaharra da.

- Jaioberriak amari legez jarraitu diozu ba!

- Eta noren itzala izango nintzen, zurea, tabernarik taberna? Politikari buruzko argibideak gura nituen, Euskal Herrian gertatzen zena ulertzeko gakoak. Pertsonak arrazoi politikoengatik hiltzen zituzten, torturak sistemolikoak ziren, polizia jazarpena itogarria. Ezin nion gertatzen ari zenari atzea eman, eta talaiak eskatzen ari nintzaizun. Ezkutatzen zenigun guztia zen behar nuena.

- Nahita ere ezingo nizkizun eskatutako argibideak eman. Behargin gizajoa besterik ez nintzen, Leninen pareko gidariak izatea amesten zutenen jarraitzaile isila.

- Orain ere zeure burua gutxiesten ari zara. Herenegun harro aitortu zenidan hilabeteetako borroketan gerrillaburu izan zinela.

- Hori herenegun izan zen, gaur ez daukat epopeietarako gogorik.

- Bizitza osoa eman duzu sindikalgintzan, urteetan ikasitakoaren nirekin konpartitzea horren mingarria suertatzen zitzaizun?

- Sindikalgintzak poz beteak zein estutasun antzuak eman dizkit. Zer irakatsiko nizuen, ni neu ikasten ari nintzen-eta!

- Borrokatzeak ez zuela merezi esan bazenit, aurka egingo nizun arren, eskertuko nuen. Gutxi-rekin nahikotuko nintzen.

- Nik ez dut egundo esan borrokatzeak merezi ez duenik. Derrotak garaipenak baino gehiago izan daitezkeela diotsut orain, garaipenen bat lortu orduko jasotako porrotek amore ematera behartu zaitzaketela. Egun handiak dira gogoan iltzatzen direnak, baina egun latzetan pairatutakoek osatzen dute gure izaera. Euskal Herrian egun beltzak argiak baino askoz gehiago bizi izan ditugunontzat mingarria da hanka-sartzeetatik irakaspenak erauztea.

- Euskaldunakoa ez zenutela galdu, irabazi egin zizuetela esan zenion behinola amari.

- Neurri berean borrokatu izan bagina irabaziko genien. Baina Euskalduna desagerrarazi egin zuten eta oroitzapen horixe da galduko dena. Galtzaileen oroimena bi belaunalditan gal daiteke.

- Horra irakaspena, oroitu zaitzaten baizen ez bada ere, irabazi egin beharra dago. Ez da epopeia, tragedia da, grekoa, Akilesenaren parekoa, gutxienez.

- Kakatzarra! Irakaspen mingarriena hauxe duzu: indarkeria erabiltzen dutenen aurka indarkeriarik erabili ezean jai duzu, galdu egingo duzu beti!

- Desobedientzia zibilak etsairik armatuena garai dezake.

- Ez dut sekula ahaztu zure lagunik minena zela Bego, harekin ikasi zenituela borroka bide berri horiek, eta mundu solidarioago baten ilusioa piztu zitzaizuela. Baina horrek guztiak heriotzara amildu zuen kolpetik, gazte izaten hasi orduko. Martiri izateko umeegi.

- Sinesten zuena defenditzeko hil zen! Heldu koldar, kakati, kikil gehienek ez duzuen adorea erakutsita! Haren pareko dozena batekin ez zegokeen Euskalduna desagerraraziko zuenik ezta Euskal Herria makurraraziko zuenik!

- Adurretan odola zerien poliziak ezagututa, zuen desobedientzia ekintzaren aurrean txaloka hasiko zirela uste zenuten? Gure aurka berunez-

ko balak erabiltzen ari ziren, greba eguna zen, edozer gerta zitekeen.

- Ederto ikasi duzue gidoia amak, Amaiak eta hirurok. Gure errua izan zela sinetsiko dut azkeneko.

- Begok bazekien, ordura arte Euskal Herrian ezezaguna zitzaigun desobedientzia zibilari aurre egiteko, estatuak edozer egin zezakeela. Bazekien mukizu batzuek eginagatik okerkeriatzat har zezaketela, eta oso presente zuen litekeena zela gogor erreprimitzea. Deman egingo nuke Begok ondoriorik txarrenetarako prestatu zuela bere burua, edozer hartzeko gogortu zela. Ez zizun aitortu, erabili egin zintuen. Itsutu egin zintuen maiteminak.

- Zuengatik berdin jokatu nukeen.
- Ez zenuen jokatu, ostera.
- Ez zenidaten aukerarik eman.
- Ez, Begok eman zizun.

Ospitaleko gelatik pasillora irtenda, goizetan ordubete eta arrastietan beste ordubete ibiltze-

ko erabakia hartu du Luisek. Sei metroko luzera eta lauko zabalera ditu 211 gelak.

- Zer, kobazulotik ateratzea erabaki duzu? Udaberriak esnatu zaitu lozorrotik?

- Plastikozko loreengatik diozu? Diru eske etorri ziren ez dakit zein elkartekoei erosi nizkien. Usteltzen hasi dira eta zakarrontzira botako ditut.

- Usteldu baino erre esan gura izango duzu, plastikozkoak badira. Erretzen direnak hauts bihurtzen dira, haizeak eroaten ditu. Ustelak edozein zomorrorrentzako jana dira, bizitza luzatzen dute. Martin naiz, 212 gelako zure auzokoa. Minbizia dut gibelean. Laster hilko naiz.

- Luis, koloneko minbizia. Bigarrena bost urteren buruan.

- Metastasirik?

- Ez didate baietzik esan.

- Ezetzik ere ez. Metastasia duzu.

- Medikua zara.

- Gibelean sortu aurretik, neuk ere kolonean izan nuen minbizia. Laurogeita lau urteotatik hiru bat urte ospitale batetik bestera eman ditut berrogei bete nituenez gero. Buruz dakit medi-

kuen hizkera. Esaten ez dizutena ulertzea lortu behar duzu. Gerta daitekeen edozein ezbeharren aurrean, erantzukizuna saihesteko moduan berba egiten irakasten diete, egin dezaketen edozein hanka-sartze zuritzeko diskurtsoa garatzen dute. Lanean hastearekin batera nortasuna zein hizkera ospitaltzen zaie. Ibiltzeko modua ere, larri-larri.

- Nirekin zintzoak izaten ari direla iruditzen zait.

- Hiltzera doanak bi jarrera har ditzake: edo zer barkatzekoa edo ezer ez barkatzekoa. Ezagun da zuk zein hautatu duzun.

- Eta zuri ezer ez barkatzeak zein onura dakarkizu?

- Gura dudana esaten dut, etorri ahala. Bota-ka egitearen parekoa da, indartsu datorkizu eta ezin duzu kontrolatu. Bota ondoren gustura geratzen zara.

- Bilboko Gaztetxean ibiltzen ziren punkien gisa mintzo zara.

- Gaztetxeetan ibiltzen zara? Hirurogei badi-tuzula egingo nuke apustu.



- Duela hilabete bete nituen, martxoaren 29an. Alaba Gaztetxeko ohiko bizilaguna zen eta hari entzundakoengatik dakit.

- Gerra bizi izan dugunontzat punkiak arku-meak dira. Horietako gehienek gosea zer den ere ez dakite. Guk harriak xehatuta jaten genituen frankisten kartzeletan.

- Gure aitita ere kartzelan egon zen luzaroan. Esteban Urresti zuen izena. CNTkoa zen.

- Ni *Gernika* batailoian ibili nintzen, Kepa Ordoki komandantearen esanetara. Espainolen eta nazien aurka borrokatu nintzen. Hitler kumeei Pointe-de-Graven aurre egin zienetakoa naiz. De Gaulleren esker hitzak entzun zituen euskaldun bakarrenetakoa duzu berbalagun.

- Ni Euskalduna desagertzearen aurka borrokatu ziren langileetakoa nauzu. Polizien esker ona jaso zuenetako bat.

- Hogei urte gutxiago eta neure iskilu zaharra eskuartean izan banitu, suaren gainean dantzaraziko nituen. Guretzat nahikoa zen baten bat *Eusko gudariak gera* kantatzen hastea, beldurrak uxatuta handienak txikitzeko.

- Guk *Eutsi gogor* genuen; baina euskaldun gutxi ginen letrak dioena ulertzeko, eta rock zale gutxi.

- Niri galtzeak ez zidan minbizirik ernatu. Hiltzeko gogoia nuen, ez nekien nola eta minbizia sortu nion neure buruari.

- Luzaroan zaude ospitalean, Martin? Zure adinerako hogeita lau urte ditut faltan. Ez nioke neure buruari horrelakorik egingo. Andrea eta alabak ditut. Euskalduna desagertuta ere, aurrera egin nezake.

- Metastasia baduzu ez duzu hilabetea amaituko.

- Eskerrik asko berriketaldiagatik, asko pozten nau zu ezagutu izanak. Laster alaba etorriko da eta aurpegia garbitzera noa.

- Maite duzu pintura? Ezagutzen dituzu Rembrandten koadroak? Duela hamar bat urte Hagan izan ginen, bake-konferentzia batean gure gerra ibilerak kontatzen. Azken egunean turismoa egitera eroan gintuzten parlamentu ondoko museora. Orduan ikusi nituen, lehen aldiz, Rembrandten koadro erraldoiak. Ezagunenetako batean, doktore bat ageri da autopsia lanetan.

Museoko gidariak zehatz azaldu zigunez, XVII. mendean, Amsterdamen, ohikoak ei ziren zirujauen gremiokoek antolatutako anatomia eskola publikoak, ondo ordaintzen zutenentzat. Rembrandti autopsiaren berri koadroan jasotzeko enkargua egin zioten. Autopsia batean gorpua zabaldu egiten zuten, txikitu, desitxuratu. Ni baino handiagoa den koadroari begira nengoela, anatomia eskolarako baliagarria zen eskola hartako ikasleek, gaizkile batena omen zen gorpuari orde, liburu bati begiratzen diotela konturatu nintzen, Rembrandtek bakarrik erreparatu ziola gorpuari.

- Mesedez, Martin, oraintxe ezagutu dugu elkar, ez egidazu irakaspn merkerik eman. Ez daukazu senitartekorik gezur ederrok kontatze-ko?

Lorea arnasestuka sartu da gelan. Leihotik begira dago Luis. Kumuluninbo erraldoia ageri da ospitalearen gain-gainean.

- Egunon, aita. Etxetik euritako barik atera naiz eta, auzoko Milak ekaitza datorrela esan di-

danean, konturatu naiz giltzak barruan ahaztu ditudala. Ama garbitzen dagoen bulegora joan behar izan dut, etxera itzuli, giltzak hartu, amari bereak bueltatu eta autobusa galduta hurrengoari itxaron. Norekin haserretu zara?

- Alboko gelan istorio itzelak asmatzen dituen agure zoroa dago. Pasilloan ibili gura nuen, baina gelako atea itxi orduko lagun minak bagina hasi zait heroinen balentriak kontatzen. Hitler bera makurrarazi zuela, ez dakit zein margolari ospetsuren koadroak ez dakit zer adierazten duela... Nigan ezezaguna nuen adorea bildu eta zakutik hartzera bidali dut. Medikurik jakitunena antzo, hilabetea amaitu aurretik hilko naizela bota dit, berak minbizia sortu ziola bere buruari bizitzeaz nazkatu delako...

- Berbalaguna baizen ez zuen gura izango. Bakarrik egongo da.

- Hilko naizela badaki, ulertuko du ez dudala geratzen zaidan bizitza apurra ezezagun baten txorakeriak entzuten xahutuko.

- Txorakeriak badira hobe ezagunenak entzutea, ezta? Ez zaitezela bat-batean krudel eta bihozbako bihurtu.

- Norberak jakitea nahikoa da. Ez dut beste inork hilko naizela gogoratzerik behar. Are guxtiago agure arrotz batek. Barrenak husten ari naiz, minbiziari hesia jartzen. Horixe gura duzue, ezta?

- Agure horrek esandakoak mindu bazaitu, zergatia ulertzea dagokizu, ez iraintzea.

- Hilurren nagoela ez naiz psikologoarena egiten hasiko.

- Arrazoi zuen Milak: ekaitza etorri da, haize-hego eta guzti. Kanpoan ginela medikua etorri zaizu hil-eguna zehaztera?

- Zure amaren gero eta antz handiagoa duzu. Zuentzat erraza izango da aldartea egonkor mantentzea. Niretzat ezinezkoa da.

- Borrokatzea da. Zu aditua zara horretan.

- Ikusten ez den etsaiaren aurka ez dut egundo borrokatu. Ez dakit noiz, zelan edota nondik erasoko nauen. Eta okerrena dena, bakarrik nago borroka honetan.

- Hara heroien balentriak entzun gura ez zituena. Gogora dezazun, lana utzi dut zure alboan egoteko. Ama, egun osoa bulegoak garbitzen eman ostean, gauero zure ondora dator besaulki

ezin deserosoago honetan lorik ez egitera. Ez diguzu eskatu eta hemen gauzkazu. Zoaz agure horrengana eta esan barkatzeko, bide batez zeure buruari ere barkatuko diozu-eta.

- Egunen batean ama bazara emango dituzu aginduak. Oraingoz aitarengandik jasotzea dagozkizu. Ez daukat inori barkamenik eskatzeko asmorik, ez naiz ezeren errudun.

Gelako atea jo dute. Medikua hamar minutu barru ikustatuko duela jakinarazi die erizainak. Luisekin berba egin ondoren senitartekoekin mintzatuko da. Erizainaren aurpegiak adierazi duenagatik ez dago jakiterik berri onak edo txarrak izango diren. Hoztasun horrek urduritu egin ditu aita-alabak. Sartu da medikua. Lorea, aitararen besoa estutu eta, gelatik irten da. Pasilloan agure bat dabil bakarrizketan.

- Jauna, seruma amaitu zaizula uste dut. Deituko diot erizainari?

- Ez da seruma, morfina da. Eskerrik asko, neuk abisatuko diot. Beste ordu pare baterako minak arintzeko lain badaukat. Luisen alaba

zara, ezta? Heriotzari aurre egiten lagunduko dion norbaiten premia larria du. Izututa dago.

- Eta zu Martin zara, suizidatzeko bere buruari minbizia sortu dion agurea. Ez dakit zehatz zer esan diozun gure aitari, ezta berak zer erantzun dizun ere, baina ezezaguna egin zait aitaren haserrea. Ezagutzen ez nuen pertsona gupidagabea bihurtu duzu.

- Entzun gura ez zituenak esan dizkiot.

- Eta zergatik hil gura duzu zeure burua?

- Hasieran, zahar etxean abandonatu nindutenekiko mendekuz, ahalik eta luzeen biziko nintzela erabaki nuen, abandonatu nindutenei erruduntasun sentimendua desagertu ez zekien. Gero, bakarrik borrokatzeak zentzurik ez duela pentsatu nuen, berdin izango zirela zoriontsu ni barik.

- Urkatu, eskopetarekin tirokatu, leihotik behera bota... hiltzeko era ugari dago.

- Azken egunak ospitalean emanaz gero, bisitan etortzeko derrigorra sentituko zutela uste izan nuen; hilzorian ikustean, egindakoaren damuak loa galaraziko ziela.

- Ez zaizu inor etorri. Abizenak ez du familia bermatzen.

- Etorri ziren, bai, baina medikuen azalpenak entzun, burutik eginda nagoela oihukatu eta alde egin zuten.

- Medikuari sekretua kontatu ez bazenio...

- Laguntzeko egin nuen. Milioiak eta azpiegitura garatuenak erabili arren, koitaduok ez dute oraino konprenitzen minbizia zerk sortzen duen.

- Milaka pertsona salbatuko zenituela eta agian norberak sortutako minbizia zure izenez bataiatuko zutela uste izan zenuen.

- Ahaztu egin nuen, horrelakoetan medikuek gaixoari egia erdia esaten diotenean, senitartekoei egia osoa aitortzen dietela.

Zirujaua 211 gelatik irten da. Txabusina zuriaren poltsikotik zapia aterata, bekokiko izerdia lehortu du. Esku biek ino handi bati eusten dio.

- Egunon, zelan dago gure aita?

- Biopsia egingo diogu, kolonean sortutako adenokartzinoma beste organo batzuetara zabaldu den jakiteko.

- Sendatuko da?



- Proben emaitzak izan arte ezingo dugu askorik jakin.
- Eskanerrak ez dizue ezer argitu?
- Ez da %100 zehatza. Kolonoskopiak argi erakutsi digu hesteak erabat hartuta dituela. Gibelaren inguruan dauden osterantzeko organoak kutsatu dituen jakin behar dugu.
- Minbizia sortu zitzaien lehenaldian, heste zatia moztuta erauzi zenioten.
- Metastasia bada, ez diogu ebakuntzarik egingo. Alferrekoa litzateke, ez legoke zereginik.
- Zer esan diozu aitari?
- Proben emaitzak jakin arte ezin diogula ezer baieztatu.
- Eta berak?
- Badakiela hil egingo dela.
- Loreak albora begiratu du, Martinen begiek *utsi* erantzun diote. Medikua 212 gelan sartu da.
- Itxaron egin beharko dugu, beraz.
- Bai, heriotzari.

- Entzun diozu medikuari, proben emaitzen berri izan arte, ez dago ezer ziurtatzerik.

- Zeuk ere ederto baten dakizu medikuaren begiek, esku zein bekokiko izerdiak, itxaropen zantzurik ez dakartela. Esaten dizutena baino, esaten ez dizutena ulertu medikuei.

- Benetan diostazu. Itxaropena da galtzen azkena.

- Ez, arnasa da galtzen azkena. Itxaropena itxarotea besterik ez da.

- Borrokatu gaitezen elkarrekin, aita. Amak, Amaiak eta hirurok bat egingo dugu zurekin.

- Minbizi hau neurea da, ez diot utziko zuetako batengan ernetzen. Erdu hona, besarka nazazu.

Hamar urtean zain egon den besarkadak malkotan leherrarazi ditu aita-alabak.

- Bihar koadernoak eta boligrafoak ekartzea gura dut. Isilduta gordetakoak idatziko ditut. Auzoko zoroari kasu egitera, bi aste eskas ditut.

- Pozik entzungo ditut esateko dituzunak.

- Idatzita zorrotzago, doiago, txukunago azaleratuko dut esan gabeko guztia.

- Amesgaiztoak ere bai? Gauetan izerditan esnatzeko ikaragarriak izango ziren.

- Kontatzeko ausardiarik ez nuen guztia kontatzen zizuen Marik.

- Ordu txikitan etxeratu nintzenetan, sarritan aurkitu nuen ama egongelako besaulkian jarrita, zapia eskuetan, begiak beteta. Dena eman dizu amak, baita malkoak ere.

- Besarkadaren ostean labankada, zu bai alaba zu.

- Ez zaude bakarrik, ez zara sekula bakarrik egon.

- Badakit. Behar bezala eskertu barik hiltzeak samina areagotzen dit.

- Emazkiozu orain arte ukatu dizkiozun lazta-nak.

- Nire izaeraren ondorioa zen, umetan ez ziguten elkar ukitzen erakutsi. Ukatzea aurrez pentsatuta burutzen da.

- Amaren bihotz erdiratuaren osasunerako, zure izotzezko izaera hori aldatzeko saiakera egin zenezakeen.

- Askotan errepikatuagatik, goizetik gauera ez naiz bihurtuko maitekor, laztan zale, txeratsu, musu-banatzaile.

- Hamar urtean eman ez didazun besarkada eskatu didazu, hazia kimuak ematen hasi zaizun seinale. Lastima beranduegi izatea.

- Afaltzeko ordua da. Zoaz etxera, ama laster etorriko da.

- Itxaron egingo diot, ez daukat inorako asmorik.

- Bakarrik egon gura dut. Ez ahaztu koaderno eta boligrafoa ekartzea.

**Ama-alabak** ospitaleko eskaileretan elkartu dira. Loreak gogor besarkatu du ama.

- Zer esan dizu medikuak, ez dagoela ezer egiterik? Esan diozu Estatu Batuetara ere eroateko prest gaudela? Ebakuntza egingo diote? Noiz? Badugu itxaropenik? Lasai, laztana, bihartik aurrera zeugaz egongo naiz ospitalean, elkarrekin lagunduko diogu aitari minbizia gainditzeko.

- Entzun, ama, medikuak pazientzia izateko eskatu digu. Biopsia egingo diote, eta probetako emaitzak jakin arte ez hipotesi faltsurik egiteko. Ez duzu lana uzteko derrigorrik, aita eta biok primeran konpontzen gara. Sano kementsu dago, onik aterako den itxaropenez betea.

- Tipula txikitzen aritu zarela dituzu begiok gorri-gorri, noski. Goazen kafetegira, neuri ez dagokidan bulegoa garbitu behar izan dudanez, pintxo uherra bazkalduta nago-eta.

- Zenbat maite dudan esan ordez, lelokeria galanta bota diot.

- Ez esatea erabaki arren, berez irteten diren horietakoa, ezta? Ospitalean ordu lar igarotzearen ondorioetako bat da. Egunek orduak galtzen dituzte, gaixo-giroak irensten zaitu, mundua gela hotz batera ekarri behar duzu, eta isiltasunaren beldurrez edozer esaten dugu.

- Geure baitan izan arren, ezagutzen ez ditugun batzuk ere bai. Hiltzeko arriskuan daudenekin zelan berba egin txikitxuterik irakatsi behar-ko ligukete. Ez nekien hain krudela nintzenik.

- Zoriontsuak izateko hazi zintuztegun, ez egun osoa penetan emateko. Nahikoa zigortu

gintuzten apaizek eta mojek: dena sufrimendua, dena damua, dena fedea.

- Aipatu ere egin barik hazteak ere ez du askorik laguntzen. Aititak esaten zuen legez, heriotza da berdintzen gaituen bakarra.

- Heriotza neke pisutsuegia da egunero lepoan eroateko. Ezin gara bizi noiz, zelan edo non hilko garen aurreikusteko ahaleaginean. Datorrenean ahal duzun eran egiten diozu aurre, holan edo halan. Ezin dugu liburuetatik ikasi. Bizitzaren ostean zer dagoen adosteko mendeak daroatzagu-eta!

- Gure aita minbiziak hil dezakeen bitartean, albokoari mina ematea beste zereginik ez dutenak ohean hilko direla pentsatzeak ernegu bizitan jartzen nau. Horra Franco edo Fraga bera. Eragindako hilketengatik ezelango zigorrik jaso bakoak.

- Euren aldekoak ez datoz iritzi horrekin bat. Zuzen jokatu duten gizon handitzat dituzte. Bosterea eta militarrek alde dituenak erabakitzen du justizia zer den, hemen eta Txorroko puntan.

- Ezin dut aita gaixotasun batek hilko duela beste barik onartu. Ezin da patua izan, aitak ez du horrelakorik merezi.

- Eta zer egingo duzu, heriotza desafiatu? Komeni zaizunean zoriari egotziko diozu errua eta gainontzekoetan sistemari? Fraga garbituko bazenu minbiziak aita bakean utziko lukeela uste duzu? Mendekuak ezer konpondu dezakeelakotan zaude?

- Justiziak pertsona onen alde egiten duela sinetsiko nuke.

- Ba ez du egiten.

- Ba neuk egingo dut.

- Kaka egingo duzu zuk, horixe. Biopsiak erakusten duenaren zain egoteko esan digu medikuak. Zoaz etxera, afaria prest utzi dizut. Deitu egiozu Amaiari eta egizu lo lasai. Bihar ere argituko du egunak.

- Zuk, esateko guztiak esan dizkiozu aitari?

- Orain artekoak bai. Gerokoak, ez dakit aukerarik izango dudana.

- Hiltzen bada, zer egingo duzu?

- Pertsona izateari utziko ez diodanez, aita barik bizitzen ikasi beharko dut.

- Zeuk ere ez duzu baztertzen hil daitekeela.

- Minbizia izan zuen lehenengo alditik daukat hipotesia gogoan. Besterik da unea iritsitakoan, zuen aita barik bizitzea badagokit, zelan jokatu-ko dudan.

- Eta aitari minbizia sorrarazi diotenak patxada ederrean biziko dira?

- Laztana, medikuek ere ez dakite zergatik ernamuintzen den batzuegan eta ez bestee- gan. Azkarrak gara, izugarri eboluzionatu dugu, baina asko dugu ikasteko oraindik. Ahaztu bengan- tzentzak, gauden aitaren alboan eta gero geroko- ak. Zoaz etxera, hartu atsedeen.

Ez da lainorik ageri 211 gelatik begiztatzen den zero zatian. Besaulki beltzean eserita dago Luis, hodontxo batek bideratuta, gurpildun esekigailu batetik zintzilik dagoen plastikozko poltsa zuriari begira. Poltsatik irteten den likidoa zainetatik gorputz osora zabalduko zaiola ikusita, minbiziak berdin jokatu duen galdetu dio bere buruari, heriotzari bidea errazten dion hodontxo ote den minbizia.



- Entzun duzu irratia? Terra Lliureko 60 militante atxilotu dituzte. Garzon izeneko epaile batek agindu ei du. Zergatik jarri dizute seruma?

- Probak egin bitartean ezin dut besterik hartu. Begira egiozu ondo, likidotxo honek bizirik mantentzen nazake. Zer diozu katalanei buruz?

- Bartzelonan olinpiar jokoak egingo dituzte-nez, nazioartearen arreta desbideratu dezakeen guztia ekiditeko, 60 independentista preso hartu dituztela dio egunkariak. Terra Lliurekoak direla aitzakiatuta harrapatu dituzte. Erakundea desagertzea eragin lezakeela dio kazetariak.

- Fanonek behinola esan zidan, Terra Lliurekoak borroka armatua behin betiko utzi ala ez erabakitzeke eztabaidan hasita zeudela.

- Kataluniako independentismoaren azkena izango dela dio.

- Fanonekin egin duzu topo? Noiz etorriko zait bisitan?

- Bart, etxeratu nintzenean, zain nuen atarian. Ondo zauden galdetu ostean, gutuna eman zidan zuretzat.

- Ez da etorriko. Irakurri egidazu, mesedez.

Luis, bihotzeko lagun,

Marik telefonotik deitu eta minbizia zenuela esan zidan egunetik begiak batu ezinik nabil. *Lepoan hartu eta segi aurrera* kantatu dugu askotan elkarrekin, eusko gudariak garelako. Inor ez dela ezinbestekoa erakutsi digute ezkerreko teoria politikoen. Ausardia barik, txikiok ez dugula etorkizunik, munduko herri zanpatuok etsaiari gehiago egiteko bildu behar dugula. Euskal Herriarentzat etorkizun hobea erdiesteko borrokan dena emateko hezi gintuzten. Norberaren ongizateari muzin eginda, langile klaseak boterea eskuratu dezan, borrokari emanak bizi behar dugula. Seminarioan irakurritako liburuetako teoriak praktikan frogatzeko limurtu nuen gure osaba Euskaldunan lanpostua lor zekidan. Agerikoa denez, ekonomiari buruz nekizkienak eta gorputz eskasa kontuan hartuta, bulegoko lana egokitu zidaten. Zeuk gonbidatu ninduzun CATekoen asanbladara, lagun zintudalako onartu ninduten gehienek. Zuekin eskuz esku lan egin ezinak ekarri

zidan hasierako amorrua otzanduta, bulegoko ordu luzeak marxismo-leninismoa aztertzeari ematea erabaki nuen. Liburu haietako esaldiak gorritz azpimarratzen nituen, gero zuei neureak bailiran errepikatzeko. Zuek besoetan halako indarra nuen mihian. Sasoi batean oso harro nengoen nire mitinekiko erakusten zenuten begirune zein arretagatik. Zuen aldean jakintsu, aditu eta intelektualtzat nuen neure burua. Liderra sentitzen nintzen, itsutu arteraino.

Bekaitza izan dizut betidanik, Luis. Eguneroko ogia izerdia litroka isurita irabazten zenuelako, apala zarelako, entzuten daki-zulako, edozeini edozertan laguntzeko prest agertu zarelako beti. Auzokoekin tabernarik taberna ibiltzeko zalea zinen, nik horri denbora galtzea neritzon, gurago nuen etxean liburukoteak zein egunkarietako iritzi artikuluak irakurri. UGTkoei laguntzea baino gurago nuen hil. Zuk, ostera, lankidetzat zenituen. Formazio politikobakoa izan arren, justua zena bereizten jakin duzu, dagokionari arrazoia aitortzen.

Edozer egingo nuke duzun familia izatearren: Mari, Lorea, Amaia. Ez dakit barkatuko didazun. Ez dakit neure buruari egundo barkatuko diodan. Ezin dut idazten jarraitu, ezin zaitut hiltzen ikusi.

Garaipen egunera arte

Jazinto

- Maite ditudan guztiek maite nautela hilko naiz. Deitu medikuari, datorrela okerrena esatera, datorrela arin.

- Ordu biko mitinak emateko gai dena, lagun minari orrialde erdia idatzi ezinik; eta zu hiltzeko prest.

- Irakurri diozu, ni sufritzen ikusteak eragiten dion saminagatik ez da bisitan etorriko. Ez nuen uste horrenbeste estimatzen ninduenik.

- Adiskidetasunari buruzko iritzi kontrajarriak ditugu. Bego minbiziak erasanda egon izan baltz, egunero egingo niokeen kukua.

- Bego hilda dago eta Jazinto den modukoa da. Ezin dituzu pertsona guztiak zure neurrien arabera epaitu. Neuk ere gurago nukeen berton

balego, baina horixe da agurtzeko aukeratu duen modua.

- Erabakia hartua duzu, biopsiaren emaitzek diotena diotela, epaia emanda dago: hil egingo zara.

- Nekatu naiz, ez dut gehiago borrokatu gura.

- Ezta gugatik ere?

- Ezta nigatik ere.

- Bat-batean, aita gisa egin duzun bizi guztian ez bezala, larderiaz jokatzeko hasi zara. Alabekiko heziketaren alde itsusia emaztearen esku utzi duzun horrek, bizitzaren alde ez borrokatzeko hartu duzun erabakia onartu behar dugula inposatuko diguzu.

- Ez da agindua, aitortza xumea da. Hiltzeko gertu nago, zuek onartu zein ez. Jagoitik inork ez du nire erruz gehiago sufrituko.

- Ebatzi horren aurkako helegitea aurkezteko eskubidea dugula uste dut. Zor diguzu.

- Utzidazue beldurrik gabe hiltzen. Batekoagatik, ez dut ikararik sentitzen, ez nau etorriko denak izutzen. Zuen maitasunaren berotan hilko naizela jakinda, pozik hilko naiz.

- Ahaztu gure artekoliskarrak, ezin ulertuak, txarto esandako guztiak. Ume moko heldubakoa baizen ez naiz izan. Ezin zara horren gazterik joan, oraindik gauza asko ditut zuri esateko, aita.

- Idatz itzazu, zeure buruari barkatzen lagunduko dizu eta, egunen batean agian, norbaitek eskertuko ditu.

- Horregatik eskatu zenizkidan koaderno eta boligrafoa, biontzat berandu zela bazenekielako.

Estratuak edo behe-lainoak dira nagusi 211 gelatik ikusten den zeruan. Udaberria izaki, biharramunean eguraldi ona egingo duela diote. Enaren habian lau buru ageri dira, gora eta behera.

- Biopsiaren emaitzak argiak dira. Kolonean sortutako minbiziaren zelulak odolaren zirkulaziotik barreiatu dira urdaila eta gibela hartzeraino. Metastasia pairatu du.

- Ez dago ezer egiterik?

- Mina kentzeko morfina nahikoa sartuko diogu.

- Zenbat?

- Astea, bi aste asko jota.

- Morfinaz ari nintzen. Alboko gelako Martinek esan zidan, dosi handietan gaixoak errealitatearekiko lotura oro galtzen duela.

- Zuen aitak ezingo luke mina jasan, konortea ere galduko luke. Morfinak minik gabe hiltzen lagunduko dio. Ikerketa berriek diotenez, baliteke gorputzean morfina dosi handiak dituzten gaixoak, batzuetan, gertatzen denaz jabetzeko gauza izatea, baita sentimenduak azaltzeko ere. Ez galdu itzaropena.

- Ez, bizitza da galduko duguna. Eskerrik asko.

Leihotik begira dago Luis.

Euskalduna desagertu eta gutxira gaixotu zitzaigun aita. Kolonetik minbizia erauzi ziotenean eman zion abisua zirujauak: «Bost urteren buruan minbizia berriz agertzen ez bada, arriskutik kanpo biziko zara».

Bost urtetan bigarrenez erne zitzaion minbizia, berriz ez agertzeko mugaren aitzinegunetan, bost urteren buruan zantzorik agertu ezean arriskurik ez ei zegoen egunen atarian.

Bihotzeko hegoak banaka erori zitzaizkigun.

Zergatiaz galdetu nionean, aitaren izaerari buruzko erreferentziak eskatu zizkidan zirujauak. Aitzakiatu zidan medikuntza ofizialak oraingoz ez duela minbizien sor-gakoak zein izan daitezkeen kausitzen jakin, baina gaixoaren izaerak minbizia garatzeko zein desagerrarazteko izan dezakeen eragina ikertzerakoan lortu dituztela emaitza onenak. Bizipozak zahartzaroa bermatzen du eta saminak heriotza?

Gure aitak etxean lanari buruz egundo berbarik egiten ez zuela erantzun nion, Euskalduna



ontziolako langilea izan zela eta, zekikeenez, hiru urtean aritu zirela Euskalduna bizirik iraunarazten. Aitortu nion, orduan, ama-alabok ez genekiela zer egiten zuen ontziolara joaten zenean, borroka sasoirik latzenetan ere, edozein hizketagai hobesten zuelako Euskalduna desagerraraziko zuen aferaz barbarik ez egitearren. Ez zuen sentimendurik hitzez adierazten. Izugarri maite gintuen.

- Zeu zara horietako bat, aita?

- Bai, bai, begira, horko ezkerreko hori da! Ibilera hori zeurea da, aita!

- Lorea... ikasketa bidaia ordaintzeko tortillak saltzen hasi zaretela esan dit Begoren aitak.

Kontatu beharra dudalako idatzi dizkizut lerrook, Peru. Amamaren eta izeko Amaiaren ardura-pean utzi zintudan egunean bertan erabaki nuen noizbait kontatuko nizula nor naizen, zergatik jokatu dudan jokatu dudan eran, zerk eraginda hartu ditudan erabakiok.

Zu mundura ekartzea ez zegoen nire etorkizunerako asmoen artean. Ez dut inoiz etorkizu-

nik planifikatu, eta bat-batekotasun konstante horren emaitza izan zinen zu, gorrotoak lagun dakarren mendekuaren ondorioa. Neurekoia izan banintz, beste guztia utzita heziko zintudan, bi-delagun izango ginen luzaroan. Baina beste bide bat hautatu nuen. Zelan eta zergatik ulertzea gura nuke. Ez dizut esango inor eta ezer baino gehiago maite zaitudanik, ez baita egia. Egunero izan zaitut gogoan eta ez dakit horri maitasuna dei diezaiokegun. Abandonatu egin zintudan, hori da aitor diezazukedan egia.

Zure aitita zena, Luis Urresti Rekalde, Euskalduna ontziolako langilea izan zen 13 urte zituenetik, zure birraititaren antzera, haren itzalean. Zentzua duzunerako ziurrenik ez da ontziolako arrasto distiratsurik erakutsiko, eta ezinbestean gorde dituztenak, dikeak barbarako, eraikuntza berrietara atxikiko dituzte, inork ezagutu ez ditzan. Izenez izen zerrendatuko nizkizuke *Bilbao Ria 2000* egitasmoaren ideologoak, amnesiaren aldeko mugimenduaren fundatzaileak, hatz markarik uzten ez duten lapur trebeen maisu ohargarriak. Gainontzekoak ez bezalako espezie batekoak direla uste duten horiek urteak eman di-

tzakete benetako asmoak ezkutatu eta gezurre-  
takoak sinetsarazten. Euskaldunakoei, hasieran,  
zin egin zieten inork ez zuela lanposturik galdu-  
ko, guzti-guztiei enplegu berriak bermatuko ziz-  
kietela. Ur azalean, iritzi publikoari begira, ontzi-  
gintzaren mundu mailako krisia zerabilten bir-  
moldaketa atzeraezina zela arrazoitzeko amu-  
tzat. Hondalean, gobernu bulegoetako sako-  
nean, Euskal Herriari tamainako industriagintzak  
zemaion botere ekonomikoa ahultzea eta, ahal-  
izatera, desagerraraztea zen xede nagusia.  
1984an lanbro artean igarri genezakeen asmoa  
garbi dakusat orain, hogeita hamalau urte gero-  
ago. Ekonomikoki askea den herriaren hurrengo  
guraria politikoki askea izatea da. Espainiak  
inondik inora onartuko ez zuen apeta. Egia da,  
Korean hasiak ziren ontziak merkeago egiten,  
baina lana bazegoen guztiontzako lain. Bizkaiko  
aberats diruzaleek, ostera, ez zuten inorekin  
lehian aritzeko gogorik eta, iturria erabat lehortu  
orduko, beste isuriren bat bilatzen hasi ziren.

Bilbo hiri industrialia izatetik zerbitzuetan oi-  
narritutako hiria bihurtzea zuten xede. Eraikin  
berri, moderno, erakargarriak ezinbestekoak

ziren horretarako. Eraikuntzarako enpresak sortu zituzten, diru-laguntza publikoak asmatu enpresa horiek baraurik lan egin ez zezaten; denbora oso laburrean milioiak metatu zituzten PSOEn eta PNVren inguruan jaiotako enpresek. Fanonek maiz gogorarazten zigun, benetako boterea horien esku zegoela, poliziak pistoladun txotxongiloak baizen ez direla, zeren alde jipoitzen duten ez dakiten borrarroak baizen ez direla. Badakizu Fanon nor den, ezta? Jazinto Ibarri, aitarien lankide, maisu, argi eta laino izandakoa.

- Eta zergatik ez duzue zuzenean euren aurka egiten?

- Batzuek Estatuaren bermea dutelako eta besteek Jauralaritzarena. Horrez gain, alderdi politikoek babesten dituztelako; eta batez ere, ezjakintasunetik sostengatzen dituzten milaka herritar boto emaile dituztelako.

- Herritarrak ez gara berez ezjakinak, Fanon. Ezjakintasuna egotzi baino, apaldu eta zantar horiek dituzten ezkutuko asmoen berri eman beharko zenigukete herritarroi.

- Oraindik mukizua besterik ez zara lezioak ematen aritzeko. Ez nabil harrokeriaz, Lorea. Herriarrak informatzeko lanean ari gara, baina gure eztarriek ezin dute horren ozen kantatu.

- Mezuak garbiago helaraziko dituzten bozgorailu berriak behar dituzue.

- Mezuak urrunago helaraziko dituztenak dira faltan ditugunak.

Gaztaroaren ezaugarrietako bat bulkadaka jokatzea omen da, bitan pentsatu barik esatea, ekintzak ondorioei men egin gabe burutzea, odola berotu orduko irakiten izatea, txoro-flautaren doinuetara dantzatzea. Gaztea izateari utzi nionetik hogeita bost urte izango direla, barruko sumendia borborrean daroat oraindik, orroka segitzeko gogotsu.

Zure aititak lehenik lana eta gero bizia galdu zituenean, ez nekien ama izango nintzenik, ez nekien ama izateko gogoia nuenik ere. Ez genuen umegintzarako astirik, mundua irauli gura genuen. Bagenuen nori ikasi.

- Lorea, zuen amari eta aitari ez fitsik esan, ez dezatela ezer susmatu. Begok ere ez du jakin behar. Zuk eta biok dakigu, eta nahikoa da. Es-

tatu bateko ministroa bahitzera goaz. Ez dugu antzeko lanetan esperientziarik, baina Euskalduna desager ez dadin egin dezakegun ekintzarik eraginkorrena da. Txakurrek ETakoak izan direla pentsatuko dute. Batzuek zein besteek langile pobreak izan garela jakiten dutenean kontu eske etorriko zaizkigu.

- Lasai, Fanon, amak nahikoa zama daroa aldean, ez nioke astundu gura; eta gure aitaren galdera bakarrak ikasketei buruzkoak dira. Begori kontatuko ez diodanik ezin dizut bermatu, guztia kontatzen baitiogu elkarri. Dena den, aitak mesanotxean izaten dituen liburuak zeureak dira, ezta? Zein kontu eskatuko dizkit zurekin erabiltzen dituen berbagai berberak kezkatzen banaute?

- Beste guztiak itxi eta ibiltzeko bide bakarra zabaldu diotela erantzungo dizu aitak, berez bazez dela, neu naizen gisakoa, behartu egin dutela borroka dadin, neu behartu ninduten eran. Ikasten baduzu, zabalik bide bat baino gehiago izango dituzula erantzungo dizu.

- Bere ezpala izateaz harro beharko lukeelakoan nengo.

- Eta harro dago egon, hitzez aitortuko ez badizu ere. Baina ministro bat bahitzea manifestazioak, greba orokorrak eta koktelak jaurtitzea baino arean ekintza larriagoa da, munduko langileen borrokarentzako mugarria. Aitak ez luke inolaz ere onartuko.

- Zuri aitortzen dizu, ezta, Fanon?

- Ni Jazinto naiz zuen aitarentzat. Zer da Bego zuretzat?

Heziko zintudan baino hobeto hazi zaituen amama Marik niri buruzko berba onak besterik ez zizkizun esango, badakit. Berdatuko zen nirekin gaupasa eginda etxeratuko nintzelako, gedar egingo zigun zure izekori eta bioi lantzean baten, etxeko beharretan zegozkigun ardurak ez bete-tzeaz gain sobera parte hartzen ez genuelako, hautsa kentzeko eperdikoren bat ere emango zigun, baina mailatu edo ubelik utziko zigunik egundo ez. Ez da bera izan ni gorrotatzeko aitzakiak eman dizkizuna, Peru.

18 urte betetzeko nituen 1984 hartan, Euskaldunaren itxieraren aurkako borrokak hasi zi-

tuzten sasoiari. Institutuan azken urtea genuen, ontziolatik aurrez aurre, Deustuko zubipean, ibaiaz beste aldean dagoen Botikazar institutuan. Ikaskide nuen lagunik minenak Bego zuen izena, Bego Zamakona. Begi berdexka ilunak, ile beltzaran kirruduna, azal zuria, gorputz lerdena. Munduko irribarrerik politena zuen. Sano lotsatia zen, dantza eta kantua maite zituen, eta ondo konpontzen zen ume guztiekin. Litekeenik eta amarik onena zatekeela jokatu nuke burua. Gelako guztiak maiteminduta gintuen: ez zuen inor iraintzen, ez zion inori iseka egiten, ez zuen nabarmentzea maite.

Begok zaletu ninduen euskarazko literatura-  
ra, aitak bera zaletu zuen eran. Bilbora ezkondu-  
takoa zuen aita, *Zeruko Argian* kolaboratzaile  
izandakoa aitona. Begoren etxean ugariak ziren  
euskarazko liburuak plazaratzen zituzten argita-  
letxeetakoak. Bere logelan sartuta, orduak ematen  
genituen literatura aldizkarietako testuak  
irakurtzen. Begoren aita Koldok ordura arteko li-  
teratura aldizkari guztien gutxienez ale bana  
zuen sailkatuta. Ez zen bildumazale hutsa. Lite-  
ratura maite zuen. Bakoitzetik bat oparitu zidan



erbesteratu nintzen bezperan, erbesteratuko nintzela susmatu balu legez. Arropak atera nituen maletatik lekua egin ahal izateko.

- Ez dinat zuen aita halakorik inor ezagutzen.

- Literatura maite duenik, esan gura dun? Eta

Fanon?

- Beste literatura mota bat dun Fanonek maite duena.

- Aresti aho artean kendu ezinik zarabilek ba!

Bere etxean izan nintzenean, gurean beste liburu eta aldizkari daudela egiaztatu ninan.

- Fanonen etxean egonda hago?

- Marxi buruz galdetuta, haren etxeraino joanarazi nindinan.

Buruan ditut 80ko literatura aldizkari haien guztien izenak, zein baino zein deigarriagoak. Espainiako historia erakusten zigun irakasleak Espainiako probintziak errepikarazten zizkigunean, Begok eta biok probintzia bakoitzari literatura aldizkari baten izenburua gehitzen genion. Espainiako probintzia beste aldizkari ez genuenez, argitaratu berri ziren liburuen izenburuak edo musika taldeenak eransten genizkien. Madrid - Vomito, Burgos - Basilika, La Rioja - Kande-

la... Olgeta bitxiak gureak, olio uherrez nahastu-tako txokolatearekin drogatzea beste buruko minik ez zuten ikaskideen artean.

Institutuko ikasle mugimenduan ezagutu genuen elkar Begok eta biok. Ni izar gorri batek erakarrira sartu nintzen. Bego umetatik konturatu zen euskaldun bizitzeko borrokatzea beste biderik ez zuela izango, are gehiago Bilbo halako hiri erdaldunean. Komunikatu guztiak Begok idazten zituen, besteok ez genuen edukiez zalantzarik izaten, Begok denok pentsatzen genuen huraxe hitzez azaltzeko gaitasuna baitzuen. Begok idatzitakoa eskuz kopiatu ostean, gainontzeko hogeitakak gelaz gela eskolak eten eta komunikatuok irakurtzera joaten ginen. Behin kopiatuta, buruz ikasteko modukoak ziren Begoren komunikatuak, ozen aldarrikatu ahala norbera hunkitzen zutenak. Ikasleon borroka, ikasgai guztiak euskaraz ikasteko eskubidea, geure eskola nazionalak sortzeko beharra.

Gure institutuaren aurreko erreka bestaldean palmondoak daudela ikusi dut postaletan, altzaruzko xafla astunak pilatzen ziren erreka bazterrek erbeste honetako hiri askoren antza dutela.

Margotutakoa dirudien belarra, olioeko ostadarren orde. Garai bateko ontzien arrastoa mundu osoko agentzia bidaietako erakusleihatetan baino ez dago, nazioarteko azoka subentzionatuetan. Ederragoa dela diote denek, Bilbo lako hiri bati dagokion neurrikoa. Historia gazteegi ehortzi dute. Baina Historiak ez du etenik, ez luke etenik izan behar. Etenik izan ez zezan betetzen genituen Begok eta biok koadernoak, lau eskutara. Horietako batzuk neuk gorde ditut urteotan, baina bada bat Begok aldean eroan zuena, galdera askoren erantzunez betea.

Bilbo bere iraganaz lotsatzea lortu dutela iruditzen zait postalok begiratzean. Hiria modernitatera ekartzeko hartu beharreko neurriak direla, gutxi batzuentzat kaltea izan zena aurrerabidea izango dela gehienontzat. Putre alaenak, laztzak ikusiko ahal dituzte egunen batean!

Hilduratu gaituztenak ez lirateke lo goxoan oheratu behar.

1984aren aurretik bisionario diru-goseak hasi ziren zabaltzen, ezinezkoa zela Bilbo erdian kea eta uherra sortzen zituen ontziola izatea, horixe zela Bilbo grisa izatearen arrazoi bakarra. Bada-

kit Negurikoek diru iturri oparoa izango zutela helburu, baina zabaldu zuten eztabaida kearen zein uherraren ingurukoa zen, keak zein uherrak estali zitzaten euren benetako asmoak.

- Literatura irakurtzeak on egiten din, Lorea. Pertiako alfonbrapeetako kakautsa aurkitzen ikasi dun.

- Bazakinat ontzigintzatik sortutako aberastasunak boteretsu egiten gaituelako desagerraraziko dutela Euskalduna. Bazakinat euren benetako helburuek ez dutela ezelango zerikusirik Bilboren itxurarekin, aitzakia baino ez dela, Bilboko pijo harro aberaskumeeek atoan aldarrikatuko duten aitzakia salgarria.

- Hara, goazeman Verdesera. Aitak bi poema liburu erosteko dirua eman zidan. Esaldi arranditsuak gustuko baditun, errepertorioa aberastu beharko dun.

- Poema liburu bat erosi eta bestea zerbezatan inbertitzen badugu, erakutsiko dinat zein aberatsa den nire errepertorioa.

- Ondoegi konpontzen gaitun aita eta biok halako kokolokeriatan ibiltzeko. Endemas, egi-

leak eta izenburuak papertxo honetan idatzi zizkidan, okertu ez nadin.

- Lanean hastea beste irtenbiderik ez dinagu. Neuk ere asko maite ditinat liburuak, baina lantzean baten zerbezatan ibiltzea zegokigun, neska!

- Zerbezak gura ditun? Zazpin eta Unaitxun zerbitzari eskean dabiltzala entzun dinat.

Ostegun arratsaldetik igande eguerdira arteko zerbitzari lanak hartu genituen, Begok Unaitxun eta nik Zazpin. Ardo merkea, zerbeza, kalimotxo eta patxarana. Hasieran, barra atzea erakusleioa zen guretzat. Bertatik edonori errepara geniezaiokeen, Bilbokoei zein Bizkaia osotik etorritakoei, harrapariak zerutik harrapakina legez.

Ez dakit zerbitzari ibili ginen sasoiaren zenbat izan nituen zirrikide. Iraultza sozialistarekin batera, sexua, musika eta literatura ziren gure ardurak. Horrek egiten gintuen odol bereko Bego eta biok. Bikote berberarekin luzaroan aritzea atzerakoia iruditzen zitzaigun, burgesa. Gaztee-

giak ginen betiko ainguratzeko. Neure ondortzeen arrazoiak ulertuko badituzu, nire sexualtasuna onartzeko arazo latzak izan nituela jakitea dagokizu.

Ez genuen maitasuna gutxiesten. Chek esandakoa oso gogoan genuen: «Maitasuna da iraultza guztien arrazoia». Gureak eta gainontzeko tabernak zarratuta, txizatsari usaingor, portaleetan jesarrita Silvio Rodriguez eta Mikel Laboaren kantuek berbarik berba kantatzen genituen, orro batean: adarbakarrena, bihotzaz erditzen zen sasoiarena, ama aberri eta iraultzarena. Begiak bete-bete eta besarkatuta: «Lo más terrible se aprende enseguida y lo hermoso nos cuesta la vida». Malkoak xukatuta Bilboko Gaztetxera joaten ginen azken ordukoak kitatzera. Mikel, Silvio gutxi entzuten ziren punkaren eltze hartan. Talde gehienek espainolez kantatzen zuten, kapitalismoaren kontra, poliziaren kontra, boteredunen kontra, etorkizunik ez genuela salatzekeo, sexuaren, drogen kontsumoaren eta autoantolakuntzaren alde oihu egiteko. Solfeoak, harmoniak, pentagramak eta gainontzeko arauak letretan zeuden, errailetan. Eskorbuto, MCD, Cicatriz,

Barricada, Tijuana in blue, La Polla Records, RIP eta enparauak urtean bitan baino gehiagotan entzuten genituen Gaztetxean. Aurrez aurre esango genituenak kantatzen zituztelako maite genituen talde haiek, ordu eta erdiko emanaldian edozertarako ausart sentiarazten gintuztelako.

Inoiz mundua alda genezakeela sinetsi izan bagenuen, hori Kortatu eta Hertzainaken kontzertuen ostean izaten zen. Ahalik eta kontzertu gehienetara joaten ginen: autobusez, trenez joanekoa, atzamar lodien erakargarritasunari esker etxerakoa. Nork bere fedea mugiarazten du. Gure orduko erromesaldia distortsioaren ahai-reei jarraitzean zetzan.

Egun gaztetxeetan jendetza biltzen al zarete, Peru? Orduan, sorbaldak sorbalden kontra lurra zapaldu ezinik egoten ginen. *Herri bat, gaztetxe bat* leloak arrakasta itzela izan zuen. Kantuetako teoria eguneroko praxi bihurtzeko ametsa izurria legez hedatu zen herririk herri. Okupazioa, zilegi ez eze, ezinbestekoa zen. Zure adineko gazte asko ketotuta jaio direla diote, gure belaunaldiko guraso asko, iraultzaile asko damututa daudela-

ko izan dela. Menturaz minduta daude epeldu horiek, amestu zutenetik ezer lortu ez dutelakoan. Zenbat ote gara gurasoek erakutsitakotik.

Ez zirudidan zure amamak eta aititak irakatsi zigutena aurrez hitzartuta, planifikatuta edota adostuta izan zutenik. Ez dut uste mahai baten inguruan eseri, papera eta boligrafoa hartu eta guretzako hamar manamendu negoziatu zituztenik. Ez dut gogoan ama eta aita gure heziketaz berbetan entzun izana. Lanak ez zien beste ezertarako astirik uzten. Inork ez zien esan guraso izateko ezinbestekoa zenik.

Psikologia, pedagogia, pentsatu barik egiten dugunari latinetiko izenak eranstea baino ez da. Horren definizio zehatzik gabe ere makina bat lagun bizi da munduan. Zehaztasunak lagungarriak dira, akatsak detektatu ostean konponbideak errazago aurkitzeko balio dute. Baina ematen dugun urrats bakoitza zein arrazoi zientifiko-  
ren podesuz ematen dugun azaldu gura izateari gehiegi deritzot. Primate garatu aspergarriak baizen ez garela iruditzen zait, txinpantzeak poztu ere egiten direla gulakoak izatera heldu ez direlako. Benetan gertatu zenari arean hurrera-



tzen bazaio, Jean-Jacques Annauden *La guerre du feu* filmean argi ikusten da betidanik izan dugula hurkoa menperatzeko grina, bekaitza odolean, nabarmentzeko sena, harrokeriarako joera. Bizirauteko baldintzak asko aldatu diren arren, elkar hiltzen darraigu. Zeinek irakatsita? Ez dakit zuk zein zinema mota maite duzun, guk gogoe-tarako hura maite genuen.

- Sinplifikatzen ikasi behar dinagu. Pertsona = menperatu beharra = hilketa, horri buruz ari naiz.

- Pertsona = menperatua = ordaina ere izan liteke.

- Edo pertsona = menperatua = betiko menperatua.

- Pertsona = begirunea, sinplifikatzea diot.

- Surik gabe geratzen bagara ere bai?

- Surik gabe geratuz gero atzetik sartuko digute, filmean errekan ura edaten ari denari sartzen dioten legez, ezustean, galdetu barik.

Faltan dugun horrengatik zer egiteko gai garen. Zenbateraino babesten dugun geure burua zorigaitzetik, minetik, beldurretik. Zergatik saritzen ditugun ausartak. Zertarako balio

duen beste inor baino indartsuago izateak. Ez dago indarrean sostengatzen ez den botererik. Begorekin baizen ez nituen galderok gogoetagai. Punk mugimenduan galdera gutxi behar genituen. Bagenekien zeinen kontra egin.

Lasaitasuna dakar etsaia zein dukezun argi edukitzeak. Badakizu nolakoa ez duzun izan gura, badakizu zelan ez duzun jokatu behar. Badakizu erabat ezberdina izateko zelan jantzi, orraztu, ibili. Eskertzekoa da etsai izateko prest dagoen jendearen jarrera. Norberaren haserre ezinikusiak okaztatzeko aukera ematen digute. Etsaiei esker beti dugu arrazoiaren jabe garen ustea. Borrokan jarraitzeko oso lagungarria da arrazoa duzula uste izatea.

Baina ez da nahikoa. Gu, bederen, ez gintuen asetzen.

**Begok** negar egiten zuen sarritan. Buruarekin ezetz eta sorbalda gora eta behera. Begietatik isurtzen zituen malkoek ahotik barrura eginda asetzen zela begitandu zait beti. Amorrua bideratzeko ubidea zuen. Nik ez nekien ezintasuna

zelan gobernatu. Umeaz erditzeko egin beharreko indarra egiten nuen ezintasunaz erditzeko. Gure aitak ere ez zion ezintasunari aterabiderik zabaldu. Ezintasunak zulatu zuen bera. Norberak igartzen du ezintasuna azalari ate joka. Gure aitak ez zuen atea zabaltzen jakin, ez zigun eskatu geuk zabal geniezaion. Minbizi batzuk satorren antzera ezkututzen dira, zain egon ezean ez dituzu antzemango. Zergatik aurreikusiko genuen aitak minbizia zuena? Kaleratuak diren langile guztiek ez dute minbizirik garatzen. Zergatik gure aitak? Badakizu damua zer den?

Hitzez esaten ez ditugunez, liburu mardula idazteko lain gogoetatu dut aita hil zitzaigunez geroztik. Erbeste honetan ezin dizkiot inori esan, hemen inork ez daki euskaraz. Konfesioa ingelesez egin nezake. Tabernaren batean edozein ezezagunekin berbetan hasi, barrukoak gezur eta guzti kontatu, agurtu eta berriz sekula ikusiko ez duzun ziurtasunarekin oheratu. Baina ingelesez kontatuta, beste batenak direla ematen dit, arrotz baten bizitzaz ariko nintzatekeela.

Tabernako lanari esker, etxean dirurik ez eskatzeaz gain, erosi beharrekoetarako geure

ekarpen xumea egiten hasi ginen. Heldutasuna irabazten hasi ginen gaztaroa galdu ahala.

- Hamazazpi urterekin lanean hasteari larregia deritzot, Lorea.

- Zu hamahirurekin hasi zinen, aita.

- Orduan ez zegoen aukera askorik ikasketak lagun ez genituenontzat.

- Kaleratzen bazaituztete, gatxa izango zaizu lan berria aurkitzea.

- Zu ikasle ona zara, oso azkarra. Sortu berri den unibertsitate horretara joan zaitezke, etorkizun handiko karrera amaitu eta atoan lanean hasi.

- Edo rock talde bateko abeslaria izan naiteke, edo arrakasta itzelezko idazlea, edo gaztetan ezkertiarra izanagatik alderdi eskuindar bateko legebiltzarkide baten emaztea, edo ETAko kide izateagatik kartzelan, edo euskararen aldeko militantzian emango dut bizitza, edo...

- Nik ez dakit gaztea izatea zer den.

- Asteburuetan tabernari baizen ez nabil.

Sasoian geundenez, hasierako hilabeteetan behin baino gehiagotan bete genuen goizeko txanda, ia gaupasa eginda. Igande bazkalostetik

astelehen goizera lo egin eta kito. Nekea gogoarekiko borroketan gailentzen hasi zen arte.

Gogorren udan egiten zitzaigun. Herrietako jaietara joan ahal izateko, taberna noiz zarratuko zain egoten ginen. Nekatuegi, biharamunean taberna zabaltzeko ardurak zamatuta, lo ezak eragindako astebururoko buruko mina ekidintzarako, goiz etxeratzen ginen. Koadrilakoak festarik festa, gu lanean edo lotan. Lanean xahutu genituen orduak ez dira egundo itzuliko. Lanean barik beste edozertan igaro genezakeen denbora. Berbarako, bizitza bakarrean egin gura izango genukeen guztiaren zerrenda osatu ostean, geure buruari zin eginarazten banan-banan gauzatzen ahaleginduko ginela, lan egin beharrak ez gintuela makurraraziko.

Gauza askorekiko gorrotoa sentitu izan dudalarik, derrigorrezko lanarekiko garatu dudan gorrotoak sentiarazi nau malerusen. Derrigorrezko lanak pertsona ez beste zerbait egiten gaituela iruditzen zait. Edozer egiten dugu diruaren truke. Batzuei mendeetan dirauen izena ezarri genien horixe bera egiteagatik. Urteetan aurrera egin ahala gero eta nekezagoa bihurtu zait onar-

tzea dirua dela gure itzala, gizon gutxi batzuek laburtzen eta luzatzen duten itzal luzea. Bizitza gizon horien kontra jotzeko ahaleaginean eman dut, ezin baitut onartu nire eguzkia izan daitezzen. Menturaz, tronpatu egin naizela iritziko diozu, Peru; beti zerbaiten kontra baino osasungarriagoa dela zerbaiten alde egitea. Gezurra. Alde egitearen aitzakian kontra ere egin behar duzula ahaztuz gero, edozer onartuko baituzu azkenean, alde egiteko arrazoiak lausotuko baitzaizkizu ez kontra ez alde egiteraino, ikusle axolabakoa izateraino.

Euskaldunaren biziraupena aldarrikatzeko borroken lekuko izan ginen sasoiaren itzaldan derrigorrezko lanarekiko gorrotoaren hazia.

Gurasoengandik ezkutuan, Fanonekin Bilboko Gaztetxean biltzen hasi ginen, batzarrak burutzeko zein ikastaroak antolatzeke erabil zitezkeen goiko solairuetako geletan. Inoiz inon izandako mugimendu iraultzaile ezkertiarrei buruzko formazio ikastaroak antolatzea proposatu genion Fanoni, baita honek baiezkota eman ere.

- Arrasti on denoi. Fanon naiz. Historian izan diren ezkerreko iraultzei buruzko ikastaro honi hasiera emateko, Stanley Kubrick zinemagilearen *Spartacus* ikusi eta aztertuko dugu. Kristo aurreko 73. urtean matxinatu ziren Spartacus buru izan zuten milaka esklabo, inoiz izan den inperiorik boteretsuena belaunikarazteko. Hankabikook Historia errepikarazteko ohitura dugun aztertzeke aukeratu dut, hankabikook boterearekiko dugun menpekotasuna hausnartzeko, boterea indarraren bitartez baino lortu ezin denetz galdetzeko, eta menperatuak indarra erabiltzerik ez badu zer egin dezakeen ondorioztatzeko. Galderarik?

Gazteok Euskaldunakoak horrenbeste mires-tearen oroz gaineko arrazoia, adinean gora egiteak berezko apaltzea dakarrela dioen ustea ezereztatu izana dela uste dut. Zahartu ahala burua gero eta gehiago makurtu behar ei dugu. Kontra egitea gazteei dagokiela sinetsarazi digute, helduaroan denari amen esatea dagokigula. Berrogeita hamar urtetik gorakoak polizien kontra harrika ikusteak harrotu egiten gintuen gazteok. Gurasoak tartean izanez gero, gangartu.

Taberna zarratuta etxera oinez nindoala atzetik susmatu nituen gau baten ostean. Fano-negaz berba egin eta tabernako lana uztea deli-beratu nuen. Bilboko Zazpi Kaleak jendez gainezka izaten ziren, gero eta bezero gehiagok ezagutzen ninduten, izena ikasi zidaten ia guztiek. Ezagunegia bilakatzen ari nintzen.

- Ez dituzu segika izan dituzunak ezagutu?

- Zer dela-eta ezagutuko nituen poliziak izaki?

- Tabernara egunero hurreratzen zaizkizun bezeroetatik edozein izan zitekeen.

- Bai, zera! Ederto baten ezagutzen ditut ardo merkea edaten dutenak zein eskailerapekoa gogoko dutenak. Batek ere ez du polizia itxurarik.

- Arrazoi duzu, sekretak trikornio eta guzti ibiltzen dira txikiteoan. Beraz, edo tabernako lana utzi edo gure «lantxotik» kanpo zaude.

Aitzakia sinesgarririk asmatu beharrik ere ez nuen izan. Gurasoekiko harremana zinez zen gatazkatsua astebururo ordu txikitan, txikiegitan etxeratzen nintzela-eta.

- Tabernako lanak utziko ditinat, Bego.



- Berriz ere amarekin ardailan.

- Aitaren bisaia iluna egiten zaidan jasanezinen. Ez du ezer esaten ikasketei edo futbolari buruz ez bada. Euskal Herria sutan eta Athletic puta hori berbagai! Greba egun baten ostean Realarekin izandako partidari buruz, Salinasek gola sartu duela, Clemente bota egin behar dela...

- Gure amak dio denak duela lotura politikarekin, baita futbolak ere.

- Gure amak dio politikak dena kakazten duela, ur azalean dagoena ere ito egiten duela.

- Gureak ere gehiegizkoa deritzo, baina politikari ihes eginez gero, boterea lau kabroien esku geratuko litzatekeela ere badio, eta hori ezin dugula inolaz ere onartu.

- Gureak dio lau kabroi horiek beti izango direla lau kabroi, ez dagoela alderik kabroien artean. Baina hire aita ez dun egundo futbol zalea izan, ezta?

- Horrexegatik ba! Baloiari orain arte kasurik ere egin ez badio, bere lantokia itxiko dutela jakinda, zer dela-eta orain futbolarekiko bat-bateko grina?

Gurean ez zen ez politikaz ez minik eman zezakeen beste ezertaz berba egiten. Institutuko ikasmahaitik ikusmiran genuen Deustuko zubian zein ibaiaren bestaldean egunero begien bistan genuena ikusezina zen etxeko jangelan. Kaleko suaren arrastorik ez zen sartzen gure etxeko atepetik. Aitak atalasean ostentzen zuen.

Hazi zaituen gure ama izaten zen, Peru, egoeraren larria zenbaterainokoa zen argitzen ziguna. Borroka borborrean zenean ere, aitak ezer gertatuko ez balitz legez jokatzeko zuelarik, zure amama Marik begiratu eta isiltzeko esaten zigun ahopeka: «Jatorduetan ez da horrelako gaiei buruz berba egin behar, janak kalte egin behar digu». Begietan igartzen genion, isiltzeko baino barrukoak askatzeko gogoia zuela, baina ez aita bertan zela. Eskuak lasaitu ezinik aitortzen zigun izerditan esnatzen zela aita.

- Izarak busti-busti esnatzen da.

- Gauero?

- Gauero, eta batzuetan baten baino gehiagotan.

- Zurekin behinik behin asaskatuko da, ezta?

- Zuekin baino gehitxoago.

- Isiltasunak amets-okerrak eragiten zituenik ez nekien.

- Isiltasunak baino sufrimendua ez partekatzek dakarkio ezinegona zuen aitari.

- Langile sozialistok dena partekatu behar dugula dio Fanonek.

- Zu ez zara ez langilea, ez sozialista, hain gutxi txiste kontalaria. Eta Fanon mutilzaharra da, ez daki deus partekatzeaz.

- Fanonek asko daki, asko irakurtzen du, saiakerak ere idatzi ditu Sobieten iraultzaz edota Kubakoaz.

- Tripa beterik idaztea erraza da.

- Ez ahaztu bera ere kaleratu dezaketena.

- Ez dut ahaztu. Fanonek 43 urte ditu, etxerako ogi bakarrarekin nahikoa du, eta aurkituko du edo diote lanen bat. Zuen aitak 55 beteko ditu aurten.

Zientziak alboratuta letrak ikastea hautatu genuen Begok eta biok. Ez ziren hamar urte Franco hil zela. Irakasle gehienak Euskal Herrian jaiotakoak izanik ere, espainolak izaten irakasten zigu-

ten: Espainiaren historia, Espainiako literatura. Behinola, Begok, haserrea sumendi agertu barik, begirunez, apal, Euskal Herriaren historia eta literatura ikasi gura genituela bota zion Madrildik etorritako Alfonso Blanco irakasleari, Lengua y Literatura española eta Historia de España irakasten zigun bekokilunari.

- Zamakona andereñoa, nik curriculumak ezarritakoa bete behar dut. Franco hilda badago ere, zu espainola zara; eta neuk irakatsitakoa ikasiko duzu edo ez duzu ikasturte honetatik aurrera egingo.

- Blanco jauna, espainolak hezi gura badituzu, Madriler a itzultzea besterik ez duzu.

Biharamunean Blanco jaunaren abizena mira batek inguratzen zuen institutuko paretetan.

- Ez ditene nire berbarik aintzat hartu. Hamabost egunerako egotzi naiten.

- Gure gelako norbait izan dun.

- Bazakinat nor izan den, Lorea. Ezaguna dun espraikera.

- Baita zuzendaritzakoentzat ere.

- Ni arriskutsuagoa ei naun, ordea.

- Egunen batean ordainduko ditene.

- Zuzendaritzakoek? Blanco jaunak? Gizarte Segurantzak? Lehenago espraikerrek.

- Gurasoek ez dituen errietarik egingo, gaitz erdi.

- Hiri baino ozenago. Irakasleak ukiezinak ditun, espainolak barne.

Poliziei harrika erantzun geniezaiekeen, irakasleei ezta hitzekin ere. Helduaroan zain ditugun ehunka kontraesanen oinarria barneratzea etsigarria dateke. Egun batean, entzun gura ez zenituen lezioak ematen hasten zara. Maite zaituen batek txalokoa emanda esnatzen ez bazara, leziok errepikatuko dituzu, egunero, gero eta sarriago, gero eta hutsalago. Gurasotzak arduratsu egiten ei gaitu; helduaroak buruko txoriak uxatu eta zentzatzea ei du berezko, ezkerreko ukabilak goratutakoa ahaztu eta erregeren aurrean belaunikatzeraino loarazten gaitu, «horiek gaztaroko ameskeriak dira» esateraino.

Zure amamaren ardurapean abandonatu zintudanean, ez nuen beste ezinegonik, Peru; ez nuen semea ustelaraziko zuen ama izan gura.

- Zuek bai zuek! Pintada uherra egin eta Begok kaka guztia jan.

- Oso kontuan hartuko dinagu Begoren irmotasuna.
- Ausardia esan gura izango duk.
- Bere kanporatzea salatzeko deialdia prestatzen ari gaitun.
- Ea Begok zigorra bete baino lehen burutzen duzuen.
- Etsaiak besteak ditun.
- Eta gu heroiak.

Begok hamabost egun eman zituen institutura etorri ezinik. Ekainean selektibitatea gainditzeko langa besteoi baino gorago ezarri zion Blanco jaunak. Ikasteko profitatzea deliberatu eta Leioara joan-etorrian eman zituen bi asteak, unibertsitaterainoko garraioa doan izan zedin eta numerus claususak desager zitezten eskatze-ko burutu ziren greba zein osterantzeko mobilizazioetan parte hartzera. Oztopoak oztopo, kazetaritza ikasteko izena emango zuen EHUn. Institutuko ikasle mugimendutik unibertsitatekoaren arteko alderik zegoenez ezagutu gura zuen bertatik bertara. Nik ez bezala, Begok institutuko bigarren urtean erabaki zuen kazetaria izan gura zuela. Ikerketa kazetaritza politikoarekin uztar-

tzea zuen amets. Behin eta berriz aipatzen zidan Mirentxu Purroy euskalduna izan gura zuela, *Punto y Hora* euskalduna behar genuela, *Egin* euskalduna ezinbestekoa zela.

Begori ikasi nion erabakiak zelan hartu. Bero-tan datozkigun amets, ilusio, gogoak beratzen jarri eta biharamunean hausnartuta gerokoan errazago barneratzen. Atzerabiderik bako hanka-sartzeak ekiditeko balio izan dit. Ez beti. Ez gura bestetan. Odol hotza gehien komeni izan zaidanean, odol beroak irakinda gainezka egin dit. Isildu beharrean kalakari, patxada premian izanda artega. Begok bazuen egonarria, barrutik eztanda egitekotan izanik ere, bere buruari eus-teko ahalmena. Bost minutu dituzu, Polizia edo-zein unetan ager daiteke, eskuaren dardara gel-ditu ezinik zaude, sakatu ez sakatu. Usu galde-tzen nion neure buruari Begok denbora geldia-razteko erlojurik ote zuen, arnasa hamar bider sakon hartu, begiak itxi, giharrak nasaitu, den-bora berrabiarazi eta horregatik burutzen ote zi-tuen burutu beharrekoak inoiz hutsik egin barik. Pertsona bazen, egunen batean huts egin behar-ko zuen zer baitetan, derrigor.

Ez duzu egundo denbora gera lezakeen erlojuja desiratu? Euriak ez zaitu bustitzen, hotza ez da beroa baino desiragarriago, milioi askotako autoak ostikoka maspildu ditzakezu, *El Corte Inglés* su eman, ezezagunen ezpain potoloak musukatu, abadeak meza ematen daudela biluztu, telebistako zuzeneko saioetako aurkezleei gidoia aldatu, zerbitzu sekretuei informazioa faltsutu, pistolak urez bete, filmak goizaldera arte ikusteagatik biharamuneko iratzargailua zortzi ordu atzeratu, dirudunei egunero asko kenduta derri gorrezko lanik egin beharrik ez, badoazen orduak musika eta literaturara emanda bizi. Ihes egin, jarraituko zaituzten beldur barik, azalpenik emateke. Ihes egin.

Egun ere, deserri honetan, arrangurek eta hutsuneek loa galarazten didatenean, denbora gelditzeko erlojuarekin aldaraziko nituzkeenez, itzarririk amesteak beste ezerk baino gehiago baretzen nau. Fantasia da autoz, etxeorratzez, hizkuntza askotako pertsonen mugatutako erbeste honetan aurki dezakedan lo-belar bakarra.



Amama-aititaren etxeko ganbarako kutxetan H.G. Wellsen liburuak izango dituzu, *The Time Machine*, *The Invisible Man*, *Ana Veronica*, *The War of the Worlds*. Higuin dudan espainolez irakurri nituenak higuin dudan jatorrizko hizkuntzan berrirakurri ditut oraintsu, irribarrea eta negarra lagun, denboran atzera egiten ari naizela eta ikusezina naizela oharturik.

Bagara iraganari ihes egin guran irteera bako bideen ertzean luzaroan izoztu garenak. Ez ninduen damuak izoztu.

Jendetzan ikusezin izan gura genukeen arren, agurtuko gaituztenen faltan gaude, eguraldiaz berbagaia eskainiko diguten auzokide gabeak gara.

Erbeste honetan, inongotartasunean bizi naiz. Aurreikusi uste nuen zein ondorio izango zuen burutu asmo nuenak, zenbateraino aldara-ziko zuen ordura arte bizitzatzat nuena. Filmetan horrenbeste bider ikusi ditugun kaleotan jendea batera eta bestera doa. Badirudi ez dutela beste egitekorik, kanean gora, kanean behera ibiltzea besterik. Aurpegi bakoitzari, ibiltzeko era bakoitzari erreparatu ezean, begipuntua desenfokaturik

gero, tirrin-tarran dabiltzanak beti berdinak direla ematen du, ez direla milaka ez bada berrogeita hamar, eguneko zortzi ordutan hiriko kale bat populatzeko zein despopulatzeko ardura dutenak. Sarritan, jendetzaren erdian gelditu edo alboratuta, begiratuko nauen norbaiten zain egoten naiz. Esperoan.

Itxaroten ematen ditudan ordu luzeotan, go-goeta egiten dut, itxarotearen zergatiez edota itxaroten gaudela gertatzen denaz, egiten dugunaz. Ziur naiz, hiri honetako biztanle gehienak ere zerbaiten esperoan daudela, baina, lasaitu, gelditu eta zeren zain dauden hausnartu beharrean, ahalik eta denbora gutxienean ahalik eta gauza gehien egiten saiatzen dira, esperoa desagertuko delakoan edo gertatu beharko litzatekeen hori gertatuko ez den beldur direlako.

Etxera itzuliko naizen egunaren zain bizi naiz, berriz maiteminduko naizen egunaren zain, Euskalduna desagerrarazi zutenek egindakoa ordainduko duten egunaren zain. Hortzez eta haginez hobetu gura nuen herria milaka kilometrotara dago, ezin ditut munduari egin diodan ekarpenaren emaitzak ikusi.

Erbesteko bakardade honek erotu egingo nau. Bego hil zelarik ere, antzera sentitu nintzen aldikada baten. Samaldan bakarrik. Kartzelatu ninduten arte.

Euren burua aurrerakoitzat duten guztiek hiri honetara etortzearekin egiten dute amets. Abangoardiarik abangoardistenak berton daude, mundu osoa ezlekutar hauen doinuetara dantzatzen da... Hemen «zertan diharduzu?» galdetzen dizute beste edozer baino lehen. Ez dute ulertzen «ez nabil ezertan» esaldia. Zer edo zertan ez dabilena ez ei da pertsona, jendartekide izateko eskubidea galtzen du ezer egin barik itxarotzea maite duenak. Ezlekutar hauentzat ezinezkoa da zereginik gabe bizitzea. Hiltzea bera ere, milaka zeregin horietako bat baizen ez dela dirudi.

Harrian sartu nuen iltzea. Eta hartutako erabaki haiek itzulera bako bidean alderraitu naute.

- Kontatu, kontatu... zer ikasi dun Leioan?

- Txakurren makilakaden beroa ezagutu dinat.

- Lehenago ere izanak gaitun manifa galdaratsuetan.

- Hesirik gabekoetan, ordea. Atzean hormak aurrean poliziak ibili gaitun Leioan ia egunero.

- Ikasle txarrenak bildu zarete hartara.

- Kosta egiten zaidan, horretan besterik ez bada ere, poliziak gu baino azkarragoak direla onartzea.

- Militarrei estrategia militarra erakusten zieten. Ez hadi horregatik harritu. Dena dela, kazetari lanak simulatzera joana hintzela uste ninan; eta kazetariak polizien lagunak ditun, ezta?

Ikasleen antolatzekeo gaitasunak onerako harritu zuela kontatu zidan Begok. Gure institutura-ko biziki baliagarriak izan zitezkeen funtzionamendu erak ikasi zituela Leioako unibertsitateko ikasleengandik. Amorratuta itzuli zen, haginak estututa berba egiten zuen. Begirada antzeman ezinezko norabait finkatzen zuen. Bere kolkora-ko berba egiten zuen. Bere buruari adorea ematen ariko balitz lez, buruarekin baietz esaten zuen. Zeri, ostera?

Zientzia politikoak ikasten ari zen baten lagun handia egin zen hamabost egun haietan.

Eta munduan zuen egitekoa argitu zion miraria ezagutu zuen: desobedientzia zibila. Borroka molde horrek ekarriko ei zigun garaipena. Desobedientzia zibilak aterako gintuen ataka guztietatik. Desobedientzia zibila ala hil.

- Ez din zerikusirik Euskaldunakoek darabiltenarekin?

- Eraginkorragoa dun. Gandhik erabili zinan.

- Baina milioika herrikideren babesean. Eta gainera Gandhik ez zinan ingelesten aurkako borroka armatua gaitzetsi, ez zinan ez bultzatu ez gaitzetsi. Ziurrenik prestakuntza militarrik ez zuelako ekin zionan desobedientzia zibilari. Me-traileta on bat eskura izan balu...

- Gandhi eta Mandela nahasten ditun hik. Gandhik ez zinan armarik erabili. Indarkeriak indarkeria baizen ez dakarren uste osoa zinan. Indarkeria mota ororen aurka mintzatu zunan beti. Fedegizona zunan, inori minik ematearen erabat aurkakoa umetatik, begetarianoa.

- Eta begetarioanoek ezin diton borroka armatuaren alde egon? Zer dakin hik? Bertatik bertara ezagutu huen? Badakin zenbat milioi diren indiarak? Pistola bakar bat desarratu gabe za-

palduko zititzenan ingelesek? Edo zapaltzea ez dun indarkeria erabiltzea? Zomorroa zapaltzen dunanean ez dun indarkeriarik erabiltzen?

- Nik ez dinat zomorrerik zapaltzen. Eta zapalduko banitu ere, ez ditun pertsonak eta zomorroak parekatuko, ezta?

- Zergatik ez? Ez ditun izaki bizidunak, gu legez? Nor gaitun gu zein izaki bizidun zapal dai-tekeen eta zein ez erabakitzekeo?

- Txarriboda batean baino gehiagotan ikusi haut, odolari batu ez zedin eragiten. Hori bai kru-delkeria, ganibeta bihotzean sartu eta odol guztia atera arte izaki babesgabearen heriotza ikus-kizun bihurtua.

- Kristautasunaren aurreko ohitura dun txerri hiltzea. Amamak ez zinan horrenbeste maitasunez hazitako txerria hiltzen ikusi gura. Begirunezko errituala zunan. Zelan jango geninan bestela txerriaren okela, ukuiluan kontzentrazio isila eginda? *Arren, hil zaitetz jan zaitzagun* pankarta erakutsita?

- Desobedientzia zibila beste bide guztiek huts egindakoan erabiltzekoa dun, agintean daudenek entzungor darraitenean gauzatzekoa.

- Eta borroka armatua jolasa da, no!
- Makina bat burubakoren atzamar burubakoa egoten dun pistolaren katuari noiz sakatuko.
- Baita etxeko besaulkian eroso-eroso.
- Aurka bahago gera hadi etxean, aurkituko dinat lagunen bat.

Desobedientzia zibila zeritzon borroka molde haren emaitzak bertatik bertara ikusi ezean, sinisgogor nintzela bota nion Begori. Argia ikusaraziko zidan erantzuna prest zuen daborduko. Henry David Thorearen *La desobediencia civil* liburua eman eta hamabost eguneko epean irakurtzeko agindu zidan.

- Biharamunean Blanco jauna belztuko dinagu eta heu arituko haiz auresku.

Massachusettsko filosofo anarkista ekologista bakezale haren gogoetak mesfidati irakurri nituen, Silvio, Pablo, Sex Pistols, Eskorbuto, Zarama, eta Hertzainaken berbei adiago. Euskalduna zatekeen Thoreau hori? Eta Massachusettsko basoa Iratikoa? 1849an argitaratuak balio zezatekeen 1984an?

- Gure aitaren burkideei irakurtzeko eman ez gero, suemango zioten.

- Zergatik, gobernurik onena batere agintzen ez duena litzatekeela aldarrikatu zuelako?

- Polizieiei aurre egiteko balio ez duelako. Gobernuak estutzeko balio ez duelako. Edo uste dun izara zuriz jantzita akojonatuko ditugula poliziak?

- Komunikabideek arreta handiagoa eskaini zieten Euskaldunako emakumeen protestei, gizonen koktelen suari baino.

- Ez ditun titularrak irakurri, ezta? Ez zagon kazetari paternalista bat baino okerragorik. Irakurri dun *El Correoko* zorritzotako horrek idatzitakoa? Eta gainera, Thoreau horrek gizona, gizona eta gizona besterik ez din aipatzen. Hori bai naturalista! Ezezagun hago, Bego, galbahean zulozarrak egin dinatela ematen din. Edozerk txunditzen hau?

- Egindakotik ikasi behar dinagu. Gandhik, Martin Luther Kingek edo Mandelak aintzat hartu bazuten, ez dun horren ezdeusa izango. Proba ditzagun Thoreauren teoriak, eta gero gerokoak.

- Blanco falangista hori izorratzeko balioko badu, lagunduko dinat.



- Ez nekinan horren herratsua hintzenik. Helburutzat mina ematea dutenekin ez naun egundo barkabera izan. Eta hi?

- Ni ere ez, baina Gandhi ziur baietz. Ez dun esan fedegizona zela eta txikitxuterik hurkoari minik ez ematekoa? Barkatzen ere irakatsiko ziotenan.

Hurrengo aste osoa eman genuen, Blanco irakaslearen zein institutuko zuzendaritzaren jokatubidea salatzeke burutu asmo genuen desobedientzia zibileke lehen ekintza haren nondik norakoak gu bion artean edo ikaskide gogaikideekin batera gauzatuko genuen erabaki ezinik. Ondorioak pisatu genituen balantzan. Artaldearen babesak ezkerretara desorekatu zuen. Esker onekoa iruditu zitzaigun Blanco jaunari, Espainiako Historia eta Geografia horren gogotsu irakasten zizkigunez, guk geurea erakustea.

Zelan? Irteeran itxaron, eskurik esku katebegiak osatuta Euskal Herriko mapa irudikatu eta inguratu egingo genuen; ez genion luzaroan irte ten utziko.

Euskal Herriko zazpi hiriburuen izenak tamaina handiko margotuko genizkion auto erosi berrian.

Zazpi lagunek, Euskal Herriko zazpi probintzien izenak agertuko zituzten kartoizko afixekin pertsekutatuko genuen, bera nora gu hara.

Astebetetz, atsedendietan, institutuko jolaslekuan, bulegoko leihopean, Pantxoa eta Peio, Benito Lertxundi, Mikel Laboa eta Errobiren kanta abertzaleenak kantatuko genizkion.

*Euskal Herriaren Historia Ikasi Gura Dugu* pankarta eskegiko genuen institutuko teilatutik behera. Teilatuan bik eutsiko genion pankartari eta behean beste hainbestek, bikoteka.

Baldeak Nerbioiko ur lohiaz bete, Blanco jaunaren atzetik isuri eta oihukatuko genion: *zapal-tzen duzun lurra zikintzen duzu!*

- Asanblada kideok, lagunok, denak dira proposamen originalak, ikusgarriak, ez-ohikoak. Baina eraginkorrak izatea da gure helburua.

- Eta zergatik ez dugu zubiaren bestaldekoekin bat egiten? Etsaiak berberak dira eta komunikabideek kasu gehiago egingo ligukete.

- Euskaldunakoek deitutako mobilizazioekin bat ez egiteari ez deritzot batere ondo.

- Edozer eginda ere, indarkeria barik gauzatzeari ezinbestekoa da.

- Euskaldunako langileekin bat egiteaz ari da. Defenditzeko indarkeria eta txakurrena paretzat ditun?

- Desobedientzia zibila bultzatzeko proposamenaz berba egiteko deitu zaituztegu. Gurekin bat egiten ez baduzue, hor konpon, guk geureari eutsiko diogu.

- Zertaz ari haiz, zer desobedientzia zibil eta zer kristo!

- Hi ados hago, Lorea? Hire aita eta poliziak maila berean jarri ditin Begok. Akorduan hago?

- Hik zer proposatzen duk, Blanco harriakatzeari? Koktelez frijitzea?

- Ezertarako balio ez duten ekintza bake-tsuok baino eraginkorra izango dun, ziur.

- Blancoaren aurkako pintada egin eta ezkutatzeaz bezain eraginkorra.

- Blanco ez da inor, ez da ezer, irakasle beko-kilun zoritxarreko bat, besterik ez.

- Ez dago bakarrik, ostera. Zuzendaritzaren babesa du.

- Poliziak atxilo eroatea gura duzue?

- Ahaztuko ez duten irakaspena ematea proposatzen dut. Orain arte proposatu dituzuenetatik beste zerbait.

- Nik ez diot inori minik emango.

- Beste masaila jarriko dion, orduan.

- Zerrendatu ditugun ekintzetatik edozein zertuta, min itzela sorraraziko diegu, ez zalantza izpirik izan.

- Gure aurkako neurriak hartuko dituzte, amorruez hartu ere.

- Eta bakarra beharrean denak burutuko bagenu? Nahigabea laukoiztuko genieke, ezta? Alegia, taldeka ekintza horiek guztiak egun bakar batean eta ordu berean burutuko bagenu?

- Blanco eta gainontzeko irakasle fatxei erantzuna emateaz ez eze, gure ikaskideek gurekin bat egitea lortu beharko genuke. Nik ederto deritzot ekintza bat baino gehiago egiteari, hartara nork bere neurrikoan parte hartu ahal izango du, eta batek bestea babestuko dugu.

- Baina kartelak jarrita iragarritz gero, galara-  
zi egingo digute.

- Horixe da desobedientzia zibilaren oinarrie-  
tako bat, debekuei eta injustiziei era baketsuan  
aurre egitea. Ekintza bakoitzerako arduradun  
parea izendatu eta lanean hasia proposatzen  
dute. Gaur zortzi batzartuta findu beharrekoak  
findu eta bi egun geroago burutu genitzake ekin-  
tzok.

- Ekintza bakoitzeko zenbat lagun bilduko di-  
tugu? Gutxienez ez dugu bermatuko?

- Kopuruak ez du horrenbesteko garrantzirik.  
Arreta geureganatuz gero nahikoa garaipen  
izango da.

- Baina lau katu barregarri geratuko gara.

- Arreta geureganatu? Blanco irakasleari eta  
zuzendaritzari zertarako prest gauden jakinaraz-  
teko ekintzak zirelakoan nengoen, ez argazkie-  
tan ateratzeko umekeriak.

- Guk eta Blanco irakasleak baino ez badugu  
ekintzon berri, alferrik izango da.

- Zergatik alferrik? Euskaldunoi begirunea  
zor digutela ikusarazteko balio badute, helburua  
aise beteko dugu.

- Ekintzongatik institututik bota egingo gaituzte, lagunok. Burutzen duguna burutzen dugula, askoren artekoa eta ikusgarria ez bada, gure ikasle ibilbidea bertan amaituko da. Lau katu barragarri atoa kanporatuko gaituzte. Berrehun etxera bidaltzeko nahikoa adorerik ez dute.

- Ikusgarria baina kanporatzeko ez bestekoa datekeen zer edo zer ere egin genezake; berbarako, elkarretaratze isila.

- Hori-hori, zergatik ez dugu eskutik helduta otoitz egiten?

- Bitxiloreak batu, ileen artean erakutsi eta *Blowing in the wind* kanta genezake.

- Munduko borrokalaririk miresgarrientzat duzue zuen burua eta ume moko batzuk besterik ez zarete.

- Nik kantariak bilduko ditut. Astebetean hiru-lau kanta prest izango ditugu

- Autoa margotuko diotenak artalderatzea neure kontu.

- Arduratuko naiz pankarteroak eta kartele-roak estutzen.

- Guk ez dugu umekerietan parte hartuko.

Zortzi egun genituen, beste bi kiderekin batera xederatu asmo genuen ekintza taxutzeko. Bego eta biok igoko ginen institutuko teilatura, pankarta eutsi eta aldarriak zubiaren beste alderaino oihartzunaraztera.

Biharamunerako Begok jokamolde zehatza proposatua zigun: nor nondik zein ordutan igo gintezkeen teilatura, pankarta non ezkuta genezakeen, zer oihukatuta geuregana genezakeen arreta. Laukidun bitakora batean errotuladore beltzez institutuaren irudi zehatza zuen egina: gorriz gu non kokatuko ginen izen-abizenetako lehen letrek berezituta, urdinez orduak minutu eta guzti, eta berdez zein aldarri oihukatu behariko genuen uneoro. Orriaren kopiak banatu zizkigun.

- Beste biei ez zienat ezer esan. Hi eta biok teilatuko eskulekura eta pankartara kateatuko gaitun.

- Zergatik kateekin?

- Osterantzean berehala jaitsaraziko gaitizten, eta desobedientzia isila bihurtuko dun gurea.

- Kazetaritza ikasketei agur esan beharko dien.

- Kazetaria izango naun, Espainiako erregearen oniritzi barik ere.

- Ez zaidan bidezkoa iruditzen. Ondorioen kolpeak taldeka jasotzea erabaki dinagu. Ez daukan besteok baino gehiago jasotzeko eskubiderik.

- Ekintzok burutzeko ideia nirea izan dun. Zilegitasuna inork izatekotan neuk dinat. Neu kale-ratu ninditenan egin ez nuen zerbaitengatik. Nire curriculumetik desagertuko ez den orbana aldean eroango dinat betiko.

- Kateatzen bagara, umeen protesta baino sano larriagotzat hartuko dituen. Poliziei hots egingo zieten atxilo eroan gaitzaten. Kartzela zigorra ezarriko ziguten.

- Hire aita eta Euskaldunakoak etorriko ditugu askaraztera.

- Goizean entzun zionat aitari Fanonekin telefonotik berbatan. Greba orokorra prestatzen ari ditun. Galtza bete lan izango dituen gure okerkeriei jaramon egiteko.

- Greba orokorra? Noizko?



- Abenduaren 21erako deituko ditene, hori ulertu nionan Fanoni.

- Zergatik ez ditene orain arte iragarri?

- Hori gurea baino hiru egun geroago dun. Itxarongo dinagu.

- Atzera egiteko hiru egun gehiago. Sinetsita ez bahago, esadan oraintxe bertan, ez dinat gal-tzaileekin borrokatu gura.

- Atzera egingo dutenak ditinat gogoan.

- Guk atzera egiten ez badugu, besteek ere ez ditene atzera egingo.

- Idatziak ikasgelaz ikasgela irakurtzearen eta Poliziak atxilotuko hauen arriskupeko ekintza burutzearen artean alde makala zagon. Baten-tzat baino gehiagorentzat olgeta moduko bat dun ikasleen mugimenduan militatzea, lagunartean izen ona lortu eta norbait izatea erdiestea. Txakurrak zaunka hasi orduko Artxandan egon-go ditun.

- Hi ez haiz beldurtuko, ezta? Zergatik epai-tzen dun horren merke? Zergatik uste dun besteak ez direla hi bezain militante?

- Hik esan dun, guk aurrera eginez gero atze-tik etorriko zaizkigula; hi ari haiz liderrarenak bo-

tatzen. Erakutsi ez dutenengan horrenbeste konfiantza ez izateko baizen ez dinat esan.

- Hi heu ere ibilita hago Euskaldunakoen aldeko manifestan, hik ere ikusi ditun institutuko ikaskide asko langileekin.

- Guraso dituztelako gehienek.

- Berdin din. Euskaldunako langile askoren alaba-semeak etxean ezkututzen ditun, uko egiten zioten protesta egiteari, izua zioten beldurra-ri.

- Poliziak egin diezaiekeenagatik.

- Hain zuzen, horregatik ez ditun gure kideak gutxietsi behar.

- Ez ditinat gutxietsi gura. Ez dinat etorriko ez denaren zain egon gura. Inork ez zakin zehatz zer den desobedientzia zibila, eta garaiz ulertarazten badien ere, poliziak etorriko direla susmatu ditzen gehienek. Soldadu gutxitxo horren lubaki zabalerako.

- Ez ditinagu soldaduak behar.

- Egia, barkatu, kolpe zakuak behar ditinagu.

Laguna horren tinko, horren eskier ikustek poza eta beldurra eman zizkidan. Institututik kaleratuta, unibertsitatean igarotako hamabost

egunek aldaezina zirudien etorkizunari buruzko iritzia irauli zioten Begori. Ezagutzen nuen, Begok beti aurreikusten zituen ondorioak. Bego ez zen odolberoa, zapatei baino zeruertzari begiratzen zion, datorkeenari. Sua izan bazuen, baina ez zitzaion ezustean isiotzen, luzaroan putz egindakoan baino.

Niri neuri, etorkizuna zer demontre ote zen batere argi ez edukitzeak bestelako askatasun eta norabide eza zemazkidan. Nahita ere ezin nuen Bego halakoa izan.

Alabak etorkizuna bermatuta izatea amesten zuen Begoren aitak. Amak ondo iritziko zion alabaren hautabideari, barru barrutik, ezkertiarren ustezko derrigorrezko koherentzia madarikatuta ere.

Gure aita zubiaren bestaldean ari zen poliziekin borrokan. Teilatu batera igo eta, kateatuta, hiru lau orro botatzeagatik ezingo zidan kargua gogorregi hartu, komisaldegira eroango baninduten ere. Alabentzako irakasgaiak, gedarrak, kontu eskeak etxekoandrearen esku uzten zituen aitak. Buzo eta kasko atzean kalean, emaztearen gona atzean etxean.

Amari burutu asmo genuenaren berri eman erabakitzen joan zitzaizkidan egunak. Senarraren egoerak gogoia baino gogoa baino atxikitzen bazion, nire punkeriak erabat lanbrotuko zion. Batetik Barrionuevorenara, bestetik Begorenara. Horra askatzen gatxa den korapiloetako bat. Geure uste sendoekiko fidela izan ala maite gaituztenek paira dezaketena saihestu? Nire uste sendoei kasu egin ala amari eragingo nion sufrikarioa ekidin?

Aitak ez zuen beste irtenbiderik izan: Euskalduna itxita, lanpostua galduko zuen; borrokatzea zuen bide bakarra. Etxean gelditu izan balitz, amak, ahizpak eta hirurok gutxiago sufrituko genukeen? Bere betiko lagunak, lankideak, izerdikideak abandonatu izan balitu, auzoan burua tente ibiliko ginatkeen?

Amari galdetu ere ez genion egundo egin. Zetorkiona hartzea zegokion, amaizatez, berez.

Jatorduetan laneko gorabeheraz berba egiteko aitak jarritako debekuak indarrean zirauean, begi-zuloek argi adierazten zuten etxeko lauroi loa galarazten ziguten galderak berberak zirela. Amarenak ziren begi-zulorik sakonenak.

Senarraren isiltasunaren bozeramaile, alabei bide zuzena hautatzen irakasteko arduradun. Bizitza oso bat eta hamaika gehiagotan ere ezingo zukeen iragarri gure amak zetorkiona. Bizitza oso bat eta hamaika gehiagotan ere ezingo zuen aitak minbizia garatzea ekidingo, Euskaldunaren desagertzea saihestuko, alaba zaharrena naizen hau sasia betiko ostentzea galaraziko.

Zama hark ernarazitako konkorra irudikatu nion behin baino gehiagotan, sukaldean, laurentzako mahaia atontzen, begirada koilarak desitxuratutako aurpegian.

Beharrik Euskaldunako emakumeek senarren egoeratik protesta egitea erabaki zuten. Poliziei bertatik bertara oihukatutakoek baretu egingen zuten gure ama. Amorratuta baino baretuta itzultzen zen etxera, konkorra desagertuta, tente.

- Zelan gaurko manifa, ama?

- Emakumea naizelako ez didala aurpegia txikitu esan dit txapeloker kakati batek. Oilobusti, txaldan, ustel, txepel, mertzenario, bihozbaiko, zakilmehe, ganorabako, zerritzar, nazkante, zantar... zer ez diogu pankartakideok bota!

- Entzun duzu, aita? Esaiezu etxean geratzen diren auzoko txikiteo koadrilakoei, San Mamesera baino hobe dutela manifatara joanda asaskatzea, arbitroei baino poliziei edozer esatea lasaigarriagoa dela.

- Horixe dena lasaigarriagoa, eta endemas kontzientzian ez du batere eragin txarrik.

- Beldur itzela, ezta, ama?

- Baita bizirik nagoen sentipena ere.

Gurasoen belaunaldikoengan eragina berandu antzematen hasi zen eran, Bego, Amaia ahizpa eta gure belaunaldiko askok eta askok gure sinesteak, pentsamendua, diskurtsoa eta iruditeria liburuetatik beste elikatzen genituen kantuetatik. Galbaherik gabe irensten genuen irakurtzen zein entzuten genuen hura. Mendeetan gaitibu izan gaituen Eliza katolikoaren eraginez, etxea, familia, zintzoa izan beharra, modernizatu beharreko zaharkeriatzat genituen; eta eskolak berak ez zigun horretarako bitartekorik eskaintzen, automata hezi gura gintuzten. Hertzainakek *Estatuari gerra beti*, Zaramak *Goazen borrokara* eta Eskorbutok *Mucha policía, poca diversión*. Edoskitzeko errape ederrak hirurak.

Etxean politikaz azaltzen ez zigutena ulertzen genien kantuoi. Errepikatzearen poderioz iltzatzzen zitzaizkigun estribillo horiek ziren gure diskurtsoen muin, pankartetako lelo, txostenetako izenburu.

Norbaitek halakorik aurpegiratu izan baligu, ezezko borobila erantzungo genion, hori baino mamurtuagoa genuela diskurtsoa, ez ginela inoren esanen errepikatzaille hutsak, geuk garatzen genuela gure pentsaera. Nik neuk hurrago sumatzen nituen kantuok Euskaldunakoen borroketa-tik Thoreauren liburu-etako teoriak baino. Begok onartzen zuen, zapalduak baduela indarra erabilita erantzuteko arrazoia; osagarritzat zekusan indarkeria eta desobedientzia zibila. Bigarrenaren alde egitea erabaki zuen, lehena gaitzetsi gabe.

Begorentzat ziren galderak neure kolkorako gorde nituen: zelan borrokatu indarkeria erabili barik?, zer egin kolpatzen zaituztenean?, zelan aldarazi indarra besterik erabiltzen ez duenaren ustea? 80ko hamarkada hartan bere burua, bere erabakiak eten barik ezbaian zituen bakarrene-tarikoa ote nintzen?

Begok bazuen haizeari kontra egiteko adorea, eta halaxe erakutsi zidan teilatuko kateatzeaz aholkua eman ziezagukeen bakarrenetari-koak erotzat hartu gintuenean.

- Greba orokorra langileena da. Zertara dator heroiarena egiteko asmo hori?

- Desobedientzia zibila aldarrikatzeko ekin-tza izango da, Fanon, zuen borroka lagunduko duena.

- Zelan lagunduko digu, egun osoa komisal-degi atarian eman beharko badugu aska zaitza-ten agiraka?

- Langileak eta ikasleak elkar hartuta, Fanon. Zer gehiago behar dugu iraultzarako?

- Gutxienez Bilboko ikasle guztien erdia. Zen-batekoa gehitzen duzue Loreak eta biok?

- Gu artzain txakurrak izango gara, bideratu-ko dugu artaldea.

- Eta lortuko duzue artzain egokiari kasu egin diezaioten? Aginte makila askotxo altxatuko dira greba egunean!

- Gazteak gara, ez hezigabeak!

- Ahaztu erokeria hori. Sua, kea eta odola gura beste izango duzue etorkizunean ere. Orain



gure ordua da. Bilbo gudu-zelai bihurtuko dugu, gure azken erasoia izan daiteke, sekula ez bezala oldartuko gatzaizkie, estatuaren zimentarriak dardaraziko ditugu. Zaudete babespean.

Fanonen bedeinkapen ezak amore emanaraziko zuelakoan, inoiz ez bezala sumindu zen Bego. Ez zegoen atzera eginaraziko zuenik. Erantzunik garrantzibakoena aspertu arte hausnartzen zuen emakumea, gutxitan izan arren hanka sartzeak onartzen zituena, nerabe buruarin egoskortua bihurtu ote zitzaigun goizetik gauera?

Nik banekien Fanonek ez ninduela egunkarierako titulargai gura: ez zitzaigun komeni inork nigan gehiegi erreparatzerik. Begori ari zitzaion agiraka, baina begietako berbak niri ari zitzaizkidan.

Carlton hoteleko joan-etorrien berri jasotzea zen nire egitekoa. Moyua plazan liburua irakurtzen ari nintzela, atzealdeko orri zurietan orduak eta izenak elkartzea. Gobernu Zibileko ateak jagoten zituzten guardia zibilek terroristatzat har-

tuko ez zuketan nerabe bakarti irakurzale betaurrekoduna bihurtzeko agindua eman zidan Fanonek. Tabernako lanak utzi nituenetik, astitsunenbilen, gurasoen ustez, liburutegian ikasten.

Barrionuevo ministroa, polizia zein alderdiko buruei Euskaldunako langile matxinatuekiko zelan jokatu erakutsi eta emaitzak bertatik bertara ziurtatu arte geratuko zen Bilbon. Gutxi gorabehera astebeteko kontua, aste eta erdi gehiezez.

Fanonek hasieratik argitu zidan, bahiketa bere ideia zela, ontziolako lankideek ez zekitelafitsik; hilabeteetan hausnartu ondoren, Euskalduna ez desagerrarazteko, milaka lanpostu galdu eta milaka familia ez desegiteko aukera bakarra zela. Aspaldian Baionara egindako horrenbeste joan-etorriri buruz galdetu nionean, ETAk ez zuela bere gain hartuko erantzun zidan, logistikari zegozkion zalantzak argitzeko burutu zituela Lapurdiko hiribururainokoak.

- Hemezortzi urte bete barik dituen bati taimainako erantzukizuna eskatzea ez ote da lar-txo?

- Fitxatu gabeko norbait behar dugu, Lorea. Eta euren burua heldutzat duten askok baino zentzu gehiago demostratu izan didazu zuk. Zelatan egon eta koaderno batean izenak eta orduak apuntatu besterik ez duzu egin behar.

Ez nion zeregin arriskutsuaren tankerarik hartu eta berehala erantzun nion baiezkoa. Gaur argi daukat, Fanoni bost axola zitzaiola ustez bere lagunik onena zenaren alaba adingabea atxilotu eta ekintza terrorista batean parte hartzeagatik kartzela urte amaigabeetara zigortzea. Inor ez da ezinbestekoa.

Begok ez zekien deus horri buruz. Ez nion fitzik esan, behin baino gehiagotan aitortzeko gogoia izanagatik. Gorde egin nion, jakin izanez gero, atzera eginaraziko baitzidan. Amak arrazoi zuen: Fanonek eskatuz gero, burua zubitik behe-ra botako nukeen. Haren berba bakoitza egiaztat neukan, haren teoria politikoak ukaezin. Mutilzahar bakartia iraultzaile miretsiena.

Txalokoa emanda esnaraz nintzakeenik egotekotan, Bego zen hura. Jo eta neurez pentsatzeko ohartaraziko zidan Begok.

Gaur neuk emango nizkiokeen mila eta bat gehiago, Thoreau, Gandhi, Luther King eta enparau bakoitzeko bana.

- Etsaia edozertarako prest zagon. GAL sortu dituen. Gutarrak bahitu, torturatu eta hiltzeko asmo sendoa dituen. Langileak belaunikarazteko milaka polizia bidaliko zizkiguten. Eta gu bitartean liburu artean?

- Baina hi ez haiz indarkeria erabiltzearen kontrakoa?

- Horixe baietz! Baina koldarregiak bagara armak hartuta ezer iraultzeko, gutxienez egin diezaiegun aurre! Atzera egingo ez duen ahalik eta lagun gehien bildu behar dinagu, borroka moldeak herritarron ausardia mailara egokituta.

- Orduan proposa ezan nork bere etxe barrutik borrokatzeko eraren bat. Ez zakinat, menturaz, arrautzak eta tomateak banatzen hasi beharko dinagu, nork bere etxeko leihotik jaurti diezazkion Poliziari.

- Hik uste baino gehiago zagon kalera atera eta gogor egiteko adoretzu. Eraginkorra izango

den moldea besterik ez zienagu proposatu behar.

- Eraginkortasun madarikatua! Bihotzarekin ari hintzela uste ninan.

- Bihotzarekin ari naun, baina ez horrekin bakarrik. Fanon bera ikusiko dinagu komisaldegi atarian aska gaitzaten oihuka, inor baino ozena-go.

- Fanon atxilotutako langileak aska ditzaten eskatzera hurreratuko dun komisaldegira. Abisatu zigula esanda zurituko dun.

- Agertzen ez bada akabo gure harremana, ez zionat barkatuko.

- Egurtuko hauten poliziei ez dien zirkinik egingo, baina adiskidea galdu egingo dun erreskatatzera etorriko ez zainalako?

- Adiskide-adiskidea ere ez dinat. Gurekin bat egiten ez badu, gurago dinat ezaguna ere ez izatea.

Kateak eta giltzarrapoa erakutsi zizkidan bezperan. Erosi berriak ziruditen. Zilar koloreko kate lodia, behin zarratuta berriz ez zabaltzeko diren ateetan jartzen diren horietakoa. Giltzarrapoa

urre kolorekoa, atzamar txikia sartzeko besteko zuloduna. Kostako zitzaien polizia apurtzea.

Begoren eskuei ez zerien izerdirik. Eten genituen makina bat aldiz eskola orduak, herri-mugimenduek deitutako mobilizazioen berri emateko; ehunka kilometro genituen korrituak, gomazko pilotetatik ihesean, aldarri askotako manifestazio jazarrietan. Beti urrunetik, beti arrisku neurtuan. Litekeena zen teilatuan orduak ematea poliziek inguratuta, kateak moztu ezinak astiro-astiro irakinarazitako ostitzar giroan; borrakaden, irain sexisten eta laztan polizialen begipuntuan.

Carlton hoteleko zaintza lanek amiñi bat ere urduritzen ez nindutena, izu ikarak gogortuta nengoen institutuko teilatuan biziko genuena gogora ekarrita.

Begok lehor zituen eskuak, zuri, hotz, berben antzeko.

- Liburuetarako motxila eta guzti igoko gaitun teilatura. Kateak eta giltzarrapoa neuk igoko ditinat. Teilatura ematen duen atea kateaz eta giltzarrapoaz zarratuko dinat. Bitartean hik pan-

karta teilatutik behera botako dun. Buruan daukan plana?

- Buruan ditinat marra beltzak, argibide berdea, puntu gorriak, ordu urdinak. Ezinegona txapelokerrek sortzen zidaten. Teilaturako atea zabaltzen denbora galtzen badute, are amorratua-go jazarriko gaitizten.

- Ahalik eta denbora gehien irabazi behar dinagu, komunikabideek grebari ez eze geure ekintza honi ere arreta jar diezaioten. Jakinaren gainean zauden.

- Nortzuei hots egin dien?

- Jakin beharreko guztiek zakiten.

- Fanonek arrazoia din, heroi bihurtu gura dun.

- Hori baino gehiago.

Itxaropen poxi bat nuen, greba orokorrak lanpetuta, ez zela poliziarik agertuko gure institutu-ko teilatu hartara, ez ziotela ume moko baten abisuari jaramonik egingo, langileei ekintzaren bat egiteko astia lortzeko egindako abisutzat hartuko zutela Begorena.

Bezperako gaua oso-osorik itzarrik eman nuen, itzarrik ametsetan, biharamunekoa guk aurreikusi legez gertatu zedin esna, ametsetan:

Poliziak ez zitzaizkigun piztia amorratuen gisan oldartuko.

Kateak apurtu bitartean ez gintuzten borrekin jipoituko.

Eskuluze batek ez ninduen goitik behera eskuztatuko.

Ez nion barrabletan ukondokoarekin joko.

Ez zidan ostikoa jota Begoren kontra estropezu eginaraziko.

Bego eskuburdinekin egongo zen.

Eta ez zen teilatutik eroriko.

Nik ez nuen jagoitik haren aurpegia amets-okerretan presente. Aurpegi hura, begirada hura, erortzen ari zela, ez izuak zurbildua ez ezintasunak desitxuratua, onarpen keinu etsigarria erakusten zuen agur hura ez zitzaidakeen amets-okerretan betiko iltzatuko.

Gerta zitekeena aurreikusi bazuen, zergatik ez zuen zirkinik egin? Gertatuko zena aurreikusi zuelako ez zuen zirkinik egin? Teilatu hartatik eroriko zen jakitun proposatu zidan heldulekura



kateatzea? Benetan deitu zien polizia bezperan?  
Tamainako ankerkeriarik ez nion egundo igarri.  
Martiri izateko deliberoa ez nion sekula antze-  
man. Oraino ez diot irakaspena ulertu.

Amets-oker hori eroan dut aldean, itzalaren  
ordez, urte luzez:

Bego azalpenak ematen ageri zait.

Zerbait ahoskatzen ari da, baina ez diot en-  
tzuten.

Ez dut esaten duena ulertzen.

Begitarte gero eta ilunagoa du.

Gero eta haserreago dago.

Nigandik urruntzen da.

Buruarekin legez ezker eskuko atzamar era-  
kuslearekin ezetz dio.

Ahoa belarrietaraino zabaltzen du.

Oihuka amorru bizian ari dela dirudi.

Entzungor darrait.

Berak ere ez didala entzuten konturatzean,  
izerdi batean hasten naiz.

Kontuz ibiltzeko diotsot, amildegiaren ertza  
bertan duela. Kasu, amildegia!

Ez du atzera begiratzen.

Badoa.

Poliziak kargugabetzeaz gain, desobedientzia zibilagatik eta Begoren heriotza inboluntarioki eragiteagatik ezarri zidaten zazpi urteko kartzela zigorra ia osorik betetzeko bost urte eta erdi eman nituen, Yeseriasen lehenik eta ondoren Martuteneko espetxean; hemezortzi urte bete arteko hilabeteak Amurrioko erreformatorioan igaro behar izan baintuen. Arinegi gertatu zen. Begorena onartzeko urteak behar izan nituen. Nire bizitzan geldialdia bailiran bizi izan nituen erreformatorioko eta kartzelako urteak. Kartzelatik irtendakoan ere, gutxitan oroitzen nituen urte haiek. Denboraren erlojua nik agindu barik gelditu izan balitz legez. Zer zioten etxekoek?

Neuk ere baditut kontatu gura ez ditudanak, berbarik berba esanez gero, sendatuko ez den zauria sortuko dizutelako ahaztu gura dituzunak, errubakoa izanik ere, errudunik errudunena sentiarazten zaituzten horiek. Nik ere gurago ditut giltzapeturik mantendu, Peru.

Erreformatorioan eman nituen hilabeteetan ez nuen apenas berbarik egin, ez bazen amare-

kin, aitarekin eta ahizparekin. Leihorik gabeko geletan zarratzen gintuzten; ez ginen egunean lau orduz baino gehiagotan irteten; patioko denbora bakarrik ematen genuen, hurkoarekin berba egin ezinik; hormak ia beltz koloreko grisak ziren; egunero goizeko 06:00etan mezetara joanarazten gintuzten; jatorduetan albokoari begiratzea ere galarazten ziguten. Erreformatorioaren ardura zuten Religiosos Terciarios de Ntra. Sra. de los Doloreseko torturatzailen esanetan, egindako bekatuengatik penitentzia gogorra zegokidan.

Yeseriasen eta Martutenen iragandako urteez askoz oroitzapen gozoagoak ditut. Arrazoi politikoengatik kartzelaturako gizona zkoak Herrera de la Manchan pilatu zituzten. Kanpoan GALekoak gogor ari ziren, eten barik hiltzen zituzten ETAko militanteak, ehiztarien antzera, presa berezia balute legez, ahalik eta denbora laburrenean ahalik eta pieza gehien zenbatu asmoz. Ni, ustebakoan, ETAkoa nintzen. Zio politikorik gabeko arrazoiengatik espetxeratutako emakumeek, modulu-kide nituen militanteek ez bezala, ETAkotzat hartu ninduten. Lehen egunetan azal-

du nien, desobedientzia zibileko ekintza batean polizia batek gehien maite nuen lagunaren aurka bultzatu ninduela, eta laguna protestarako generabilen teilatutik erori zelako sartu nindutela preso, poliziek eragindako istripu baten ardura-dun egin nindutela. Barrionuevo zelatzeko kontuez, prefosta, ez nien aztarrenik eman.

- Bai, bai, baina hori ETAkoek baino ez diten egiten.

Inteligentzia zerbitzuek ere ez zuten jakin Barrionuevok Carlton hotelean eman zituen egunetan neuk zaindu nituela haren sartu-irtenak, Euskaldunako langile baten aginduz.

Fanon libre zen. Ni arriskutik salbu, kartzelan.

Film txarretan baizen gertatu ezin diren istripu horietako baten ondorioz nengoen preso. Eta Espainiako justizia ustelaren aginduz.

Nire uste harroan, banuen formazio politikoa. Fanonekin orduak eta orduak iraganda nituen, historiako iraultzei nahiz langileen borrokei buruzko doktrinak irensten; Bilboko Gaztetxean antolatutako era guztietako ikastaro mordo batean parte hartu nuen; Jarraiko pre-militantziak ere egin nituen.

Kartzela besterik zen. Kartzelak nintzena baino askoz gehiago apaldu ninduen, kartzelak nintzena baino elkartasun zaleago bihurtu ninduen, bizi gintuen jendartea ulertzen lagundu zidan, nire egitekoa zein izan zitekeen argitzen, kartzela pertsonaren asmakizun ankerrenetan ankerrena dela konprenitzen. Kartzela ezerezetik hastea da, eta nik ez nuen astirik. Kartzelako egunak argi eta, era berean, lauso gogoratzen ditut. Litekeena da egunerokotasunak zorionik ekarri ez izanak eragina izatea. Euskal Herriko egoera politikoa okertu zen eran krudeldu zen gudanako jarrera. Urteetako tratu txar haiek oroimenaren ziega baztertu batean mantendu ezean, etorkizunean lorik ere ezingo nuela egin konturatu nintzen. Ez dut ahaztuko. Ez diet oroitzen horiei zoriontsua izateko dudak eskubidea ukatzen utziko, ez diet borraroei burua eskainiko.

Martutenera amak berak bakarrik egiten zizkidan bisitetan kontatu zidanez, Euskalduna jitoan zegoela zirudien, ez zegoela egoera arteztuko zen itxaropen zantzorik, aitak gero eta ordu

gutxiagoz biltzen zituela begiak, amets-okerrekin eraginda izerdia uholdeka esnatzen zela gauero.

- Zuloak baino amildegiak ditu zuen aitak begietan.

- Zuretan ere ez da sakonera ikusten.

- Amets-okerrekin noiz esnaraziko duten zain egoten naiz, neuk ere bere amets-okerrak berberak izango ditudan beldur. Zelan edo halan amaitzea baizen ez dut desio.

- Ezin gara belaunikatu, ama. Ezin dugu amore eman.

- Kartzelan zaudela esaten duzu hori; ez duzulako, nik bezala, aitaren nahigabeagatik gauero loa galtzen. Ez dit ezer esaten, baina badakit aukeran ez litzatekeena poliziekin borrokatzera joango; igarri egiten diot, haren aurpegi zurbilak ikara erakusten dit. Goizero ez dakit nondik elikatzen duen ausardiak bizipozerako indar guztia xurgatzen diola ematen du. Gogoan duzu zein gogoko zuen kantuan aritzea?

- Bisitan etortzen zaidanean ez dirudi ezerk larritzen duenik. Aspaldian liburuak ere ekarri dizkit. Ezagun du Fanonek literaturara zaletu duena.

- Horretara eta ez beste ezertara zaletu izan balu!

- Kasu egiten dio, badakizu, baina aita erabakiak bere gogoz hartzeko gai da.

- Gai baina ez nahi. Zu ez zara horretaz irakaspenak emateko aproposena; Fanonek burua erre kara botatzeko esango balizu, ukondoka arituko zinateke lehena izatearren. Zergatik zaude bestela zulo uher honetan?

- Gehien maite dudan lagunaren alboan egotearren nago kartzelan. Ezin nuen Bego erokeria hartan bakarrik utzi. Fanonek ez du zerikusirik.

- Eroekin beti ondo konpondu zara zu. Hemen ere makina bat zoro izango dituzu lagun.

Martutenen egon nintzen sasoian ama, Amaia eta aita nor bere aldetik etortzen zitzaizkidan bisitan, eta bakoitzarekin berba egindakoari kasu egitera, Amaiak baino ez zituen nirekin trukaturakoak etxeko afalorduetan barbarako proposatzen. Amaia zen azkenburukoa jan orduko gordin hitz egiten zuen bakarra, ezer ezkutatzeko beldurrik ez zuen bakarra. Amak *gogor ikusi dut* laburbiltzen zuen nirekin egondako

denbora. Aitak *ondo, ondo, laster izango dugu etxean eta orduan bakea.*

1990eko irailaren 24an irten nintzen espetetik. Uda amaitu berria izanagatik, eguzkiak polito berotzen zuen. Errepidea gurutzatzeko ezker-eskuin begiratuta, Amaia besarkatu nuen errepide erdian. Amak masailak busti zizkidan eta aitak arnasa geldiarazi. Hitzik ez. Poza eta negarra. Aitaren 124an sartu eta Bilbora.

- Auto zahar honenak egin du, aita. Berria erosi beharko dugu.

- Loreak eta zuk erosiko duzuela esan gura duzu?

- Gurpildun galdara da hau. Eskerrak kartze-laldiaren azkenak Martutenen eman dituzun. Yeh-seriastik jaso behar izan bazintugun, ez dakit egosi barik helduko ginatekeen Bilbora.

- Galdarek eman dizute zuri jaten urte luze-tan.

- Bai, eta indabak su gutxirekin pol-pol irakiten edukita jaten dira gozoen; baina gu ez gara indabak, eta ontziolen garaia azkenetan da.

- Modernizatu beharrean gaude, gizona.



- Modernoak ekologistak eta garraio publikoa erabiltzearen aldekoak direla irakurri dut.

- Zer dago gaur afaltzeko, ama? Bero zapa honek letxuga eta tomate entsalada jateko gogoia eman dit. Sei urtean ez dugu baserriko to-materik jan.

- Bihar Areatzara joango gara eta ortutik bertatik batuko ditugu.

**Betiko** ohearen ertzean esnatu nintzen bihar-munean. Kostako zitzaidan ziegako ohea halako bi zena osorik erabiltzen. Sei urteko kartzelak hamazazpiko askatasunak baino arrasto sakonagoa utzi ote zidan? Bilboko Gaztetxeko sasoietan denbora galtzea neritzon lo egiteari, hildakoan etzanda egoteko denbora nahikoa izango genuela errepikatzen genion elkarri zerbezarekin topa egiten genuen bitartean. Kartzelatik irtenda ohea zelan besarkatu nuen akordatzen naiz.

- Amaia, lotan hago?

- Bai.

- Zelan zagon aita?

- Badakin medikuak esan ziguna: bost urte igarota minbizia berriz ez ernetzekotan, arrisku-tik kanpo egongo zela; eta horretarako, jana zaindu eta batez ere estutasunak ekiditeko.

- Istripua izan zunan, poliziak bultzatuta erori nindunan Begoren aurka.

- Kateatu egin zineten Euskaldunakoen greba egunean, Bilbo sutan eta poliziek beruna erabiltzeko agindua zuten egun berean. Edozer gerta zitekeen, onerako gutxi.

- Ezin ninan Bego bakarrik borrokatzen utzi.

- Bakarrik ez uzteko ahalegina ideia zoro hura aldatzeko erabili izan bahu...

- Zoritxarra izan zunan, ez besterik.

- Ez ardura zoritxarrari egotzi. Ardura zuena izan zunan, ez beste inorena.

- Poliziak ahaztu ditun.

- Poliziak ez ditun ahazten, barruan ditinagu beti, gorrotoak bizirik iraunarazten zizkigun. Zuek bazenekiten agertuko zirena, bazenekiten zer egiteko gai ziren, bazenekiten zein den poli-zien egitekoa gerra puta hartan. Teorizatu ere ez zenutenegin ba?

- Polizia hark alua eta bularrak ukitu izan ez balizkit, ez niokenan barrabiletan joko, hark ez nindinan bultzatuko, eta Bego...

- Ez zitenan Bego eskuztatu? Ez zizkiotenan bular eder haiek ukitu?

- Bai, baina...

- Baina Bego ez zunan mugitu ere egin, ezta? Desobedientzia zibila zer den ederto baten zekielako.

- Zer ikusi din desobedientzia zibilak sexu gehiegikeriekin? Zer egin behar ninan, ukitzen utzi?

- Indarkeriarik ez erabiltzea dun desobedientzia zibilaren oinarria. Eta orain utz nazan, lo egin gura dinat.

- Abisatu gabe emakumetu haiz.

- Kartzelan hengoan. Ez hindudan gehiago kezkatu gura.

Hogeita hiru urterekin unibertsitateko ikasketak bururatuta neuzkakeen, erabakita ez nuen ez-dakit-zer izateko tituluaren jabe. Beharrezana zegoenez, menturaz maistra ikasketak egingo

nituzkeen, eskola zein ikastolaren batean ume txikiekin borrokan arituko nintzatekeen. Aita lanik gabe zegoen, Fanonen arrazoiek konbentzitura, poliziekin aurrez aurre borrokan aritu ziren gehienen antzera, uko egin baitzien Espainiako Gobernuak eskainitako birrinei, La Navalen eskaini zieten lanpostua Euskaldunakoa baino maila baxuagokoa eta euren duintasunaren kontrakoa zela iritzita.

- Utzi harrokeriak. Onar ezazue enplegua sustatzeko fondoetan sartzea. Bihar ere jan egingo dugu.

- Ez da harrokeria; harrotasuna da, duintasuna.

- Esaldi horiek Fanonek bota ditzala. Gu lau gosegai gara etxean. Galdu egin dugu. Galdu. Onartu eta segi aurrera, gizona.

- Ez dugu galdu, irabazi egin digute. Ontziola bateko langileak gara, eurak Estatu oso bat. Ez dugu galdu, inolaz ere.

- Orduan onar ezazue irabazi egin dizuetela. Sartu enplegu fondoetan eta kito.

- Egunero oinetan muin emanda bizitzea gura duzu?

- Bost urte baizen ezdira. Bost urte eta gero erretreta.

- Bost egun balira ere. Barruko minbiziak ez-tanda egingo lidake, osorik irentsiko ninduke. Horren erraz ahaztu dituzu gainontzeko emakumeekin burututako protestak? Pankartari oratzen auresku ibili zara, eta orain amore ematea gura duzu?

- Zer lortuko duzu enplegu horri uko eginez gero? Euskaldunaren biziraupenerako zirkinik ere egin ez duen bati eskainiko diote. Kale go-rrian utziko zaituzte. Inork ez dizu berrogeita hamabost urterekin lanik eskainiko.

- Aurkituko dut zer edo zer.

Ama bulegoak garbitzen hasi zen. Arratsaldeko 19:00etatik gauerdira arte.

Amaiak, institutuko azken urtea amaituta, Euskal Filologia gogo biziz ikasteari ekin zion.

**Behinola** Erriberatik udaletxeraino erreka bazterrak bizi zituen ontziola haren arrasto gero eta gutxiago antzeman zitekeen, Deustuko zubitik begira jarriz gero. Odol hotzeko hiltzaileak atoa

desagerrarazten ditu arrastoak. Gehiegikeria iritziko diozu diodanari: aurrerabideak aurrekoa suntsitzea beste irtenbiderik ez du. Zentzua izan zenuenerako, Euskalduna ontziola iragana zen.

Ez dakit, Peru, gure amak ontziola garaiko oroitzapenak kontatuko ote zizkizun edo sufri-menduarekin zerikusia duten oroitzapen guztiekin batera beretzat gordeko zituen. Zure aititak ez bezala, barrukoak ateratzeko joera zuen gure amak, baina maite zituenei samina eragingo ziena ezkutuan gordetzen zuen sakon-sakonean. Kosta egiten zitzaidan sufrikario abisal horiek azalerarazten. Beharrik begi-zuloek salatzen zuten, igarri izan ez banio, minbizia aitaren barruetatik amarenetara igaroko baitzen osterantzean.

- Amaiak esan dit, aitak zinak eta minak ikusi dituela kartzelan nengoen artean. Minbiziari bazka eman izana egotzi dit.

- Ahizparentzat erreferentzia izan zara beti, gurtu egin zaitu txikitxuterik. Begorekin teilatura igota kateatzeari burubakokeria galanta iritzi zion arte. Kartzelan zeundela jakitea jasangaitza egin zitzaion, aitari legez.

- Eta zuri, ama?

- Nori ardura dio? Galdetzea ere.

- Kartzelara egindako bisitetan gero eta begi-zulo sakonagoak antzematen nizkizun.

- Hara, zeuk ere ez didazu mina erakutsi.

- Zeuk noiz erakutsiko zain nengoen.

- Baita neu ere.

- Bego nire lagunik onena zen, lagundu egin behar nion.

- Badakit zenbat maite zenuen Bego. Gu zenbat maite gaituzun jakitea falta zait.

- Edozer egingo nuke zuengatik.

- Hasi zaitez orduan.

- Duela ez horrenbeste, aita lanagatik goiz oheratzen zenean, egongelan izaten genituen berriketaldiekin akordatzen naiz. Hamaikatxo barre eta malko.

- Amaiak ez du horretan zure lekua bete. Astea Donostian ikasten eman eta gero, asteburuetan lagunekin ibiltzen da tirrin-tarran etxeko-ontzako astirik hartu barik. Zulako dardaixa da, ezin geldi egon.

- Eta zergatik ez zara aitarekin asaskatu?

- Hasieran itaurreko aritzen nintzaion, barrukoak kanporatzeko ahaleginetan tiraka eta tiraka. Lantzean, tira eta tira, ateratzen nion zer edo zer, baina gutxi izaten zen. Urduritu egiten zen edo oihuka hasten zen esan gura zidana ulertzen ez banion. Sentitzen duena aurpegira esateko ezintasun itzela izan du betidanik zuen aitak. Izerditan hasteraino estutzen da eta azkenerako ihes egiten du. Ezezko etengabeek etsiarazi naute, eta orain ez dut ezertarako indarrik.

Kartzelan iragandako urteetan hamaika zereginetan irudikatu nuen neure burua. Isolamenduan eduki ninduten guztietan, egun asko izan ziren, lanean hasteko nituen aukerak aztertzeari ekiten nion denbora ahalik eta azkarren iragateko. Aseko ninduen ogibidea hautatuko nuen, astelehenik gabeko lana, pertsona legez beteko ninduen huraxe. Eskolak ematen irudikatu nuen neure burua, batean umeei bestean euskara ikasi gura zutenei. Amaiak esana zidan milaka zirela euskara ikasteko euskaltegian izena ematen ari zirenak, irakasle premia larria zegoela. Gure



hizkuntzaren, kulturaren eta herriaren aldeko lan zoragarria zatekeen, militantea baina ordaindua. Musika talde bateko abeslaria izatea ez zitekeen horren gatxa. Gaztetxean entzun genituen makina bat taldetako abeslariak baino ahots erakargarriagoa nuen, gero eta talde gehiago zegoen musikatik bizitzen. Baina ospearen zama pisutsuegia dela ondorioztatuta baztertzen nuen rockaren izar izatearena. Hamar urteren ostean boterea galdu zuten Sandinistei lagundu niezaiekeen edo Kubara joan azukre-kanaberak moztera. Mundua konpondu gura izatekotan horren urrun joan barik ere, etxean makina bat herri-mugimendutako liberatu gisa lan egiteko aukerak eduki nitzakeela ziurtatzen nion neure buruari. Ziega uzteko azken hilabeteak nituela erabaki nuen. Kazetaria izango nintzen.

Irten nintzen irail hartan bertan *Hemen* eta *Eguna* astekariek euren azken aleak kaleratu zituzten, Jaurlaritzak diruz nahikoa laguntzen ez zituelako. PNVk euskarazko egunkari publikoa sortu gura zuen, eta horretarako dirua behar zuela argudiatu zuen. Zorionez, euskaltzale talde batek, euskara hutsezko egunkari naziona-

la izango zen *Euskaldunon Egunkaria* sortu zue-  
nez, PNVren asmoek ez zuten askorik iraun,  
amore eman zuten azkenean. Itzela da gero,  
gure herrian gertatzen dena. Herritarrek, elkar-  
tu, euren burua antolatu eta gainontzeko herrita-  
rrei proposamenen bat luzatzen dietenean, agin-  
tean dauden politikariek, lagundu beharrean, oz-  
topatu edo fagozitate egin gura izaten dituzte.  
Ez dakit nork errotu zigun kontrolatzen ez dugu-  
narekiko mesfidantza, beldurra. Ezagutu aurre-  
tik, gogokoa izan genezakeen jakin orduko, gai-  
tzetsi egiten dugu. Erantzunik gabeko horren-  
beste gakoren antzera, pertsonok berezkoa du-  
gula esanez zurituko gara, ez dugu sakoneko  
arrazoia ulertzeko ahaleginik egingo. Horrenbes-  
te akats ditugu pertsonok berezko!

Nire amaren ama zen zure birramama Pantxi-  
kek ez zuen iritzi horrekin bat inolaz ere egiten.  
Ez zizun hipotesi filosofikorik eraikiko, ez zizun  
pentsamenduaren klasikoen aipurik botako.  
Berak ez zuela egundo boterea desiratu xuxurla-  
tuko zizun, ez zuela agintzea maite. Sekula ez  
zigun eskurik altxatu. Bera halako emakumeak,  
desagertzen ari diren molde batekoak ziren.

Amak eperdiko hautsak kendu zizkigun apurretan gogor egiten zion: «Ez umeari jo, umeak ez dauka nagusiak txarto irakatsitakoagatik erantzun beharrik».

Pausuz pausu ezagutu gura nuke gurasoen aginduak betetzetik milaka lagunen eguneroko bizimoduan eragin zuzena duten aginduak emateraino pertsonak egiten duen ibilbidea. Apala desitxuratzeraino harrotzen ikusi gura nuke, eta aztertu zelan bihur daitekeen pertsona bakar bat milakaren nagusi. Historian izan diren agintari ankerrenei bihotza harrizko zerk bihurtu ote dien galdetu diot nire buruari sarri. Nork eman ote zion lehen kolpea nori eta zergatik. Zergatik ez diogun ordutik elkar kolpatzeari utzi. Zer sentitzen duen boterea duen jakitun bizi den horrek. H.G. Wellsen denboraren makina hartuta ere, noiz arte egin beharko genukeen atzera pertsona batek beste bat mendean hartu zuen unea kausitzeko. Aurkituta ere, zelan sinetsarazi menperatzaileari, ekintza horrek pertsonen historian milioika hildako eragingo zituela. Horrenbeste bizitzaren erantzule zatekeela ulertuta ere, atzera egingo ote zuen menperatzaileak?, emango

ote zion eskua menperatuari?, onartuko ote zion maila bereko izatea? Eta hori nahikoa izango litzateke Historian pertsonok elkar indarrez ez belaunikarazteko?

Zeinen erraza zitzaigun bizitza amama Panxikeren baserrian igarotako udatan. Goizean goizetik eskolurretan biltzen ginen neska eta mutil, eguneko jolasa hautatu eta iluntzera arte baso, landa, soloetan, denboraren zama barik, inoren katepe barik, irudimenak oparitutako olgeta zoriontsuetan. Guztiak jango ez bagenituen ere, inoren sagarrondoak biluzten genituen. Gorroto genituen porruak aterako genizkion intxaurrondo makilez jotzen gintuen baserritar mutilzaharri. Beherakoa eragiteraino aseko ginen gereziez, eta biderakoan belarritakotzat eskegiko genituen. Maitasunaren lehen silabak, jaietan iturrian arto bizarra erretzea, galga bakarreko bizikletatik erorita belaunak mailatuta desitxuratzeari, urtegi ere ez ziren potxingoetan bainatzea, txakurra lagun Bizkargi eta Gaztelumendirainoko mendi bueltetan sioux indio ile luze menderakaitzak izatea.

Ulertu beharra nuen. Gezur bakoitzaren atzean dagoen egiarainoko bidea bilatu behar nuen; jasan nitzakeen atentatu, atxiloketa eta mehatxuak jasotzeko ere, kazetaria izango nintzen. Zorrak kitatzen hasteko ordua nuen.

Segurtasun arrazoien aitzakiaz, Fanon ez zen kartzelara behin ere bisitan etorri. Idatzi ere ez zidan idatzi. Leninen estatuak eraitsi zituzten eran erori zitzaidan, burua moztuta. Eredu bat hilik eta besteak huts eginda, ordezkoa kausitu nuen: hedabide bateko zuzendaria izatea lortu zuen emakume hura nuen ispilu. Nik euskaraz idatziko nuen.

Amarekin garbitzaile lanetan hasi nintzen. Hasieran karrerako bost urteetako ikasketak ordaindu ahal izateko. Gerora, asmo altruistagoak bete ahal izateko. Goizetan Leioako kanpusera joaten nintzen eta arratsaldeetan bulegoak garbitzen nituen. Bilboko kale nagusia den On Diego Lopez Haroko bulegorik handiustekoenak garbitzea egokitu zitzaidan. Hiru metroko sabaia, marmolezko eskailerak eta oralekuak, 1,50 x 1,80ko leihoak, kristalezko lanparak, larruzko jarlekuak, Pertsiaakoak ei ziren alfonbrak, bron-

tzezko erlojutzarrak, ebanozko lan-mahaiak, haritzarekin egindako armairuak. Zerbitzarienezako atetik sartzen ginen.

- Duela bost urte, Bilboko kale nagusi hau ontziolaren defentsan zeharkatzen genuenean, bulego hauetako leihoetara begiratu eta jaunskilo hauek guztiak burlati egiten ziguten irri: *Egin oihu, egin orro, alferrik ari zarete, geu gara hemen agintari*. Ederto jo digute adarra.

- Zuen aitak enplegu fondoetan izena eman izan balu, ez geundekeen ataka honetan.

- Dirudunen bulegoak garbitzea gure hautua izan da, ez aitari errurik egotzi.

- Lan bera egiteagatik lau bider gehiago ordaintzen digute.

- Orduan gauden isilik. Onar dezagun irabazi digutena, ezin ditugula eraitsi.

- Aspertu arte esan ohi didazu asaskatzeko, saminak barruan ez gordetzeko. Eta orain isiltzeko agintzen didazu?

- Koherentea izateko baizen ez dizut eskatu.

- Garbitzen hasi aurretik lixiba eta enparauei txistua edo txiza nahasteari deritzozu koherentzia? Eta zertarako balio du koherentea izateak?

Hileroko soldata emendatuko dizutela uste duzu, curriculumean *Ni koherentea* naiz erakutsita?

- Diruagatik edozer egiteko prest gaudela onartu behar dugula, besterik ez dizut eskatu. Eta bai, egia da, hauen zikina garbitzeko urari txistu edo txiza egiteak asko lasaitzen nau.

- Kazetaritza ikasketak ordaintzeko ari zare-lakoan nengoen.

- Zutaz ari nintzen.

- Nitaz ari zarenean zutaz ere ari zara.

**Kazetaria** edo bulego garbitzailea izango nintzen jakiteke nengoela ospitaleratu zuten aita, bigarrenez. Eskuar-tean nerabilen guztia utzita, aitarekin ahalik eta denbora gehien igarotzea erabaki nuen. Banekien amari lana uzteko eskatuz gero, egun eta gau emango zituela ospitalean. Lanak burua beste ardura batzuetan lanpetuta edukitzea zekarkiokeelako proposatu nion lana neuk uztea, gure ama, bere buruaz izan ezik, beste guztienaz atoa-n estutzen den horietakoa baita. Unibertsitatearekikoek itxarongo zuten, bizitza osoa nuen ikasteko. Oroz gain,

minbizia bigarrenez erretzea sano seinale txarra zela sumatu nuelako hartu nuen erabakia. Ordu-ra arte inoiz ez bezala, okerrena gerta zitekeen ustea nagusitu zitzaidalako. 211 gela hartan sartu nintzen egun beretik antzeman nuen bizitza aienatzen ari zitzaigula.

Aitaren eta bion arteko harremana asko gaiztotu zen hura ospitaleratu bezperako hilabetetan. Huskeriengatik eztabaidatzen hasi eta oihuka amaitzen genuen. Telebistan ikusten genuen edozerk pizten zuen gure arteko ika-mika. Barkamena eskatzea galarazten zigun harrokeriak. Gehienetan, amak edo Amaiak isilarazten gintuztenean, besarkatu eta barkamena eskatzeko gogoia izaten nuen. Batek besteari arrazoia onartzeko ezinduta geunden, geure hutsak onartzeko elbarri. Elkar ez ikusteraino urrundu ginen.

Ospitaleko egunetan ere, eguneko ordu gehienak bere alboan eman nituen arren, ez nintzen «Askok maite zaitut» esateko gai izan. Bera baino helduagoa banintz legez edo, kontu eskean aritu nintzaion. Aitarekiko urruntzea neuri zegokidala onartu beharrean, ezintasunak sortu



zidan gorrotoa beste batzueganako ordain bihurtu nuen. Beranduegi zen aldatzeko.

Hirugarren astetik aurrera morfina dosi gero eta handiagoak sartzen hasi zitzaizkion. Denbora oso gutxi ematen zuen esna. Aitari begira ez nengoenetan, leihotik begiratzen nuen. Ideiak, sentimenduak, errazago datoz leihotik begira. Berdin dio aurrean zer dagoen, zer mugitzen den, eguna zein gaua den. Luzaroan leihotik begira egonez gero, berbak etortzen ikus ditzakezu, burezurrean ate joka. Morfinaren abaroan dagoen gaixoari begiratzea zirkinik egiten ez duen momia bati so egotea da. Ikaragarria da morfinapekoak arnasa ahotik hartzean sortutako hotsa. Medikuak zioenez, dosi kopuru handi haiek eman ezean, minak erotu egingo zukeen aita eta guk ezingo genituzkeen oinaze garrasiak jasan. Dena dela, berba egiteari ez uzteko esan zigun, frogatzerik ez bazegoen ere, askoren erreakzioengatik, lantzean zerbait entzutea litekeena zela. Esateko berba ederrak belarrira, kantatzeko gura izanez gero, berotan hiltzen laguntzeko edozer egiteko.

Nahiz eta ospitaleko egunak luzeak izan, dena azkarregi gertatu zen sentipena dut barruan gotortuta. Zenbat denbora behar dugu maite ditugunei eragindako mina sendatzeko? Hilabete bakarrean zenbat gauza egin daitezkeen pentsatzen hasita, lau berba ahoskatzeko nahikoa izan ez nuela gogoratzen dut. Lau berba ziren, lau. Hil zen egunean haren eskutik oratuta egoteak ez ninduen kontsolatu. Azken hatsa zuen bitartean musukatzeko aukerak ez zidan samina baretu. Gure amak belarrira «Nahikoa da laztana, nahikoa da» xuxurlatzen ziolarik, ez nintzen negar egiteko baino gauza izan, ez nuen berak eta biok bakarrik entzungo genituen lau berba haiek esateko adorerik bildu. Hiltzera etxeratu genezakeen galdetu genion medikuari. Hogeita lau orduz morfinituta eduki behar zutela-eta, ezinezkoa zela erantzun zigun. 1992ko apirilaren 30ean hil zen gure aita, hirurogei urtean bizi ostean.

Mezatara joaten ez bazen ere, fededuna izatea garrantzibakoa zirudiela, elizakoak eman genizkion. Ezagutzen ez zuen abadeak, anaia bate-nak esan zituen gure aita zena ohoratzeko. Lepo

zegoen eliza, portalea lepoago. Euskaldunako lankideak, txikiteorako lagunak, auzoko ezagunak. Lehen jesarlekuetan senitartekoak eta burkideak. Atautean ikurrina eta buzoa. Akorduan eramango dut, beti, hilerrian *Eusko Gudariak* eta *Internazionale* negar-kantatu zituztela aitaren burkideek. Logistika arduraduna ez zuten ahazteko.

- Ezin izan dut, ulertu egidazu. Esaten nuena-gatik baino nintzenagatik maite izan nauen barkarra zen, ezin nuen hiltzen ikusi.

- Zure gutuna irakurri ostean, hiltzeko gertu zegoela esan zidan, ez zuela uste horrenbeste estimatzen zenuenik.

- Barrionuevoren bahiketaren porrota, Euskaldunaren itxiera, zuen aitaren heriotza...

- Porrot gehiegi, ezta, Fanon? Herriak ez du barkatuko.

- Edozer egiteko prest nago. Egindakoa ordaindu behar dute. Nik badakit norekin berba egin.

- Ez dut inoren beharrik. Erabakia hartua daukat. Eutsi, hemen duzu aitak zuretzat idatzi-

tako gutuna, zurearen ordaina. Berdin dit ondo iritziko diozun, irakurri egin dut.

Jazinto,

Hiltzera noala dakidala erabaki dut bizitzaren azken urteotako errebaso azkarra egitea, batez ere Euskaldunan lanean hasi nintzenetik gaurdainoko guztia koaderno batean idaztea. Gutun hau, kontakizun horren zatitzat gordeko dut. Ez nuen inori ezergatik kargu hartzeko asmorik, zure gutuna jaso nuen arte. Idazteko gogoia ere kendu didazu. Sinets dezaket mina eman-go zizula hilurren nagoela jakiteak. Badakit errazago zaizuna diskurtso politiko amai-gabeak taxutzea, baina azken agurra gutun bitartez ematea ez dizut barkatuko. Zintzoa izan naiz beti zurekin, arrazoia zenuela uste nuenean ez dut onartzeko eze-lango arazorik izan. Berba asko eta ekintza gutxikoa izateagatik kritikatzeko zintuztenei gogor erantzun izan diet, lubakikide zintugula defendatuz. Pertsonak maitatzen irakatsi nizula diostazu. Ez zaitez nire etxeko-

engana metro batera ere hurbildu. Bila ezazu familia berria.

Luis

Horren zeure den pertsona hiltzen denean, hilabetegarrenean sumatzen duzu benetan hutsunea. Ordura arte, edozein momentutan etxe-ko atea zabalduko duela sinesten duzu, edo afaltzeko etxeratu aurretik auzoko betiko tabernako kristaletik begiratzen duzu lagunekin txikiteoan ote dabilen. Hutsunea ikusi, ia ukitzen duzunean, latza izaten da. Begietako zainak gorritzen, burezurrekoak hanpatzen, ukabilekoak gogortzen sentitzen nituen usu.

Euskalduna itxita aitaren minbizia esnarazi zutenekiko, kartzelatu nindutenekiko zorrak kitatzea nuen motibazio bakarra, eta barruan gordetzen nuen sumendiaren leherketa denbora baino lehenago antzemango zidaten beldur nintzen. Gure aita sufrimenduak usteldu ei zuen barrutik, sufrimendua lana galtzeak eragin zion, euren buruaz eta alderdiaren interesaz baizen pentsatzen ez dutenen erruz galdu zuen lana, Bilbo modernitatera eta dirua euren kontu korronteetara

ekarri behar zela erabaki zuten horien erruz. Etxekoek arrazoia zuten, Begorena ez zen istripu hutsa izan, zanpatzen gintuen egoera itogarriaren ondorioetako beste bat baino ez.

Begoren egonarriaren omenez, eutsi egingo nion neure buruari. Helburua zen garrantzitsue-  
na. Burua hotz mantendu behar nuen, txikikeria-  
rik ezdeusena aurreikusi, urrats bakoitza lur hon-  
doraezinean eman. Nirea ez zen desobedientzia  
zibileko ekintza zuzena izango. Ez nuen harrapa-  
tzerik gura, ez nuen martiri izateko inolako as-  
morik. Neure borroka zen, ez beste inorena. Onik  
ateratzekotan, munduko beste txoko askotatik  
kaltea eragin niezaiekeelako baztertu nuen  
Begok hobetsiko zukeen desobedientzia. Nire  
atzetik ez ziren milaka herritar altxatuko, nire gi-  
daritzapean ez genuen estaturik eraitsiko. Eba-  
kia egin, zauria barrutik zabaldu, astiro, larritu  
barik.

**Amak** lanean zuen izen onari esker ekin nion Bizkaiko aberatsenen bulegoak garbitzeari. Txa-  
kurrak nahasteko onartu nuen, amore emanda

bergizarteratu nintzela sinets zezaten. Mendekua gauzatzeko edozer egiteko prest nengoen, hiltzaile odol hotzenen antzo, une egokia iritsi arte zain egoteko. E egunaren zain joan zitzaizkidan aita hil osteko hurrengo lehen urteak, bulego garbitzaile, amaitu barik utzitako kazetari-tza ikasketak bururatu asmotan.

Ogasunari ahalik eta gutxien emateko, zati bat inoren aurrean zuritu gura ez zutenez, beltzean ordaintzen ziguten. Amama Pantxikek sarritan gogorarazten ziguna: «Ez dago lapurretan egin barik aberastuko denik».

Luzeegia zatekeen itxaronaldiaren eraginez amorrua mantsotuko zitzaidalako arduratuta nengoela, unibertsitaterako egin beharreko lan baten kariatara, garbitzaileen lan baldintzei buruz idazteko aukera suertatu zitzaidan. Erratz-kideei entzundakoak jasotzen zituen artikulutxukun baina bertzenaz arrunta zena, *Argia* aldizkarira bidaltzea proposatu zidan irakasleak. Unibertsitatean ikasi baduzu jakingo duzu, irakasle batek baino gehiagok euren lantzat jasotzen dituztela curriculumean ikasleek atonduriko lanak. Prentsan argitaratu zidaten lehen artiku-

lua Bilboko jauntxoei buruzko erretratu krudela izan zen. Zelan igarriko nuen artikulu xume hark itsasargiarenak egingo zizkidala?

- Artikulu hori gure azkena izango da. Erdi mailako burges zeken xuhurren bulegoak garbitu beharko ditugu berriz. Oraingo orduak halako bi eman beharko ditugu lanean. Ezagun da zenbat maite gaituzun.

- Kazetaria izan gura badut, nabarmentzekoa izango den zer edo zer idatzi beharko dut.

- Horregatik lanpostua galduko badugu ere?

- Inoren kaka garbitzeari lanpostua deritzozu?

- Beti esaten didazu galtzaileak garela onartzeko...

- Eta onartzen dut, baina odolosteak ordainetan ematea ezin digu inork eragotzi. Jakiten badute, zuri ezer esan barik argitaratu dudala esango diet ugazabei, ez duzula artikuluarekin zerikusirik.

- Horixe jakingo dutena! Zer uste duzu, gora adi egoteko dituztela poliziak eta komunikazio arduradunak soldatapean?



- Ez ernegatu ama, *Argia* dagoenik ere ez dakite; eta jakitekotan, politikari buruzko artikulak baizen ez dituzte irakurriko.

- *Argia* zer den, nortzuek eta zertarako sortu zuten ondotxo dakite. Begiak laurden bat baino ez dituzu zabalik, eta gaez gainera.

Astiro-astiro, begiak zabaldu guran eman nituen karrera amaitu beharreko urteak. Ustelkeria, lagunkeria esleitutako diru-laguntzak eta politikarien diru-kontuak ikertzea deliberatuen. Konturatzerako, mendekuaren lehen silabak ahoskatzen ari nintzen. Egunkari zein aldizkarietara saltzeko erreportajeak idatziko nituen, ahoan bilorik gabeak; ezizenez sinatuko nituen; erredakzioetan miraz irakurriko zituzten; zuzendari askoren deiak jasoko nituen, lan eskaintza erakargarriak luzatu aldera; iritzi publikoan ezinbesteko erreferente bihurtuko nintzen, agintari ustelen ur-lohiak garbituko nituelako; ezkerreko politikariek nire aipuak erabiliko zituzten diskurtsoetan... Kartzelako isolamendu ziegetan igarotako egunetan amesten nitueneko hondarrak zebilzikidan arrazonamenduetan.

Txaloko bat amets bakoitzeko.

Amaren harridurarako, Bilboko aberatsenei buruzko erreportajearen eraginez ez genuen handi-mandien bulegoak garbitzeko lana galdu. Eta irabazi ere egin genuen, nuen, nik, aukera bat, aukera aparta.

Guggenheim museoa Bilboko erreka bazterrean ainguratzeko egitasmoa aurkezteko Bizkaiko Foru Aldundiak deitutako prentsaurrekora joatea proposatu zidan *Argiako* erredakzio buruak.

Zelan igarriko nuen erreportaje huraxe bihurtuko zitzaidala itsasargi?

Solomon R. Guggenheim Foundationek Bilbon museoa zabaltzea erabaki zuen. Ez Londresen, ez Parisen, ez Erroman, ez Munichen. Bilbon. Zergatik munduan hain ezezaguna zen hiri batean? Zergatik gatazka politiko eta armatua puri-purian bizi zituen herrialde batean? Nor zatekeen Guggenheima Bilbora ekartzearen onuradun? Zenbat diru jasoko zuten Solomon R. Guggenheim Foundationekoek? Zein atarramentu zemaion Bilbo halako hiri bati museo batek Euskalduna ontziolak eman zionaren aldean?

Bego ari zitzaidan belarrira galdera-iskilua desarratzen. Banuen erreportajerako lain. Baita gehiagorako ere, baita askoz gehiagorako ere. Lehen izpiak nekusan ortzimugan.

Guggenheimdarrak nor ziren ikertzeko ildoan izan zen zabaldu nuen lehena. Suitzako familia judua, diru-metaka metalgintzan eta meatzari-tzan aritua. Bilboko titanioak ehun eta berrogeita hamar urte zituen eta 1914ko Lehen Mundu Gerrarako ekoiztiko kobrea zuen arbaso.

- Badakizu Lehen Mundu Gerran 40 milioi pertsona hil zituztela?

- Barkatu, Lorea, ez dakit zertaz ari zaren.

- Guggenheimdarren urrea zinez gorria dela diot, Bilboko langileekin zerikusirik ez duen gorri kolorekoa.

- Egidazu berba argi, arren. Kazetarigai eta sasi-ikertzaile lanak hartu dituzunetik ez dut esaten duzunetik erdia ulertzen. Zeure buruarekin izaten dituzun elkarrizketa horietan, lantzean, denok entzuteko moduko galderak egiten dituzu, baina gu ez gaude zure gogoetekin solasean.

- Aitaren malurrez ari naiz, ama, gure zorigaiztoaz. Guggenheimdarrek dirutza ikaragarria egin zuten 1914ko gerran aliatuentzako kobrea ekoitzita.

- 1914ko kontuez zatoz? Batek daki diru horrek zenbat bira eman dizkion munduari ordutik. Zein zerikusi du horrek gure familiarekin? Gainera, Guggenheimdarrak ez al dira filantropoak?

- Bai, noski, gu eta gaztetxe sasoiko lagunen bestekoak. Guk ere ilarak maite genituen, ez museoetara sartzekoak, badakizu. Filantropo, mezenas eta enparauek lapurretak, esklabotzak, hirugarrenen miseriak gorde ohi dituzte itzalpean. Milaka lagunen heriotzarekin aberastu izan ez balira, euren jainko judu horren aginduetatik bakarra bete izan balute, ez zegokeen ez Guggenheimik ez osterantzekorik.

- Mundutik alde egiten ari zarela iruditzen zait horrela berba egiten duzunean. Kartzelan zeundenean beldur banintzen, orain erabat ikararuta naukazu. Poza ekarriko dizuten egitasmotan xahutu gaztetasuna, Lorea. Ez ibili basatze-tan iraunaraziko zaituzten kontuetan. Sufritu

dugu nahikoa, zoriona berreskuratzea merezi dugu.

- Ziria sartzan digute, ama, uzkiak ia igarri egiten ez duena. Arteak basakeria guztiak ahan-tzaraziko dizkigula aitzakiatu digute, historian izan diren margolaririk ospetsuenen lanez goza-tu ahal izango dugula, eta Guggenheimdarrek munduko maparako sarbidea zabalduko digute-la. Eta guk denari baietz.

- Lar boteretsuen aurka jotzen baduzu, ta-mainako erantzuna jasoko duzu.

- Eta isiltzen banaiz are boteretsuago izango dira.

- Baina zer jainko klase zarelakoan zaude? Jendeak zure esanei men egin eta saldoka jarrai-tuko zaituela uste duzu? Koadro politikoan an-tzera berba egiten darraizu horrenbeste urteren ostean.

- Paradoxa ederra orduan nirea. Koadroen antzera mintzo naizela, koadroak eskegitzeko erabiliko den eraikinaren sustraien ustela iker-tzen tematuta nago. Neure urka-bilurraren sokak matxinbratzen ari naizela diozu.

- Ez da gutxi zu zeu konturatu izana. Egunero hiltzen dute munduan kazetari bat, muturra okerreko lekuan usaintzen jartzeagatik.

- Begori lagundu egin nion, baina ni Lorea naiz eta luzaroan bizitzeko itxaropena daukat. Makina bat kazetari dago nire aurretik boteredunen jomugan. Urteetako lanaren oihartzunak egiten du bat ezagun, ez erreportajetxo batek.

- Baina hil ala bizikoa zaizula dirudi!

- Senak diost ez galtzeko aukera dela.

- Sena eta zezena! Zuen aitak ere jaramon ditxosozko senari egin zion, ez bizikide ninduen honi.

- Atzera begiratzea arrainetan solora joatea da. Aita hilda dago eta ni harro egin zuenaz.

- Zeure kolkorako ari zara edo ez duzu be-reizten esaten duzuna egiten duzunetik?

- Etorkizun hobearen alde ari naiz, gu izorratu gintuztenek beste inor izorra ez dezaten. Hori ez da iraganean bizitzea, geroa garbitzea bai-zen. Neu ere egunero akordatzen naiz aitarekin.

- Oheko hutsunea neuk igartzen dut, oster.

Honezkero ondo dakizunez, Peru, gure ama-rekin eztabaidatzea topeka aritzea da; aharitoen

antzera, azkena zeinek jo, hura irabazle. Amaren izaerak hausnarrean ez etsitzera derrigortzen ninduen, arrazoi hutsalak baztertzea, lastoa bereiztera. Adorearen sinonimo guztiak irakatsi zizkidan, arbelik gabe.

Ainguratu eta gutxira, Bilboko Guggenheim Fundazioak *Guernica* Bilbora bost urtez ekartzeko eskatu zien espainolei 1998ko abenduan, orduan Bizkaiko Foru Aldundiko ahaldun nagusia zena lagun. 1937an izan zuten jeltzaleek *Guernica* euskaldunontzat gordetzeko aukera, baina Jose Antonio Agirrek beretzat ez zuela gura eta ez zuela deus balio erantzun zion Picassok berak luzatutako eskaintzari.

Hasitako ikerketa ildotik arean okertzen hasi nintzen, baina ikerketa kazetaritzaren arauetako bat derrigorrean bete behar nuela sentitzen nuen: ostendu gura duten hura azalaraztea.

ETAren mugagabeko su-etenak eta Lizarra-Garazi akordioak sortutako aldeko koiuntura politiko itxaropenez betean, Olentzerori eskatutako opari gisa mozorrotu zuten. Irudi kolpea ikaraga-

rria izango zen: *Guernica* bera Bilbon, Guggenheim museoaren irekitzearekin bat, Picasso Bilbo berriaren irudi, mundua Bilbori begira. Nork gutxietsiko zuen tamainako lorpena? Nork egingo zio muzin opari eder hari? Zelan apalduko zuten museoaren aurkakoez euskaldunen gehiengoak laudatuko zuen arrakasta? Guggenheima laguntzeko 3.800 milioi pezeta bideratuko zituen Eusko Jaurlaritzak. Inork ez daki horietako zenbat sobornotarako. Ondorioz hurrengo urte luzeetan euskarazko kultura birrinik ere gabe utziko zutela-eta, hainbat sortzaile Kultur Kezka taldearen abaroan bildu ziren. Alferreko ahalegina. Inork ez zuen lemaren norabidea aldatuko. Euskarazko kulturak itzarongo zuen, kulturgingintzan zihardutenek ordura arte legez biziraungo zuten, ez zen inor hilko euskarazko kultura ez indartzeagatik. Erabakia aspaldi zuten hartua, Euskalduna ontziolaren azken urteetan mamitua. *Guernica* Bilbon. Garaipenaren klimaxa. Errepikatuko ez zen aukera. Nire erreportajerako testuinguru paregabea eta mendekua iragartzeko oholtza miragarria. Eta bide batez, abuztuan itxitako *Egin* eta *Egin Irratia*-ko kideei elkartasu-



na adierazi ahal izango nien. Zeren, ni bizi nintzen Euskal Herrian, zaila izaten zen boterearekiko amorrua apaltzea, bi egunetik behin, gutxienez, gorrotatzeko aitzakia berria asmatzen baitziguten.

Elkarrizketa politikoek huts egin zuten, noski. Bazterrak erabili zituzten, bete ezineko promesak egin zizkieten espainolei: ETAren atentaturik ez beste ezelango talderen erasorik ez zuela jasoko bermatuko zutela agindu zieten; boterea partekatzeko prest zeudela zin egin zieten, behatzak Bilboko urez garbituko zizkietela. Zumarri garia eskatzea suertatu zitzaien jeltzaleei. Urteen joanak emandako talaiatik, espainiar agintarien berezko sen larderiatsu eta burgoiaz gain, bilbotarren mobilizazio eza azpimarratuko nituzke. Kanean ez zen aldarririk egin, arrazoi askoren karietara antolatzen ziren manifestazioen parekorik ez zen antolatu. Eguneroko bizimoduan zein etorkizunean eragingo zuten erabakiak zuzendaritza politikoaren esku uzteko ohitura hartu genuen edo, akaso, herritarroi *Guernica* Espainiako museo batean gordetzeak ez zigun ezinegonik sortzen. Gernikarrak izan ziren Gerni-

kara eramateko eskaria herritartu zuten baka-  
rrak. Hilabete batez luzatu ziren era guztietako  
aldarrietan ia 10.000 lagunek parte hartu zuten.  
Baina nork ditu gernikarrak gogoan?

Ifrentzua ziren arrazoiengatik bazen ere, nire  
mendekuaren jomuga zirenen amorrukide bihur-  
tu nintzen. Komenientziak itsututa, sinetsi egin  
nuen lortuko zutela *Guernica* Guggenheimera  
ekartzea. Ez nekien zer, ez nekien zelan, baina  
barruan zebilkidan burutazioa aurrera ezin eroa-  
teak frustrazio itzela eragin zidan. Gorroto ni-  
tuen berberen garaipena behar nuen. Inoizko txi-  
zarik zikinena egin nuen lixibarik gabeko balde-  
ra. Sekula baino lohiago garbitu nituen bulego-  
ak.

- Gauzeztan, ezgai, inutil...

- Denbora baino arinago burua galtzen hasi  
ote zara...

- Koadro ziztrin bat ekartzeko negoziatioetan  
kale egiten badute, zelan demontre lortuko dugu  
bakea herri honetan?

- *Guernicarenaz* ari zara. Koadrotxo hori ziz-  
trina baino arean gehiago dela esango nuke.

- Margolan bat ekartzea, finean, zortzi orduko lana da, dozena erdi lagunena; ez da etsaiarekin trukatu beharreko gerra preso. Gainera, ez dute betiko ekartzea eskatu, bost urterako mailegua baizen ez diete eskatu, museoaren izen ona hedatzeko laguntzatxoa.

- Erditu izan ez bazintut, Guggenheimdarren eta enparauen alde zaudela ulertuko nuke.

- Euskalduna halako ontziola erraldoia di-dabatean desagertzearen arduraren zati handi bat izan zuten berberak ezinean amore ematen ikusteak ematen dit amorrua. Gure borrokalariei urteetan egin zieten aurre, gogor egin ere.

-Ederto. Orain kontatu egidazu egia. Zerk gatzitu dizu odola?

Agertuko zitzaidan beste aukeraren bat. Zain egoten ikasi behar nuen, patxadatsua izaten, besterik ez. Amarekin izandako asaskaldiak erne jarri ninduen. Sumindura kontrolatzen ikasi ezean, gutxien beharko nuenean gailenduko zitzaidan. Jomuga berria hauta nezakeen, lorgarriagoa, ez horren arranditsua. Galtzaile izaten jarraitu edo tamainako aurkaria topatu beharko nuen.

Berotan, Bilbao Bizkaia Kutxan lapurtzea bururatu zitzaidan. Baina zertarako? Zaku bete ebatsita ere, euliaren ziztada zatekeen eurentzat. Eta Euskaldunaren haur besoetakoa zen Athletici? Zuzendaritzakoak eskegitzeko modukoak baziren ere, langileen taldea zen, oraindik.

- Guggenheim horretan lan egiteko prest dagoen inor ezagutzen ote dudan galdetu didate enpresako buruek. Zure lagunetako bat prest legoke garbitzaile lanotarako?

- Ni neu hasiko naiz, ama, ondo baderitzozu.

- Zer darabilzu eskuartean? Museoari buruz direnak eta bi idazten badituzu, paparrean dominak eskegiko dizkivatela uste duzu? Ama ezjakinarena eginda ere barkatuko didatelakoan zaude? Ahaztu egin duzu zergatik diren eurak handi-mandiak eta ez gu?

- Ez dut ezer idazteko asmorik. Kakak garbitu behar baditut, gurago artistikoak izatea!

Lan-elkarrizketa itxura-azterketa izan zen. Bulegoko atea zabaldu eta elkar agurtzen denbora luze eman genuen: zein garraiobide erabili

nuen, hego-haize zakarrak buruko mina eragiten diola bati baino gehiagori... eseri bitartean aurpegi, gerri, ipurmasail, bular eta enparauak aztertzeke zurikeriak. Modernoak dira Guggenheim museoko hezur eta azalak, antzinakoak barre-nak. Zabaldu zuten egunean bertan Euskal Herriko kulturgile askok eztarria lakartu arte salatu zutena egiaztatu nuen: akuiluaren puntak ez zuen euskaldunetik ezer; idi-uztarria pop art legez erakusten zuten arren, kirtena New Yorken zegoen. Langileen arduradunaren bulegoko hormetan Frank O. Gehry, Peter Lawson-Johnston, Thomas Krens edo Julian Schnabelen argazkiak ageri ziren.

- Bete formulario hau eta zehaztu zenbat errelebotan aritzeko prest zauden.

- Lehen aldia da lanbasa pasatzeko formularioa betetzeko eskatu didatena. Hau bai lantoki serioa.

- Munduko museotarik entzutetsueneko batean hasiko zara lanean, ez ahaztu.

- Ez duzu nire curriculuma irakurri? Bilboko bulego ospetsuenei distira ateratzen ibilitakoa nauzu.

- Asko da curriculum honekin bulegoak zuzentzen ez aritzea.

- Aberatsa izateko burubakoa izatea eskatzen zidaten eta, badakizu, naturari ezin zaio aurka egin.

- Ikusten duzu curriculum meta hau?

Agur Bilboko Zazpi Kaleak bizigune zituen gazte iraultzaileari. Jagoitik etxetik lanera eta lanetik etxera beste ekarpenik egiten ez dutenetakoa izango nintzen; mundutik igaro direnetz, desagertu egiten direnetako beste bat. Amaren enpresan hasieratik langile zen batek ohartarazi zidanez, Guggenheimek langile bakoitzaren polizia-fitxen antzekoak osatzen zituen. Ama langile finegia zelako lortu nuen lanpostu hura. Ezingo nuen une bakar batean ere ahaztu soka gainean dantzan nembilela.

Museoa txandaka garbitzea egokitu zitzaigun. Aste batez goizeko 07:00etatik 10:00etara eta hurrengo batez 19:30etatik 22:00etara. Lehen hilabeteetan gogor lan egin nuen, patxadaz baina atsedetik hartu barik, gainontzeko garbitzaileekin solastatzea ekidinez. Ez nuen na-

barmendu gura, ez onerako ez txarrerako, ez lar behargin ez alferrontzi.

Museoa barru zein kanpo kamerez josita zegoenez, baztertxokorik garrantzibakoena ere gogoratu eta, etxeratutakoan, paperean irudikatzen nuen. Segundoro zelatatzen gintuzten kamereren kokapena, zaintzaileen joan-etorriak eta ordutegiak, erakusketen garraioaz arduratzen zen enpresaren lan egiteko erak, bost minutuan Bilbo erdian atzetik letorkeena galtzeko kaleen arteko distantziak... Prestaketa lanak artegatu barik neroatzen, pausu bakoitza aurrekotik ahalik eta hurbilen emanez, inoren eta ezeren susmoa ekidinez. Lanean hasi nintzenetik egunero ko agurkide nituenetatik batek ere ez zidan ez boligrafo ez koadernorik aldean ikusi. Irakurtzeko ezer ez nuen egundo museora eroan. Obsesionatuta nindukan mendekurako informazio bilketak. Horrenbeste informazio metatu nuen, museoko gidari izateko lan eskaintza zabaldu zutenean izena ematear egon bainintzen. Museoari kalte egiten munduko azken pertsona neu nintekeela antzeztu beharrak itsutu egin ninduen. Hango langile guztiak ezagutzen nituen, izenez

agurtzen nituen egunero, kabroirik handienari ere jatorraren irria eskaintzen nion. Irria eta zirria.

Antzezpenaren horditasunean, museoaren barrunbeak esku ahurreko marren gisan ezagutzearren, ordu eta osterantzeko zehaztasun guztiak lortzearren, segurtasun arduradunarekin larritan egin nuen, museoan bertan, baten, bitan, hirutan.

- Medikuarenera joatekoa naiz, ama. Goragalea eta zorabioak ditut azken egunotan.

- Umedun zaudela diostazu?

- Ez dakit, ez naiz inoiz umedun egon.

- Arduratsuagotzat zintudan.

- Abortatzeko nora joan behar dudan esango didaten pare bat ezagutzen ditut.

- Umearen aita izango dena iritzi berekoa da?

- Aitak ez du sekula iritzirik izango.

Abortatzea baztertu eta zu erditzeko erabakia amets bati zor diozu, Peru. Zure aitita Luisekin amets egin nuen. Besoetan zintuela, kantuan



ari zitzaizun. Gure umetako lo kanta zela dut akorduan, gure ama ezagututa oheratzean kantatuko zizun hura: «Zu bezalako haurrek lo egin dezaten, ilargia hasi da zerua pintatzen».

Tamainako erabakia amets baten karietara hartzeari sinesgaitza iritziko diozu, edo barru-barruan ama izateko grina piztu zitzaidala, onartu ez arren. Utopietan sinesten dudalako erditu zintudala badiotsut? Gure amaren altzoan irudikatuta, aitak utzitako hutsunea beteko zenuela sinetsita nengoen. Amamarekin nigandik libro biziko zinen, barneratuko nizun boteretsuenengana gorroto itsutik salbu.

Zure aita biologikoari buruz ezin dizut askorik argitu. Ez daki semea zaituenik. Beltzarana, metro eta hirurogeita hamar eskasekoa, besaulkietan igarotako orduetako sabelaldea, txanka mehea, sorbalda uzkurak... ministroen antzera berba egiten zuela gogoratzen dut. Ez nuen maite. Ez nuen harremana mantentzeko ezelan-go asmorik. Guggenheimetik Bizkaiko Foru Aldundira igo zuen maila eta Bilboko aberaskume baten alabarekin ezkondu zen.

Inoren kontura aberastea bizitzan beste helbururik ez zutenen bulegoak garbitzen eman nintuen urteetan, ezezagun harekin larrutan egiten baino putago sentitu nintzen. Egia da, bulegoak garbitzearena erraz zuritu nezakeen: helburu jakin bat lortzeko onartu nuen lan hartan itzuliko ez diren urte haiek xahutzea. Arrazoi zintzoek bultzatu ninduten. Alabaina, lansaria gorde egiten nuen, neuretzat. Diru lohi, kutsatu, nazkagari haren kopuru bat zergatik ez nion eman beharriazetan zeuden horrenbeste herri-mugimenduetako bati?

Ezinegona baretzeko, neure buruaren erdeenutik babesteko, agindua errepikatzen nuen kolkorako: segada prestatu diguzue eta amua irentsi dugu; baina orain gonbitoka itzuliko dizuet, behazuna bota arte; ez dizuet bakerik emango, xanpainarekin bustitzean duzuen ospakizun bakoitzean alfonbra gorrian gainean egin dizuet oka; inork eskatu ez dizuen erantzukizuna betearaziko dizuet, neuk bakarrik, inoren laguntza barik, milaka garenon izenean. Zin dagit: horretarako biziko naiz, begi bat zabalik egin beharko

duzue lo, bizkartzainak beharko dituzue bunkerretan.

Aldean daroadan promesa hark zaindu nau amiltzetik.

Arbuiatu dugun guztiaren hazia zinelako, medikuak umedun nengoela baieztatu bezain laster baztertu nuen abortuaren aukera. Aititari aitortu ez nionaren ordainetan jaio zinen, amamari bizi-poza berreskuratzen lagunduko zeniolakoan. Gorrota nazazu ni, zure inguruko beste guztiek maitasuna baizen ez dute merezi. Jaio aurretik ere bizi-poza ekarri zenigun etxera. Amamak igarri egin zidan: bazekien amatasuna ez zela egundo izan nire gurarietako bat; ondo gogoratzen zuen, gaiari buruz ezer aipatzen hasiz gero ilundu egingen zitzaidala bekokia, berbagai berria proposatzen nuela ez entzunarena eginda. Horregatik ziur naiz ez zela harritu bere ardurapean abandonatu zintudanean. Zergatik egin nuen ez jakiteak erasango zuen urte luze hauetan. Mesede hori besterik ez dizut eskatuko. Koaderno hone-takoak irakurtzen dituzunean, Peru, utziozu gure amari; ahaztu ditudanak, neuretzat gorde ditu-

danetatik batzuk, behinik behin, berak osatuko dizkizu.

Zu jaio zinen hilabetean jakinarazi zuten bigarrenez eskatu ziotela Espainiako Gobernuari *Guernica* Bilboko museora ekartzea. Indarkeria mota oro behin betiko desagertzea erdietsi zen. Horrenbeste urte iraun zuen gatazka armatua konpondu zela ospatzeko, eta espainolen bake-rako borondate gisa, *Guernicak* Euskal Herrian behar zuen. Ageriko zein ezkutuko negoziazioen ondorioz, *Guernica* Bilboko Guggenheim museoan erakutsiko zuten urtebetez, eta ondoren berriaz Madrilera bueltatuko.

Amatasun baja laburregiaren ondoren itzuli nintzen lanera. Segurtasun neurri zorrotzak ezarri zizkiguten. Erronka pizgarri suertatu zitzaidan. Apunteak erreparatu nituen. Bere buruaz harroegi dagoenarengandik espero zitekeenez, munduko margolanik entzutetsuenetakoaren segurtasuna bermatu behar bazuten ere, ez zuten ezer berezirik aldatu. Kamera finkoek bere horretan zirauten, zaintzaile kopurua berbera zen,

salbu eta ArcelorMittal gelan kokatu zuten gonbidatu berriari beren-beregi egokitutakoa. Museoko buruak ezagututa, ez ninduen harritu gehiegizko ustantza hark.

Xede zuenak aise aurkitu zuen margolanen kontrako sabotajeei eta, batez ere, lapurretei buruzko informazioa. XX. mendean ehunka bide-  
rez lapurtu zituzten norbaitek historiako arte lanik onenak legez izendatu zituen haiek: Van Gogh, Cezanne, Rembrandt, Bellini, Goya, Brueghel... XXI. mendean ere makina bat lapurreta izan ziren, tartean Picassoren beraren koadroenak. Norberari gertatu arte hurkoari gertatu zaiola sinesten ez duenaren arduragabekeriaz baliatu behar nintzen.

Paparra ateratzen zuen zaintzailea limurtzea zegokidan lehenik; gero, segurtasun-arduradun berria lausengatzea, alarma-sisteman eskua zelan sartu aitortu arte. Hiru hilabeteko adiskidetzeko saioen ondoren ezagutu nuen koadroa distantziatik zaintzen zuen artzaina. Margolanari erantsitako haririk gabeko transmisoreen sistema zen jagolea. Ikusleak ahalik eta gehien hurbildu arren, alarmarik ez pizteko, transmisoreak

programatu egiten zituzten. Halandaze, margolana zegoen lekutik 30 zentimetro mugituz gero, gorrenak esnarazteko durundia zabalduko zen museo osoan. Horrez gain, zaintzaile bakoitzak haririk gabeko bilagailua zeroan lan-egunak zirauren bitartean. Ez nuen kristal lodiak babesten zuen margolana inora mugitu beharrik. Saihestu beharreko bakarrak, atea zabaldu arteko orduetan *Guernicari* begirik ez kentzeko ardura zuen Jaime zaintzailea eta kamera gelako Mariano eta Rodol ziren.

Bederatzi hilabeteetako lana planifikatzeko ez nuen buruko min handirik izan. Hankabiko artzain-txakur haiei eskutik jaten erakusten eman-go nituen hogeita hamar egun, eta hogeita hamakagarrenean kortako atea zabalduko nion otsoari.

Izterrak agerian, bular arteko erretena nabarmen, txiste txarrei barre, kruasan egin berriak goizetan... aho zabalik geratuko zinateke jakingo bazenu estatubatuarrek unibertsal bihurtu dituzten topiko guztiak zein barneratuak ditugun eta zein emaitza onak dituzten. Eta nor yankien filmetara zaletuago, borradun gizonezkoa baino?

Edozein botikatan eros daitezkeen loa eragiteko aringarrietako edozeinekin lor nezakeen. Urriloa hautatu nuen, lo-eragile kimikoek ez bezala, ez baitzien sortuko bigarren mailako eraginik, eta ondorioz ezta susmorik piztuko ere.

Azken ia bederatzi hilabeteetan goizero 08:30ean kafe eta kruasanaren zain izaten nituen txakurtxoen esnatzea ikusi aurretik alde egin nuen, ohi baino ordu erdi lehenago, medikuarenera joan behar nuen aitzakiapean. 14:10ean Berlingo Tegel aireportuan nengoen. Gure ama bazkaltzeko berandutzen hasita nengoela kezkatuta zegokeen, eta zu... arratsalderoko lo-kuluxka gozoan.

Egunkari nazionalista espainolek ezin zuten sinetsi. Gerra guztien zentzugabekeria salatzen zuen maisulana, gerraren krudelkeria beste eze-lango sorkuntza lanek baino hunkigarriago irudikatzen zituen margolana, faxismo guztien kontrako aldarri unibertsala, basakeriaren aurkako ikur nagusia, erasotua? Non eta Euskal Herrian?

Zein zorori bururatu ote zitzaion mural erraldoian berba haiek margotzea?

Onartu zuten, erasoaren helburua zein erasotzaileen jokamoldea ezohikoak izan zirela, salto kuantitatiboa bezain kualitatiboa izan zela. Kuantitatiboa, mundu mailan ezaguna zelako erasotakoa; eta kualitatiboa, segurtasun neurri zorrotz guztiak gainditzeko ahalmena erakutsi zutelako barbaroek. «Borroka armatua bera baino sofistikatuagoa bihurtu ote da arte borroka?», horra soldatapeko zutabegilearen galdera.

Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak gogor salatu zuen gertatutakoa. «Honek lotsagarri utzi gaitu euskaldunak munduaren aurrean». Arduratsuenek euskaldunen artean zabaldutako bake eta itxaropen giroa zapuztu zezakeela ohartarazi zuten. Bilbo kosmopolita bihurtzeko urteetan egindako ahaleginak ezerezean gera zitezkeela azpimarratu zuen alkate erdaldun harroputzak.

Berlindik egunkarietara bidalitako komunikatuan azaldu nituen Guggenheim museoa erasotzearen arrazoiak eta sabotajea zehaztasun osoz zelan gauzatu nuen. Argi gera zedin errepikatu nuen, ez zela zio politikoengatik egindako eraso



izan, ez zela ETA izan, ez zela talde bat izan, pertsona bakarra izan zela. Ordaina izan zela, mendeku zintzoa.

- Neu naiz, ama. Gogoan duzu aitaren lankide Alfonek diseinatutako pegatina, aitak sukaldeko baldosan jarri zuena? Papparretik kendu barik erabiltzen genuena?

- Oso urrun entzuten dizut.

- «Euskalduna» idatzi dudala.

- Euskalduna zer?

- Picassori ahaztu zitzaiona idatzi dudala!

«Euskalduna» *Guernican*!

- Lorea, laztana, egidazu berba ozenago, Txorroko puntan entzuten zaitut.

- Agur, ama. Muxu handi bana etxekoei.

- Muxu zer? Lorea, Lorea!

Koaderno honetako azken berbak idatzi bitarteko urteetan, bizirauteko era guztietako lanetan luzatu dut itxaronaldia. Kostatu egin zait testigantza utzi behar nizula konturatzea. *Guernica* desitxuratu zuen erotzat gogoratuko nautela ohartu naiz. Ustezko eroa izateak anekdota

bihurtu duela den-dena, Euskalduna desagerrarazi zutela eta Guggenheimek loriatsu dirauela. Zure aitita zenaren koadernoak irakurtzeko aukerarik baduzu, ni ez gorrotatzeko adorea biltzen baduzu, idatzi egidazu, ez nadin isildutakoak errepikatzen bizi. Hiltzen lagunduko didazu. Laster arte, Peru.

1071 Fifth Avenueko Cafe 3  
2018ko martxoaren 29an